



Ekso eta Pxli trap abeslari aretxabaletarrak. URI!

Gazteak harrapatu ditu rap eta trap musikak, eta eskaintza ugaritu egin da

Musika urbanoa da nerabeek gehien entzuten duten estiloa; taldeek gaztelania darabilte, gehienbat / 38

COVID-19a: abuztuan hobera egin du egoerak, baina 9.000 pertsona kutsatu dira dagoeneko / 2

Auto elektrikoendako sei kargaleku daude eskualdean, eta gehiago jartzea eskatu dute / 4

Gaur hasi eta bi asteburutan sei proposamen izango dira Kulturate Akustikoetan / 21

Andramaixen ordeztu herri kirolak, musika eta puzgarriak izango dira Gatzagan kultura asteburuan / 21



ONENA, ARETXABALETAKO TOMATEA

Larrinon ekoiztutako Aretxabaletako tomateak bi sari garrantzitsu irabazi ditu; Tomatearen Astea egingo dute Aretxabaletan / 16

David Agirre, Aretxabaletako Larrinogari baserrian, saritutako tomate klasearen ale batzuekin. XABIER URZELAI

SINADURAK

	LANDER BELOKI / 8		LEIRE ELEJALDE / 15
	JONMIKEL INTSAUSTI / 33		AINTZANE OIARBIDE / 48
	MARIXE RUIZ DE AUSTRI / 11		

+ Aitor Maiztegi, hiru izarreko sommeliera

Amaia Arroyo, komunikazioaz eta hezkuntzaz

BACK OUTSIDE

2 MÓ
graduatu erreflexuen
aurkako lenteekin

99€



Otalora Lizentziaduna, 18
Tel.: 943 79 29 95
ARRASATE


Ibargarai, 16
Tel.: 943 76 15 75
BERGARA

www.multiopticas.com

MULTIÓPTICAS

Intzidentzia-tasaren eboluzioa

DATUEN ITURRIA: EUSKO JAURLARITZA ETA NAFARROAKO GOBERNUA



Positibo kasuak eta intzidentzia

	Positiboak aste honetan	Positiboak aurreko astean	Positibo metatuak	Positiboak biztanleekiko	Intzidentzia tasa 14 eguneko, 100.000 biztanleko
Arrasate	41	21	3.499	%15,85	280
Bergara	19	25	1.824	%12,13	292
Eskoriatza	16	13	507	%12,36	706
Oñati	9	6	1.659	%14,47	218
Aretxabaleta	6	21	951	%13,42	381
Antzuola	4	3	290	%13,31	321
Aramaio	3	1	219	%14,80	270
Elgeta	2	1	82	%7,25	265
Gatzaga	0	0	13	%5,20	0
DEBAGOIENA	100	91	9.044	%13,95	310

OHARRA: EGUAZTENERA ARTEKO DATUAK

ITURRIA: OSASUN SAILA

Abuztuan behera egin arren, 9.000ko langa gainditu du bailarak

9.044 dira pandemia hasi zenetik COVID-19a harrapatu duten debagoiendarrak. Abuztuan positiboak erdira jaitsi arren, 48 egunetan batu dira azken 1.000 kasuak.

Uxue Igarza Loiola DEBAGOIENA Astelehenean 9.000 kasu metatuen langa gainditu zuen eskualdeak; hau da, dagoeneko 9.000 debagoiendarrek baino gehiagok harrapatu dute koronabirusa. Horietatik 100 azken astean ku-

tsatu dira –abuztuaren 26tik hilaren 1era–.

Aurreko astearekin alderatuta, bederatzi gehiago izan dira oraingoan baieztatutako kasuak, baina, herriei erreparatuta, joe- rak ez dira berdinak izan. Adi-

bide bat jartzearen, Arrasatek erregistratu dituen kasuak ia bikoitza izan dira aurreko astearekiko, eta Aretxabaletan, aldiz, hamabost positibo gutxiago hauteman dira. Gainerakoe- tan, goiko taulan ikus daitekeen

moduan, aldeak ez dira hain nabarmenak izan.

Bestetik, asteon, aldaketak egon dira intzidentzia-tasetan ere; besteak beste, Bergara eremu laranjatik horira igaro zen eguaztenean –300etik beherako tasa izan ostean–, eta egun be- rean, Antzuola horitik laranja- ra igaro zen. Dena den, arreta ematen duen herria Eskoriatza da: tasarik altuena du eta egua- ztenera arte, behintzat, eremu gorrian egon den herri bakarra da. Intzidentziekin bukatzeko, eskualdeak berak ere aldaketak izan ditu: eguaztenean eremu laranjara igaro zen Debagoiena, 300eko tasa metatua gainditu ostean.

Nolanahi ere, atzera begira- tuta, ia 900eko intzidentzia-tasa metatua zuen Debagoienak uztail bukaeran –870,24koa, zehazki–.

Orduetik, apurka-apurka behera egiten jardun du –256,14ra iritsi arte–, baina, esan bezala, egua- ztenean berriz ere gora egin zuen, 310,14ra ailegatuta.

HILABETEKO ERREPASOA ABUZTUAN ZEHAR APALTZERA EGIN DUTE BAILARAKO DATUEK

Koronabirus kasuak ere, uza- tailean atzemandakoen aldean, erdia baino gutxiago izan dira abuztuan; izan ere, 852 erre- gistratu ziren uztailean eta 354 izan dira aurreko hilabetekoak. Osasun Sailak egunero eman dituen datuak aztertuta, Arras- te izan da kasu gehien batu dituen (122), baina propor- tzioan, Bergara ez da atzean geratu: 77 positibo baieztatu

IRAILAREN 2tik 16ra

605773992 | GOIESKOLA@GMAIL.COM

DEBAGOIENEN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOA

"Guztion eskola, Guztion artean"

MATRIKULAZIOA ZABALIK


HELDUEN HEZKUNTZA
Matrikula 2021-22 ikasturtea

EPA ARRASATE HHI
www.epaarrasate.hezkuntza.net
Arrasate Pasalekua 1, 3 eta 5.
Tel.: 943 77 11 72

EPA BERGARA HHI
www.epabergara.hezkuntza.net
Barrenkale 33. Tel.: 943 76 44 52

Baieztautako positibo metatuak Debagoiengan

ITURRIA: EUSKO JAURLARITZAKO OSASUN SAILA



dira hilabete osoan; batez ere, bigarren hamabostaldian. Ondoren, Aretxabaletak izan ditu gehien (61), eta kasu horretan, lehenengo bi asteetan atzeman dira positibo gehienak. Oñatin ere hilabetearen lehenengo hamabostaldia izan da kutsatze kopuru handiena erregistratu duena; guztira, 53 kasu izan dira abuztukoak. Eskoriatzan, berriz, 39 erregistratu dira eta nabarmentzekoa da oraindik ere horren ondorioak bizi izaten ari dela: eguaztenean 706,80ko intzidentzia-tasa izan zuen. Herri txikiagoen artean, hamar kasu hauteman dira Antzuolan, bederatzia Aramaion, bost Elgetan eta bi Leintz Gatzagan. Nolanahi ere, Osasun Sailak doikuntzak egin ditu zenbatekoetan, eta 378 kasu beharrea herri guztien batura 354 dira Debagoienak abuztuan erregistratu dituenak. Esan beharra dago ez dagoela modurik doikuntza horien zehaztasunak jakiteko.

Abuztua "hilabete lasaia" izan da Debagoieneko Ospitalean ere. Zuzendaritzak emandako datuen arabera, azken astean koronabirusarengatik ospitaleratutako gaixorik gabe egon da erietxea, eta hilabetearen zehar, COVID-19aren ondorioz ingresatutakoak gehienez ere hiru izan dira eguneko. Azken datuari dagokionez, aldiz, atzora arte pertsona bakarra zegoen ingresatuta Arrasaten.

HILKORTASUN-TASA

GAITZA HARRAPATU DUTENEN IA %2 HIL DA DEBAGOIENAN

Azken astean 25 lagun hil dira EAEn koronabirusaren eraginez –aurreko asteko kopuru bera–; horietako bat, Arrasaten. Hala, bailarako datuei erreparatu, pandemia hasi zenetik 174 debagoiendar zendu dira. Herriz herri, 87 heriotza erregistratu dira Arrasaten, 40 Bergaran, hemeretzi Aretxabaletan, hamazazpi Oñatin, zortzi Eskoriatzan eta bana Antzuola, Aramaio eta Elgetan.

Horrenbestez, datuen arabera, gaitza harrapatu duten ehun pertsonatik ia bi hil dira eskualdean –%1,92–. Datu hori Hego Euskal Herrikoarekin alderatuz gero, Debagoieneko hilkortasun-tasa altuagoa dela ondoriozta daiteke; izan ere, kutsatutakoen %1,74 hil da Hego Euskal Herrian –%1,81 EAEn eta %1,51 Nafarroan–.

TXERTAKETA-KANPAINA

HERRITARREN %80K BUKATU DU BERE TXERTAKETA ZIKLOA

Eguaztenean arteko datuen arabera, 3.103.156 dosi jarri dira Euskal Autonomia Erkidegoan; momentura arte iritsitakoen %90,4, hain zuzen. Gauzak ho-

rrela, 12 urtetik gorako 1.579.417 herritar dira txertaketa-zikloa bukatu dutenak –%79,8– eta 1.726.488 lagunek jaso dute gutxienez lehenengo ziztada –%87,3–.

Gotzone Sagardui Osasun sailburuaren arabera, "aste gutxiren buruan" bukatuko da txertaketa-kanpaina. Gai horri lotuta, aste honetan bertan gogorarazi du txertoa hartuta duten herritarrek ez dutela berrogeialdirik bete behar; ezta txertatutako ikasleek ere.

NEURRI BERRIAK

LABIREN ERABAKIZ, IRAILA NEURRIAK MALGUTUTA HASI DA


Bilakaera epidemiologikoak hobera egin duela eta txertaketa-kanpainak behar besteko erritmoari eutsi diola iritzita, Labik edukiera eta bilkura mugak leuntzea erabaki zuen astelehenean. Eguaztenean dira indarrean arau berriak: baimendutako gehie-

neko edukiera orokorra %35etik %60ra igo da –salbuespen batzuekin– eta ostalaritzan eta elkarte gastronomikoetan barruko edukiera %50era igo da. Gainera, mahaiaren bueltan zortzi lagun bildu daitezke orain.


Ikastetxeetako arauak dagoenez, Hezkuntza sailburuak azaldu du ikasturte berria "aurrekoa amaitu zen bezala" hasiko dela. Hots, segurtasun distantziek, higie-ne-arauek, aireztapenak eta maskarek ikasleen lagun izaten jarraituko dute.

EUSKARAZ

ZABALDU 2021-2022 AUKERAK



UDAL EUSKALTEGIAK



HADE

♦ MATRIKULA EPEA ZABALDU

<p>BEDITA LARRAKOETXEA UDAL EUSKALTEGIA Bidebarrieta 18 Oñati. Tel.: 943 78 24 96 euskaltegia@onati.eus</p>	<p>ARRASATEKO UDAL EUSKALTEGIA Arimazubi plaza 2 Tel.: 943 79 70 77 Whatsapp 688 78 09 31 euskaltegi@arrasate.eus</p>	<p>BERGARAKO UDAL EUSKALTEGIA Barrenkalea 33 (Irizar jauregia). Tel.: 943 76 44 53 euskaltegia@bergara.eus</p>	<p>LEINTZ UDAL EUSKALTEGIA Nafarroa 2 - Aretxabaleta Intxaurbuelta 9 - Eskoriatza 943 79 21 68 idazkaritza@udaleuskaltegia.eus</p>
--	--	---	---

Kargaleku gehiago nahi dituzte auto ekoizleek

2025erako auto elektrikoak kargatzeko guneak hamar aldiz handitzea proposatu du Anfac auto ekoizleen elkarteak. Debagoiengan, une honetan, erabilpen publikoko bost kargaleku daude, eta "erabilpen maila baxua" dutela diote kudeatzaileek

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Autoen merkatuan iraultza elektrikoaren oihartzuna aspalditik entzuten den zerbait da, baina, gaur-gaurkoz, iraultza horren eraginak ez dira batera agerikoak. Euskal Autonomia Erkidegoan, adibidez, 2021eko lehen seihilekoan saldutako autoen %7 baino gutxiago dira elektrikoak.

Auto elektrikoaren zabalkunde motelaren faktoreak askotarikoa izan daitezke. Ekoizleen arabera, prezio altuak eta autonomia falta izaten dira erostle potentzialentzako oztopo nagusiak, baina autoak kargatzeko gune gutxi izateak egoera are gehiago okertzen duela ohartarazi dute. Hala, Espainiako Auto Ekoizleen Anfac elkarteak proposatu du gaur egun dagoen kargaleku kopurua hamar aldiz handitzea 2025erako, eta 2030erako 30 aldiz handiagoa izatea ere bai.

Bost kargaleku bailaran

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroan 618 kargaleku daude, guztira. Debagoienera etorrita, aldiz, une honetan bost kargaleku publiko daude erabilgarri: Arrasaten, Avia gasolindegian; Bergaran, Avia eta Repsol gasolindegietan eta Leizeaga kaleko Eroski supermerkatuan; eta Oñatin, Arantzazuko Ama kaleko Eroski supermerkatuan.

Seigarren bat ere badago Arrasateko Musakola Auzoko Eroski gasolindegian, baina enpresen erabilerrara dago mugatuta, gaur-gaurkoz. Edozelan ere, bezero batzuen eskaria aintzat hartuz, karga puntu hori erabiltzaile partikularrek erabiltzeko urratsak egiten ari direla adierazi dute. AP-1 autobidean, Arrasate inguruan dagoen Repsol gasolindegian ez dute kargalekurik une honetan, baina etorkizunean jartzeko aukera

mahai gainean dutela adierazi dute haiek.

Debagoiengan hamabi gasolindegia daude –bost Arrasaten, hiru Bergaran, bi Oñatin eta bi Eskoriatzan–; %25ek dute auto elektrikoak kargatzeko aukera.

Bailaran badaude auto elektrikoak kargatzeko gune gehiago, baina erabilera pribatukoak. Auto kontzesionarioetan daude horietako batzuk –Arrasateko Mugarrin eta Chapimen, esaterako–, baina ez daude edozein erabiltzailearen esku. Gune pribatuak dira.

Erabilera "baxua"

Auto elektrikoak kargatzeko gunea dutenek azaldu dutenez, "erabilpen maila baxua dute". Edozelan ere, Arrasateko Avia gasolindegikoek azaldu dute "baxua izan arren pixkanaka erabilera gorantz doala igartzen dutela.

Oñatiko Eroski supermerkatuan dagoen gunea Ibil SA enpresak kudeatzen du, eta, bertako arduradunen arabera, herri txikien eta hiri handien artean alde handia dago erabilerari dagokionez.



Arrasateko AVIA gasolindegiko langile Pello Urreta, kargaleku elektrikoan. X.G.

Debagoieneko kargaleku sarea

Arrasate

- **Avia gasolindegia, San Andres kalean:** erabilera publikoa.
- Eroski gasolindegia, Musakolan: enpresek erabiltzeko soilik.

Bergara

- Avia gasolindegia, Urteaga kalean: erabilera publikoa.
- Repsol gasolindegia, Amillagan: erabilera publikoa.
- Eroski supermerkatua, Leizeaga kalean: erabilera publikoa.

Oñati

- Eroski supermerkatua, Arantzazuko Aman: erabilera publikoa.

EKINTZAILTZAZ GARAIA



Garaia Parke Teknologikoaren gune bat. GARAIA PARKE TEKNOLOGIKOIA

"Txipez gain talentua" ere falta dela diote Garaia Parkeko adituek

Bertara talentua erakartzeko "gizartearen eta erakundearen inplikazioa" beharrezkoa direla uste dute

X.G. ARRASATE

Txipen faltaz gain, enpresek "talentu gabezia" dutela uste du Garaia Parke Teknologikoko negozio garapen arduradun Idurre Albizuk. "Azken hilabeteotan sarritan entzuten ari gara mundu mailan txip gabezia handia dagoela, eta horrek eragin zuzena duela gure enpresetan, eta kontsumitzen ditugun produktuetan eta zerbitzuetan. Hala ere, gure enpresek izan dute beste gabezia garrantzitsu bat: talentu gabezia; COVID-19ak ere gehiago azaleratu duena".

Alde horretatik, employer branding bezalako estrategien beharra azpimarratu du: "Garaia Parke Teknologikoaren bete-beharretako bat da kanpoan dauden enpresen beharrei entzutea eta guztiei zerbitzua ematea, eta erantzun aproposa eskaintzea ekonomia- eta gizartearen garapenari. Duela pare bat urte, Garaia Parke Teknologikoan employer branding-ari buruzko saio batzuk egin genituen. Zer da hori? Bada talentua enpresetara erakartzeko estrategia bat, funtsean marketina erabiltzen duena. Hiriburuetan employer branding kontzeptua futbolearen bezala erabiltzen da, beste herrialdeetako profesionalak erakartzeko eta fitxaketak egiteko. Ekintza horietan, lan eskaintza erakargarria proposatzeaz aparte, bizileku erakargarria, aisialdirako aukera antza eta aberasgarria eta bikoitearentzat eta haurrentzat –ba-

leude– lan eta hezkuntza aukerak ere gehitzen dira. Erakartzeko modu horretan, enpresek egiten duten esfortzuaz aparte, erakunde publikoek eta gizarteak zeresan handia dute enpresa inguratzen duten beste arlo guztiak erakargarri izateko. Baina ezin magiarik egin, eta enpresak kokatzeko hartzen diren erabakiak ez dira beti irizpide honekin egiten; orain arte ez, behintzat".

Kanpoko talentuaz gain, bertako talentua fidelizatzea ere funtsezkotzat jo du: "Baina, agian, erakartzeko hori egin aurretik, bertako talentua zaindu eta fidelizatu beharko genuke. Bertan jaiotako gazteak edo bertan ikasi dutenak gure talentu harrobia dira. Harrobi horretan gero eta presentzia handiagoa dute emakumeak, eta baita bizitza hobeago baten ametsarekin ingurutik edo atzerritik gure artera etorri direnak ere. Horiek guztiek gure talentuaren harrobi izateko aukera dugu. Txipekin ez dugu asmatu, ezta talentua erakartzeko ere, baina azken arlo honetan arreta eta baliabideak jartzeko garaia da, gure gizartearen eta enpresen etorkizunari erabat lotuta baitago".

"TALENTUA GURERA ERAKARTZEN ASMATU BEHAR DUGU, BAITA GUREAN DAGOENA FIDELIZATZEN ERE"

Afganiar emakumeekiko elkartasun keinua

Oñatiko Lagun Leku elkartekoek elkarretaratzea egin dute emakume afganiarrei elkartasuna erakusteko eta euren eskubideak errespetatu daitezzen eskatzeko. CEAR elkartetik azaldu dutenez, momentuz, ez dute afganiar errefuxiatuak hartuko Larrañan

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Afganistango emakumeen aldeko elkarretaratzea egin zuten martitzen eguerdian Oñatin, hango Lagun Leku erretiratuen taldeak deituta. Hainbat herritar elkartu ziren Olakua auzoko urmaelaren ondoan, Afganistango emakumeen eta euren eskubideen alde. Mahaitxo batean orriak eta idazteko boligrafoak jarri zituzten, gura zuenak mezuren bat idazteko. Eta horixe egin zuten bertaratu zirenetako askok; euren elkartasun mezua idatzi eta Afganistango argazkiekin osatutako mural handi batean itsatsi zituzten gero.



Deialdiarekin bat egin zuten lagunak, martitzeneko elkarretaratzean. OIHANA ELORTZA

Aldika, gaurkotasunezko gai batzuen inguruko elkarretaratzeak egiten dituzte Lagun Leku elkartekoek, eta aste honetako horietako beste bat izan da.

Larrañan, afganiarrik ez

Talibanek Afganistango boterea berreskuratu zutenik asko izan dira bertatik alde egin nahi izan duten herritarrak. Espainiako Gobernuak bertako errefuxiatuak hartzeko hautua egin zuen eta abuztuaren 24an lehen 390 errefuxiatuak heldu ziren Torrejon de Ardozko aireportura. Eusko Jaurlaritzan baitan dagoen CEAR elkarteko errefuxiatu horietako batzuk hartzeko borondatea azaldu zuen, eta lehen kolpe batean horietako bederatzita hartu zituzten. "Une honetan Euskadin 60 errefuxiatu afganiar daude. Horietatik 22 CEAR-ek kudeatzen ditu, eta gainontzekoek beste elkarte batzuen bitartez. Hasiara batean, abegi-etxeetara bideratu ditugu, eta, gaur-gaurkoz, ez dugu aurreikuspenik Larraña bezalako zentroetara bideratzeko", adierazi du CEAR elkarteko zuzendari Patricia Barcenak.

Udal mozioen gida aurkeztuko du bihar Baso Biziak elkarteak

Elgetako liburutegian egingo dute aurkezpena, 12:00etan. Plataforma 2021eko martxoan jaio zen, besteak beste, eukalipto landaketen aurka dauden herritarren atxikimenduak batzeko. Gaiarekin lotuta herririk herri egin diren mozioak gida batean batu dituzte, eta hori aukertez gain, "proposamen ausart bat" emango dute aditzera.

125 langabe gehiago utzi ditu abuztuak bailaran

Uztaila amaitzean 2.393 debagoiendar zeuden lan eske, eta abuztu amaieran, aldiz, 2.518ra igo da zifra. Bergara izan da langabe gehien izan dituen, 37 lagun batu baitira zerrendara. Ostean datoz Arrasate -32 langabe- eta Oñati -29 langabe-. Aramaio da jaitsi den herri bakarra, uztailean baino langabe bat gutxiago baitu.



MGEP

MONDRAGON GOI ESKOLA POLITEKNIKOA
JOSE MARIA ARIZMENDIARRIETA S.COOP

GOI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOAK

2021-2022

MATRIKULA ZABALIK

Eskaintza akademikoa
•Automatizazioa eta Robotika Industriala
•Mekatronika Industriala
•Fabrikazio Mekanikoko Produzioaren Programazioa
•Fabrikazio Mekanikoko Diseinua
•Sareko Informatika Sistemen Administrazioa

www.mondragon.edu/gmh
onarpena.lhm@mondragon.edu
664 298 704 • 664 298 683








Arrasate Herri Eskolako irakasleak, eguaztenez, ikasturtea antolatzeko lehen bileretako batean. XABI GOROSTIDI

lazko "zuhurtzia maila berarekin", ikasturte berria hasteko gertu

Bailarako ikastetxeak prestaketa lanetan murgilduta daude, egun gutxi barru hasiko baitute 2021-2022 ikasturtea. lazkoa "ezohikoa eta gogorra" izan zela diote langileek, baina hartutako eskarmentua eta esperientzia lagun izango dute aurtan

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Ikastetxeetan lan karga handiko egunak izan dira aste honetakoak, gutxi falta baitzaie ikasturte berria hasteko. Haur eta Lehen Hezkuntzako zentro gehienetan astelehenean, irailak 6, hasiko dituzte eskolak; Bigarren Hezkuntzan, batxilergoan eta Lanbide Heziketan geroxeago, eta Mondragon Unibertsitatean, esaterako, irailaren 4tik 16ra bitartean. Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak astelehenean jakinarazi zuen hezkuntza zentroetako COVID-19 protokolo berria, eta hori aztertzen eta barneratzen aritu dira asteen.

lazko antzera

Protokolo berriak aldaketa batzuk barnebiltzen dituen arren, iazko protokolo ia berarekin jardungo dutela adierazi dute GOIENAK kontsultatutako hiru

ikasleek. "Orokorrean, uztai-lean geneukan protokolo ia berarekin ekingo diogu ikasturte berriari. Duela egun gutxi plazaratu du Jaurlaritzak ikasturte hasierarako protokoloa eta egun hauetan gure plangintza

borobiltzen aritu gara. Baditu berritasun batzuk: eskolaz kanpoko ekintzak, barnetegiak... Esan daiteke zerbait malgutu dituztela neurriak, baina, gure kasuan, iazko ikasturte amaierako zuhurtzia berarekin jar-

dungo dugu ikasturte berri honen hasieran. Ezin gara erlaxatu; pena handia litzateke-eta iazko ahalegin kolektiboarekin lortutako guztia galtzea", adierazi du Mariaren Lagundia Ikastolako komunikazio arduradun Gotzon Iparragirrek.

"Zuzendaritza taldekoak abuztu amaiera ezker gabilta lanean, kurtso berriari ahalik eta hoberen ekiteko. Hasiera batean, iazko kontingentzia plan berarekin ekingo diogu: distantziak, maskarak, burbuilak, sarrera-irteera mailakatuak... Badirudi aurtengo protokolo berriak burbuila barruan talde lanak egiteko aukera gehiago ematen duela; gure kasuan, asko eskertuko dugu, talde lanean funtzionatzeko kultura oso barneratuta baitugu", azaldu du Arrasate Herri Eskolako zuzendari Ana Zubillagak.

"Berritasun txikiak ditu protokolo berriak; beraz, iazko ikasturteko protokolo ia berarekin ekingo diogu. Eskolara sartu aurretik, adibidez, ez diegu ikasleei temperatura hartu behar, baina ilarak, maskarak, distantziak eta burbuilak mantentzen jarraituko dugu", adierazi du Aranzadi Ikastolako zuzendari Agurtzane Loidik.

Neurriak malgutzeko nahia

Egoera pandemikoa arindu ahal neurriak leuntzeko eta normaltasuna berreskuratzeko nahia azaldu dute guztiek. "Asko dira kendu nahiko nituzkeen neurriak, baina, adibidez, jolastokian maskara erabiltzeko derrigor-tasuna kentzea urrats bat izango litzateke pixkanaka lehen gurean girora hurbiltzen hasteko", dio Gotzon Iparragirrek. "Badugu esperantza, adibidez, Gabonak heldu orduko talde

dinamika areagotzeko baimena edukitzeko; burbuilak handitzea eta ziklo bereko ikasleekin ekimenak egin ahal izatea asko eskertuko genuke", azaldu du Agurtzane Loidik. Loidiren antzera mintzatu da Ana Zubillaga ere: "Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleak mugimendu autonomoan hezten ditugu. Hartu-eman handia izaten dute maila eta ziklo bereko beste ikasleekin, eta hori pixkanaka berreskuratzea aurrerapauso nabarmena litzateke".

lazko neurriak, eraginkor

2020-2021 ikasturtea zalantzarik betirik hasi zuten bailarako ikastetxeek. Aurrez aurreko eskolak berreskuratu zituzten, baina ziurgabetasun maila oso altuarekin. Zailtasunak zailtasun, kurtsoa hasieratik bukaerara egitea lortu zuten, eta pozik eta harro azaldu dira ikasturteak emandakoarekin. "Neurriak oso zorrotzak izan ziren, baina azpimarratu nahiko nuke kurtso osoan zehar irakasleek, langileek eta, batez ere, ikasleek izan zuten inplikazioa. Sakon eta luze egin dugu lan, eta horri esker lortu genuen eskola barruan kutsatzerik ez gertatzea; kutsatu izan direnak eskolatik kanpo kutsatu dira. Beraz, neurriak zorrotz betetzeak balio izan digu birusari eraginkorki erantzuteko. Urte zaila eta gogorra izan da, baina egindako ahaleginak merezi izan duela sentitu dugu".

Mariaren Lagundiko "protokoloaren eraginkortasuna" azpimarratu du Gotzon Iparragirrek. "Ikastetxeek euste lan handia egin dugu birusaren aurrean. Gure zentroen barruan ez da kutsatze kasurik gertatu, eta denok egindako ahaleginaren emaitza izan da hori. Bereziki goraiatu nahiko nuke ikasleek izan duten jarrera. Gazteak askotan jarri dira jo-puntuak, baina, guri dagokigunez, eredu-garri jokatu dute oso".

"Ikasturte ezohiko eta gogorra izan zen eskola partaide guztientzat, baina parterik gogorre-na ikasleek sufritu dute. Neurri askok izaera militarra izan dute: distantziak, ilaretan mugitu beharra, sartu-irten kontrolatuak, etxeratzeak... Egin duten ahalegina itzela izan da. Beraz, eskertu nahiko nuke profesionalak, gurasoek eta, batez ere, ikasleek erakutsitako jarrera", adierazi du Agurtzane Loidik.



ANA ZUBILLAGA
ARRASATE HERRI ESKOLA

"Eskola barruan kutsatzerik ez gertatzea lortu genuen; beraz, neurri zorrotzak betetzeko egindako esfortzuak emaitza positiboa izan zuen".



GOTZON IPARRAGIRRE
MARIAREN LAGUNDIA

"Gazteak jo-puntuak jarri izan dira sarri, baina eskola barruan izan duten portaera eredu-garria izan da; goraiatzeko eta eskertzeko modukoa".



AGURTZANE LOIDI
ARANZADI IKASTOLA

"Kurtso amaierako protokolo ia berarekin ekingo diogu berriari, baina esperantza dugu Gabonetarako talde lan gehiago egiteko moduan egoteko".

HANDIK ETA HEMENDIK

Taldea**ONINTZA ENBEITA****'BERRIA'-N ARGITARATUA****HTTPS://LABUR.EUS/TFUE4**

Zenbat gauza egiten ditugun dorpe inori arrazoirik ez emateagatik. Egiten ari garen moduak bizitza erdi kenduko badigu ere, hortxe tematzen gara. Askotan gauzak egiteko modu bakarra ikasi dugulako, eta beste askotan beste modu batera egin genezan aholku eman digunari kasurik ez egitearren. Gauza arraroa bezain kuriosoa da gizakia. Emozio batzuei garrantzi izugarria ematen die, eta beste batzuk besterik gabe pasatzen ditu. Harrotasuna irensteak urdaila nahasten digu, baina maitatuak izan gabe irauteko gai gara baldintzarik lorrinenetan. Gorrotoak itsututa bizitzera hel gaitzake, mendeku goseak bizi gaitzake, baina pasioari uko egiteko gai gara inori minik ez egitearren, edo eraiki dugun bizitza ez

galtzearren. Zain egotera ere ohitu egiten gara. Zain dagoenaren pazientzia horrekin, eta itxaron duguna heltzen denean, antsietateak harrapatzen gaitu. Tristurak ulertu egiten dizkiogu elkarrri, baina pozak iraungitze data bat baduela daukagu onartuta.

Gauza arraroa eta kuriosoa da gizakia. Komunitatean bizitzeko eraiki dituen arauak bizi dute norbanako bakoitza, eta, hala ere, une oro nahi duguna libre sentitzen dugula pentsatzen dugu; komunitatearen kargaz ohartu gabe. Elkarbizitzarako asmatu ditugun arau idatzi gabek bizitzen gaituztela ikusi nahi izan gabe.

Edukiak**ANDONI EGAÑA****'BERRIA'-N ARGITARATUA****HTTPS://LABUR.EUS/NCJKQ**

Hitz batzuk purian dabilzten bitartean, —orain oro da *brutala*— beste batzuei errespetua galtzen zaie

uneren batean edo bestean. *Eduki* hitzarekin gertatzen ari zaigu azkenaldian. Gazteleraz joera begi bistakoa da, eta, tamalez, horrek esan nahi du gurera iristeko ez zaiola askorik faltako. [...]

Orain, edozeri deitzen zaio *eduki*.

Telebista-tertulia batera auskalo noren ezkontza urratuaren berria ekarri duzula? Eduki bat sortzen ari zara.

Youtuben galtzerdiak nola tolestatu kontatzen duzula? Eduki bat sortzen ari zara.

Instagramen oporretan urpean ateratako argazki-bilduma jartzen duzula? Edukia sortzen ari zara. Edukiak sortzean omen datza arrakastaren gakoa.

Horiek eduki baldin badira, zer ote da axal? Eta, are garrantzitsuagoa, eduki horiek baldin badira, non daude besteak, egiazkoak?

Edukiontziren batean gordeak segur aski...

Munduan parte hartu**ARITZ GALARRAGA****'ARGIA'-N ARGITARATUA****HTTPS://LABUR.EUS/UXGG5**

Pentsatzen dut garai batean nik ere esperoko nuela, Rimbaud poetak bezala, dena bizi, dena esan, dena asmatu, lehen buruan dena suntsitzea. Proiektu bat eraman: mundua hitzen bidez eraldatzea. Hamabost eta hemeretzi urteen artean esan zuen esan beharreko guztia. Hitzak behingoagatik jarri gabe klasikoki pentsamendu jakin baten menara. Hunkigarria da obra hain urriak, *Une saison en enfer* eta *Illuminations* liburuek, abangoardien zikloa ireki izana. Eta gero isiltasuna. Eta bidaia, Europa, Afrika, 1881ko letra batean: "zaldi bat erosiko dut eta banoa". [...]

Pentsatzen dut garai batean nik ere esperoko nuela hori guztia, baina orain espero ditut, Rimbaud poetak bezala halaber, eguzki bainuak, paseo infinituak, atsedena, bidaiak,

abenturak, bohemiokeriak finean. Askotarikoa baita bizitza, kontraesanez betea, anbigua. Rimbauden gisara, ezin da makurtu arketipo bakar batera, orain santu, orain zikin, tarteka dena batera. Adibidez uda, abuztua, uda ofiziala, zeina pasa dugun zalapartaren erdian batzuetan, bakarrago, Sylvain Tesson eta beste idazle batzuen konpainian gehienetan. Eta tentazioa handia da, beste poeta batek, Baudelairek zioen hura jarraitzeko: "berdin dio non, mundutik kanpo". Baina iraila etorri duk hitaz galdezka, munduan parte hartu behar da, nahiz izan gogoz bestera, hitzaren baitako arma pobreekin besterik ez bada. [...]

Bizitzari bai esan, beraz, udaz kanpoko eguzkiari, guztiaz gozatu, hariari heldu, Zaratustra izan. "Oinezko bat naiz, ez besterik", zioen Rimbaud poetak. Ibiltzeko gogoz dabilena, hori bai.



Post gehiago 08. orrialdean.

Salaketa-gutuna Eskertza-gutuna Eskari-gutuna

Idatzi zure gutuna eta bidali gutunak@goiena.eus helbidera!

Erantzun-gutuna Aldarrikapen-gutuna Kexa-gutuna



ZABALIK

LANDER BELOKI

Green Deal: Europa berdatzen

Duela bi urte abian jarritako ekimen horren bitartez, Europako ekonomiaren ekoizpen eta kontsumo moduak jasangarriago bilakatzea da helburua. Horretarako, Europako legedia eta politika publikoak sakonki berrikusi eta diseinatuko dira. Eragina zortzi arlo desberdinetan sortu nahi dute: bioaniztasuna, elikadura, nekazaritza, energia garbia, industria, mugikortasuna, kutsadura ezabatzea eta klimaren aldaketa.

Hiru helburu nagusi ditu Green Deal ekimenak: lehenik, energia garbiaren erabilerrari bultzada erabakigarria ematea, energia berriztagarrien erabilera handituz Europako Batasunean. Bigarrenik, hazkuntza ekonomikoa eta baliabideen erabilerraren eta esplotazioaren arteko

TEKNOLOGIA AURRERAPENEZ GAIN, HIRITARREN BIZIMOLDEAK ALDATU BEHARKO DIRA

lotura etetea. Azken hamarkadan emisio murrizpenak gertatu diren arren, Europak baliabideen kontsumo handiena duen mundu mailako gunea izaten jarraitzen du. Helburu hori lortu ahal izateko, teknologia aurrerapenez gain, hiritarren

bizimoldeak aldatzea ezinbestekoa izango da. Eta hirugarrenik, trantsizio berdea gizarte mailan modu inklusiboan egitea beharrezkoa da. Horretarako, funts ekonomikoko itzelak bideratuko dira 2021-2027 epean trantsizioaren eragin sozioekonomikoak jasan ahal izateko: 75.000 milioi, euro guztira.

Horren harira, *Fit for 55* ekintza-paketea aurkeztu da. Bertan, politika publikoak eta erregulazio berriak jaso dira, ezarritako helburu horiek lortzeko bideak, neurriak eta baliabideak. Ekintza horien bitartez, bi helburu nagusi lortzeko pausoak eman nahi dituzte: 2030ean, 1990. urtearekin parekatuta, emisioak %55 gutxitzea eta 2050ean klimarekiko neutraltasunezko energia erabilera izatea. Ekonomia eta gizarteko jokabideen berdatzean pausoak ematen jarraitu beharra daukagu.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA



HANDIK ETA HEMENDIK

Zaborra

ANDER IZAGIRRE 'TTAP'-EN ARGITARATUA

Aurreko neguko egunik hotzenetan, Donostiara iritsi ez zen elurra iragarri zutenean, Uliako bideetan aurkikuntza bat egin nuen: han eta hemen, arroz-eskukadak uzten aritu zen norbait. Arroz pilatxo bat topatu nuen motzondo baten gainean, beste bat horma baten oinarrian, beste hainbat zuhaixken azpian. Norbait elurtearekin kezkatuta egongo zela pentsatu nuen, mendia zuriz estali eta txantxangorri, urtxintxa eta saguak janaririk gabe utziko zituelakoan. Hurrengo egunetan itzuli nintzen eta arroz-eskukadak

ukitu gabe zeudela ikusi nuen. Animalia mokofinak irudikatu nituen orduan: arroza gordinik? Aizu, mesedez, entsaladilla errusiar pixka bat ekarri, gutxienez, ganbak plantxan, onddo kroketak... Basatiak gara, baina donostiarrak beste ezereen gainetik.

Beste egun batean, lokatzez eta orbela ezalitate bide bazterrak adar handi batekin garbitzen ari zen gizon bat topatu nuen, pilatutako ura erretetik isuri eta bidea hondatu ez zezan. Gailurrera iritsi eta kartutxo, perdigo eta plater hautsien nahaspila zeharkatu nuen, duela mende laurden bat Uliako tiro-eremua itxi zutenetik hantxe jarraitzen

duen plastiko eta berunezko zabortegia.

Robert Louis Stevensonek irizpide hau omen zeukan bizitza zeharkatzeko: basoko soilgunea zegoena bezain garbia edo garbixago uztea. Mundutik pasatzeko dauzkagun moduei buruz pentsatzen bueltatu nintzen Uliatik. Guztion eremua zainduz edo txikituz, bizitza mimatuz ala zapalduz. Geure burua zein eder ikusten dugun eta nolako irudia utziko dugun: Ponpeiatik Zaldibarrera, ez dago gizarte baten erretratu iraunkorragorik zabortegi bat baino. Etorkizuneko arkeologoentzat horixe izango gara: giza hezur galduek amiantoaren artean.

Post gehiago 7. orrialdean.

goiena

KOMUNIKAZIO TALDEA

www.goiena.eus

Argitaratzailea

Goiena Komunikazio Taldea
Kooperatiba Elkarte
Otalora Lizentziaduna 31
20500 ARRASATE

Lehendakaria

Monika Belastegi.
Zuzendari nagusia
Iban Arantzabal.
Eduki zuzendaria
Eneko Azkarate.

Erredakzio batzordea

Eneko Azkarate, Monika Belastegi, Mirari Altube.

Zuzendari komertziala

Mireia Larrañaga.
Administrazio zuzendaria
Agurtzane Gaintzarain.

Diseinu arduraduna

Iñaki Iturbe.

Hizkuntza arduraduna

Sergio Azkarate.

Harpidetza eta banaketa arduraduna

Igone Osinaga.

Sailatetako arduradunak

Xabi Urtzelai (Kirola),
Aitziber Aranburuzabala (Kultura).
Maketazioa
Imanol Soriano, Aitor Lagoma,
Amaia Martínez de Arenaza.

Publikitate

Mireia Larrañaga,
Ziortza Martín,
Amaia Mundiñano.

Administrazioa

Ane Berezibar, Iratxe Bengoa,
Nerea Artola.

HARPIDETZA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.eus

PUBLIZITATEA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
Tel.: 943 25 05 05
publi@goiena.eus

EGOITZA NAGUSIA

Arrasate 20500
Otalora Lizentziaduna 31
132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05
Telegram eta WhatsApp:
688 69 00 07

berriak@goiena.eus

Lege Gordailua: SS-965/2014

ISSN: 2174-369X

Tirada: 19.000 ale

Difusioa: 18.723 ale

Inprimategia:

Zeroa Multimedia

GOIENAK ez du bere gain hartzen aldizkari honetako orrialdeetan kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.



GOIENA KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK



Gipuzkoako Foru Aldundia



Arrasateko Udala



Bergarako Udala



Oñatiako Udala



Aretxabaletako Udala



Eskoriatzako Udala



Antzuolako Udala



Aramaioako Udala



Elgetako Udala



Leintz Gatzagako Udala

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

BERBAGAI

"Oso uda lehorra izan dugu, baina freskoa, era berean"

PELLO ZABALA EGURALDI IRAGARLEA

Hasier Larrea ARANTZAZU

Aurtengo udan egindako eguraldiaren errepaso eta datorren udazkenaren inguruko pronostikoa egin du Pello Zabalak (Amezketan, 1943), Arantzazuko santutegitik.

Aste honetan bai, egin du euria, azkenean.

Asteazken goizean harritu nintzen, gauean zehar hiru litro pasatxo bota zituela neurtu nuenean. Oñatin gehiago bota duela entzun dut. Desberdintasun horiek sarri gertatzen dira gurean. Gogoan dut behin Arantzazun hamaika litro bota zituela eta Oñatin 110, baina salbuespena izan zen. Euria indartsu egiten duenean, ezin da jakin toki bakoitzean zenbat egin duen, herri guztietan neurtu beharko litzatekeelako, eta hori ez da posible izaten.

Aspaldiko udarik lehorrena izan al da?

Esango nuke baietz. Euri gutxiko egunak izan dira, baina beroa oso suabea



Pello Zabala, joan den eguaztenean Arantzazun. JULEN IRIONDO

izateak salbatu gaitu, beharbada. Egun batean bakarrik iritsi gara 31 gradura, normalean 23-24 graduan ibili baikara. Gauean ere ez du hoztu; beraz, giro goxoa izan dugu.

Zein da horren arrazoia?

Duela lauzpabost urte sortutako berdetasuna, aurretik ez baitziren zuhaitzak hain berdeak. Zurixkak ziren harkaitzetan zuhaitzak irten ziren, inork

ezer landatu gabe. Izan ere, garai hartan, udazkenetik udaberria amaitu arte giro euritsua egin zuen; 1.700 litro eman zizkigun tarte hartan. Urte arrunt batean gehixeago izaten dira, 2.000 inguru. Beraz, 1.700 litro asko dira zortzi hilabeterako.

Euri-jasa hark ekarri zuen aldaketa?

Horren aurretik, hemen zaparradak izaten zirenean, euria errekatxoak eginez zetorren, baina ordutik ez dira errekatxoak sortu. Lurraren euria jasotzeko erraztasuna aldatu egin zen, beraz. Bestalde, mendi puntetan zuhaitzak sortu ziren, lehen ez baitziren goraino igotzen. Naturak berak ekarri ditu zuhaitzak, komeni zaiolako.

Giro freskoa ere egin du udan. Ez al da arraroa?

Lehenengo garaiekin alderatuta, oso berezia da gertatu dena; hau da, uda-beteko 60 egun hauek hain berdeak izatea, 70 litro inguru bota dituela kontuan hartuta, are gehiago. Zerk mantendu du, beraz, freskotasuna? Berdeak. Behe-lainoari tira egiten baitio, freskotasuna ekarriz. Fresko egiten badu, lurra ez da hainbeste lehortzen.

Aipatu duzu zenbat euri egin duen. Eta uztail-abuztuko bilakaera nolakoa izan da?

Abuztuan 45 litro baino ez ditu bota. Hirugarren egunean, 20 litro; hau da, hil osoko erdia. Uztailea lehorragoa izan da oraindik, 24,5 litro bota baititu.

Bada zuhaitzak lehortzen hasi direla aipatzen duenik.

Baina ez da arduratzeko modukoa. Kontua da zuhaitzok harkaitzietan daudela, eta, beraz, zain txikiak dituztela. Ondorioz, eguzkiak berotzen duenean, harkaitzak zainak erasaten ditu. Baina, normalean, zuhaitzak oso berde daude. **Orduan, ez dugu lehorterik izan?** Ez nuke esango, ez baita lehorterik ikusten. Egia da Arantzazu azpian gehiago berotu duela, errepideek, autoek... sortzen duten aire-korranteagatik.

Eta ze eguraldi izango dugu aurrerantzean?

Ekaitz solteak izango dira, irregularki banatuta. Lurrari ez diote kalterik egingo, fresko baitago. Zuhaitzen fruituetan ere ikusten da, ez baitute sufritu. Udazkenari dagokionez, ez dut ikusten beldurtzeko moduko hamar egun jarrai edukiko ditugunik. Ondo samar goaz, eta jarrai dezala horrela.

ITURRI ONETIK

Oñatira helduko da 'Herri txiki, infernu handi'

Mikel Pagadik eta Zuhaitz Gurrutzagak aurkezten duten saioaren 8. denboraldiko atalak grabatzen ari da ETB1, eta Oñati izango da atal horietako bateko protagonista. Datorren astelehen eta martitzenean -6 eta 7- egingo dituzte grabaketak Oñatin hainbat herritarrekin, eta 16an, eguna, 20:00etan, grabaketa nagusia, plazako frontoian -eguraldigatik ezin bada, kiroldegiko kantxan-. Ekitaldi horretarako sarrerak irailaren 7tik aurrera eskuratu ahalko dira Udalaren webgunean.

ALBISTE IZAN ZEN

2014-08-22

Gurpil bakarraren gainean Tourmaletera

Frantziako Pirinioetako mendate ospetsuetakoa, Tourmalet, bizikleta gainean, baina atzeko gurpil gainean bakarrik igo zuen Markel Uriarte aretxabaletarrak. Bidean aurkitutakoek harriduraz begiratu zioten. Ordubete eta 49 minutu behar izan zituen egiten mendatea igotzeko. Gaitzena igoera osoan "kontzentrazioari eustea" izan zela adierazi zuen Orbeako riderrak. Biharamunean, gainera, berriro igo zuen.



GOIENA

HAU BE BADOGU!

Zinemak euskaraz aldarrikatzen

Euskaraz bikoiztutako ikus-entzunezkoak zinemaren zein pantaila txikian eskatzen dituen #zinemakeuskaraz ekimen herritarrek indarra hartu du sare sozialetan:

@zinemake:

"#ZinemaEuskara sustatzeko, jendea euskaraz kontsumitzera ohitzeko, inbertsioa, epe luzerako estrategia, politikak eta publizitate kanpaina sendoak behar dira!".

@translarting: "Sinatu #zinemaeuskaraz nahi baduzue! Zinema ere euskaraz bizitzeko eskubidea daukagu! #euskarazbizi".



Herritar bat, bizikletan, bidegorri berria egingo duten zatian, Elorregira bidean. E.A.

Urtea bukatu baino lehen hasiko dira eraberritzen

Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun Saileko zuzendari Ander Iturrik aurreratu duenez, Kataide industrialdetik Elorregiranzko 690 metroko bidegorri zatia egiteko lanak urtea bukatu aurretik hasiko dituzte; sei aste beharko dituzte zati hori osatzeko

Eneko Azurmendi ARRASATE

Hainbat arazo administratiboren ondorioz, hasierako aurreikuspenak atzean geratu ziren, 2020ko hasieran baitziren lan horiekin hastekoak. Edozelan ere, arazo horiek gaindituta, "beranduenek" urtea bukatu aurretik hasiko dituzte Kataideko bidegorri zatia egiteko lanak, Ander Iturri Mugikortasun Saileko zuzendariak azpimarratu duenez. Bi enpresak aurkeztu dituzte euren proiektuak bidegorria egiteko. "Kontratazio mahaia abuztuan zen batzekoa, baina, oporrak direla-eta, azkenean, irailean zehar aztertuko dituzte aurkeztu diren bi enpresen eskaintzak eta hilabete bukaerarako obra esleituta egotea aurreikusten dugu", zehaztu du Iturrik. Ondo bidean, proiektua esleitzen denetik hilabetera hasi beharko lirake lanak, urri bukaerarako. "Dena den, asko jota, urtea bukatu aurretik lanekin hasita aurreikusten dugu". Behin lanekin hasita, sei aste beharko

dituzte aipaturiko 690 metroko bidegorri zati hori egiteko.

328.930,09 euroko aurrekontua da lizitaziora aurkezturikoa, BEZa barne, eta finantzaketaren %100 Gipuzkoako Foru Aldundiak hartuko du bere gain, nahiz eta Arrasateko Udalak bere garaian Aldundiari egindako eskaerari erantzuten dion. Izan ere, zati osoa Arrasateko lurretan dago.

2019ko irailean lortu zuten akordioa Arrasateko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta, akordio horri erantzunez, Kataide eta Arrasateko ekialdeko tokiko bidegorria lotzeaz gain, zorua egokitu eta handitu, espaloiak eta zintarriak konpondu eta seinaleztapena eta argizta-

ARAZORIK EZEAN, IRAILEAN ESLEITUKO DUTE OBRA ETA URRI AMAIERAN BERRITZE LANEKIN HASIKO DIRA

pena hobetuko dituzte obra honekin. Mugikortasun Saileko zuzendariaren ustez, "garrantzi handia" dauka bi tarte horiek lotu eta bidegorri zati hori amaitzeko. "Funtsezkoa izango da Deba ibarreko foru-ibilbidearen barruan", gaineratu du.

Hobetzeko "beharra" dauka

Erabiltzaile gehienek begi onez hartu dute albistea, bidegorri zati horretan hobekuntzak egiteko beharra sumatzen baitute aspaldian. Batzuek uste dute "estuegia" dela oraingoa eta zabaltea beharrezkoa dela. Horrez gain, zuloz josita dagoela ere nabarmendu dute, eta leundu egin beharko litzatekeela. "Eurria egiten duenean putzu handiak sortzen dira".

Oinezkoendako eta bizikletendako bideak ondo bereiztea ere garrantzitsutzat jo dute beste erabiltzaile batzuek. "Oinez zozela, abiadura handian pasatzen dira bizikletan, eta hori oso arriskutsua da".

GORA ETA BEHERA



E.A.

Autoak gaizki aparkatuta Munarren



Herritar batek bere kexa azaldu du, Munar inguruan autoak gaizki aparkatuta egoten direla eta: "Askotan ilara bikoitzean egoten dira eta ezin izaten dut autoa atera. Errespetu apur bat".

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo [688 69 00 07](tel:688690007).



E.A.

TAO guneak margotu dituzte

Dagoeneko margotuta daude TAO (OTA) guneak Arrasateko erdigunean, eta, ondo bidean, urri hasieran jarriko dute martxan aparkatze sistema berria. Edozelan ere, Maria Ubarretxena alkateak aurreratu du komunikazio kanpaina bat egingo dutela datozen asteetan, sistemak ekarriko dituen aldaketa eta xehetasun guztien berri emateko.

Defentsa pertsonala ezagutzeko saioa astelehenean

Arrasate Aikido Taldeak antolatutako saioa izango da, 17:30etik 19:00etara, La Merced eraikinean. Bestalde, hilaren 13an ate irekiak egingo dituzte Musakolako kiroldegian, "aikido arte martzialak dituen onurak ezagutarazteko". Haur eta gaztetxoendako saioa 18:00etatik 19:00etara izango da eta nagusia, 19:00etatik 20:00etara, doan.

OHARRAK

Elkarretaratzea

Pentsiodunak Aurrera plataformak berriro ekingo die asteleheneroko elkarretaratzei. Irailaren 6an egingo dute lehena, 12:00etan, Herriko Plazan.

Galarrako koba

Bisita gidatua egingo dute etzi, 09:00etan, Galarrako koba ezagutzeko. Udal webgunean eman daiteke izena.

Askotariko beherapenak, produktuak kalera ateraz

Irailaren 9tik 11ra Merkemerkaia egingo dute Ibai-arte elkarteko hainbat komertzio, udaberriko eta udako stocka kalera ateraz; horrekin batera, Hauspo Eguna egingo dute hilaren 10ean eta 11n; halaber, ingelesezko antzerkia egingo da haurrentzat

Eneko Azurmendi ARRASATE

Eguenean eta egubakoitzean, 16:00etatik 20:00etara egingo dute Merkemerkaia; eta zapatuan, berriz, egun osoz, 10:00etatik 20:00ak arte, etenik gabe. Parte-hartzaileak establezimendu aurrera edo komertzio gunetara irtengo dira eta udaberriko eta udako produktuak prezio "ezin hobean" eskainiko dituzte. Moda, lentzeria, osagarriak, oinetakoak, eta abar egingo dira azokan, eta 25 establezimenduk hartuko dute parte: BC, Bea Lentzeria, Beinke, Errekamendi, Garraxi, Gili-Gili, Intersport Loramendi (biak), Itxaso, Josle, Kapikua, Kids&Us, Kili-Kolo, Luko, Mabel, Maitia, Markiegi, Promise, Resusta Karrikiri, Sikol, Troko, Txapime Autoak, Txuri-Beltz, Ume eta Zubia.

Ingeleseko antzerkia ere bai

Era berean, Kids&Usek 2018tik 2020ra bitartean jaiotako haurrentzako antzerkia antolatuko

du: "Ingeleseko ipuin bat, 30 minutuko istorio dibertigarri eta adierazkorra". Irailaren 9an izango da, eguna, eta hiru emanaldi egingo dituzte, Biteri plazan: 17:00etan, 18:00etan eta 19:00etan. Toki-kopurua mugatua izango da, haur bakoitzak txanda bakarra aukera dezake eta heldu batekin joan behar du. Gonbidapenak Entradium.com helbidean eskuratu daitezke.

Hauspo Egunean, musika

Bigarrenegun egingo dute aurten Hauspo Eguna. Irailaren 10ean, egubakoitzea, Mirari, Maddi eta Izaro ariko dira San Andresko Hiruki plazan, 18:30ean hasita. 20:00etan, berriz, Izer eta Eneko Dorronsoro, Portaloian.

Irailaren 11n beste bi emanaldi egingo dira: 12:30ean, Iñaki Dieguez eta Xabier Leturia Txikitxu-Arrostaitz taldearekin ariko dira, Jokin Zaitegin; eta 19:00etan, aldiz, Iñaki Plaza eta Koldo Uriarte, Herriko Plazan.



Aurtengo udaberriaren egindako Merkemerkaia. GOIENA

Irailaren **3**an, ostirala, eta **4**an, larunbata.

GUZTIAREN
BEZa*
oparituko dizugu

Aurrezki gehiago bazkide izateagatik

* 40€-tik gorako erosketa eginez gero EROSKI center eta EROSKI city Supermerkatuetan eta 90€-tik gorakoa EROSKI Hipmerkatuetan, Euskadin, Nafarroan, Kantabrian, Erioxan eta Aragoian.

Kulartzik igarotzean zure EROSKI club barkela pasatzen baduzu, egindako erosketaren BEZari dagokien zerbatekoa sartuko dizugu lotutako EROSKI club kontuan. Erosketa bakoitzean gehienez sartu daitezkeen zerbatekoak: 250€. Kontsulta itzazu gainerako baldintzak zure ohiko EROSKI dendan.

Baita supermercado.eroski.es/eu webgunean ere.



ARRASATE

Musakola z/g ARRASATE,
Tel.: 943 71 10 30



NIRE USTEZ

MARIXE RUIZ DE AUSTRI

Zeruan herensugeak zeudenekoaz

Azken egunetan bidaia luze samarrak egin ditut autobusean, eta zalantza bat argitu ezinik nabil. Dadaismotik hiperrealismora egin nuen jauzi inkontzientea noiz izan zen asmatu ezinik. Ez dut oroitzen zein izan zen hodeien formekin ipuinak sortu nituen azken bidaia luzea. Ezta ere noiz izan zen makila bat Erdi Aroko zaldunek zerabilten ezpata luzea bailitzan astindu nuen eguna.

Ez dut gogoan noiz izan zen hiru hirukien etxean Ane, Elene eta Tereseri kozinatu, mahaiaren bueltan eseri eta sorginaren inguruko txutxu-mutxuak entzun nizkien azken aldía. Ezin akordatu ahizparekin autoan antzezututako pertsonaien izenak, ezta irudikatzen genituen eszenatoki eta jantziak, hamabi orduko bidaia ere motz bilakatzeraino taxutzen genituen elkarriketa arin amaigabeak.

Azken eguna oroitu baino gehiago, gustatuko litzaidake irudimen inozente eta goxo horren besoetan berriz kulunkatzea noizean behin. Nahiago dut, sikiera, mentalki hegan egindako azken eguna iraganean baino gehiago, etorkizunean kokatzea.

Alzheimerra dutenentzat tailerra, Afagik gidatuta

Sei proiektu aukeratu dituzte Gipuzkoako Foru Aldundiaren Aurrekontu Irekietan, eta horietako bat alzheimerra diagnostikatu dieten pertsonentzako psikoestimulazio tailerra abian jartzearena izan da; Afagi elkarteak gidatuko ditu saioak, Etxaluzen

Eneko Azurmendi ARRASATE

Oraindik data zehatzik ez dute, baina irail bukaeran edo urri hasieran hasiko dituzte saioak, Etxaluze eraikinean, eta astean bi saio egingo dituzte, astelehen eta eguaztenetan, "seguruenik, 11:00etatik 12:30era", Afagi elkarteak psikologo Alaitz Iriartek azaldu duenez. Alzheimerra eta antzeko gaixotasunak dituztenen eta haien familien egunerokoa hobetzeko asmoarekin egiten dute lan elkarte horretan, eta, bide batez, "gizarteari familia hauek bizi dutena ikusarazten" saiatzen dira. Elkarte horrek emango ditu, hain zuzen, estimulazio tailerrak.



Alzheimerra diagnostikatuta daukaten hiru emakume, taller batean. AFAGI ELKARTEA

Hamar hilabete iraungo dute saioek eta tarte horretan izena emateko aukera egongo da, momentuan dagoen plaza kopuruaren arabera. "Tailerrak hasi aurretik, halere, pertsonak eurek eta senideek gurekin egon behar izaten dute, eta, guk haiei informazioa emateaz gain, kasua aztertzen dugu. Hala, zenbait baldintza betetzen dituztenek jaso ahal izaten dituzte tailerrak", gaineratu du Iriartek.

Arrasate pasealekuko 3. atarian arreta psikosoziala eskaintzen du elkarteak, eguaztenetan, eta hor egiten dute aipaturiko azterketa lana. Horretarako, baina, aurrez hitzordua eskatu behar da, 943 29 71 18 telefonora deituta edo www.afagi.eus webgurearen bitartez.

Debagoiendar guztiei zuzenduta

Arrasatearrei bakarrik ez, debagoiendar guztiei zuzendutako tailerra izango da. Izan ere, Afagik eskualdeka ematen ditu saio hauek Gipuzkoa osoan. "Tolosaldea eta Debagoiena falta zitzaizkigun eta lortu dugu taldea osatzea, estimulazio tailerrak probintzia osora zabalduz.

Tailer honek familia askoren beharrei erantzungo diela uste dut, egon badaudelako kasuak eta hasierako fasean dauden pertsonen zuzendutako taldeak direlako, narriadura kognitibo arin bat daukatenek osaturikoak", dio Iriartek.

Funtzio kognitiboak landuz

Tailerren helburua, psikologoaren esanetan, pertsonen funtzio kognitiboak estimulatzea eta gaixotasun edo narriadura kognitibo batekin daudenen funtzio kognitiboak lantzea da, oroimena, lengoaia, arreta, eta abar. "Harreman sozialak ere lantzen dira, berdinen arteko taldeak sortuz. Azken batean, autonomiari begira, daukaten egoera ahalik eta gehien luzatzea lortu gura izaten dugu".

Aurrekontu irekietan 2.054 jaso ditu proiektuak eta 90.000 euroko aurrekontua du.

Iraila, ekintzaz beterik

Irailaren 21ean Alzheimerraren Nazioarteko Eguna da eta hainbat hitzaldi antolatzen ari da Afagi. Dena den, aurrerago emango dute horren berri.

RPS: 146/18



CLINICA DENTAL

BERGARA

25 urte
baino
gehiagoko
esperientzia
implantologian

- INPLANTOLOGIA
(kirurgia erraza eta minik gabekoa)
- Estetika eta protesia
- Ortodontzia - Invisalign
- Apnea - Zurrungak



Bidekurutzeta, 36 – BERGARA – Tel.: 943 76 05 77 – www.clinicadentalbergara.es

"Ondo ezagutzen ditut kluba eta jokalariai"

ENEKO MATA OINTXE!-REN EBA MAILAKO TALDEKO ENTRENATZAILEA

Gizonezkoen saskibaloia talde nagusiko entrenatzaile izateko testigua pasa dio Iñaki Ogarak, eta dagoeneko hasi dira "iazkoa baino zailagoa" izango den liga prestatzen

Hasier Larrea ARRASATE

Aldaketa izan da udan zehar Mondragon Unibertsitatea saskibaloia taldearen prestatzaile karguan, baina etxeko langile bat izango da berriz ere iazkoaren moduko denboraldi txukuna egiteko ardura hartuko duena. Pandemiaren gaineko neurriak arintzea positibotzat jo du Matak. **Lehen aldiz zuzenduko dituzu EBA mailako mutilak. Erroka handia al da zuzentzat?**

Entrenatzaile aldaketa ez da inondik inora erradikala izan. Lau urte eman ditut talde honetan entrenatzaile laguntzaile lanetan, Josu Larreategiren alboan hasieran eta Iñaki Ogarak *Arri*-rekin gero. Beraz, berrikuntza bakarra postuan dago, gainontzeko guztiak berdin jarraituko baitu.

Joan den astean hasi zenuten denboraldi-aurrea; nola itzuli dira jokalariai?

Oporretan ariketa fisikoak burutu dituzte, eta frogatu dut tonu onean itzuli direla entrenamenduetara. Orain, garrantzitsuena aurrean dauzkagun errokkak behar bezala prestatzea da; bereziki, lesiorik ez izateko. Ligara orain gaudena baino hobeto iritsi nahi dugu.

Euskal Kopako lehen partidua irabazi zenuten joan den asteburuan, Zarauzko Ulaziaren aurka (81-58).

Partidua ondo jokatu genuen, une batzuetan joko erakargarria erakutsiz eta fisikoki ere maila txukuna emanez. Harrobiko zenbait jokalaria ere aritu ziren, lehen taldeko batzuk oraindik ez baitziren etorri. Emaizta horrekin finalerdiak nahiko bideratuta utzi genituen.

Eta harmailatan izan zenuten nobedaderik, gainera.

Pozgarria izan zen urte eta erdi ostean zaleak berriro gure artean sentitzea. Momentuz, 60 lagun sar daitezke Iturripen. Ea osasun egoerak hobera egin ahala jende gehiagok sartzeko aukera



Eneko Mata, herenegun goizean, Iturripeko entrenamenduan. H.L.

"ASKO POZTU GAITU SASKI ESKOLAKOEN ETA INFANTILEN PARTIDUAK ITZULIKO DIRELA JAKITEAK"

izaten duen. Eta kanpoko partiduetan berdin, badaude-eta kantxa batzuk oso beroak direnak, eta giro hori gustuko dugu. **Hurrengo erroka, Donostiako EASO.** Euskal Kopako bigarren partidua izango da asteburukoa, fitxaketa berriak probatzeko aproposa. Aste honetan hasi dira lan-saiokin Imanol Orue eta Sergio Iglesias; lehen minutuak jokatzeke prest egongo dira, beraz. Andoni Atxa ere lesiotik errekuperatzen dabil.

Santurtziko lauko finalean egongo al zarete?

Donostian maila ona ematen badugu, ziurrenik baietz. Datoren astean izango da lauko finala; bi aste barru, berriz, ligari ekingo diogu, EASOren kan txan, hain zuzen.

Ohiko formatua itzuliko da EBA ligara. Joan den sasoi baino zailagoa izango al da aurtengoa?

Pandemiak iazko lehia erabat baldintzatu zuen, gure konfidentzia, bi ligatan beharrez, hirutan banatuz. Ondorioz, 15 talderen aurka beharrez, 10 talderen aurka jokatu genuen. 2021/2022 denboraldian Santander, Pielagos eta halako aurkari gogorak izango ditugu aurrean; bestalde, udan fitxaketa ugari egon dira.

Nolako MU ikusiko dugu?

Gure DNA erakusten saiatuko gara; alde batetik, saskibaloia erakargarria proposatu, eta, bestetik, defentsan sakrifizioa eta halako balioak landu.

Ba al da gehitu nahi duzun ezer?

Aste honetan jakin dugu saski eskolako neska-mutilek partidua jokatu ahalko dituztela denboraldi honetan. Oso berri pozgarria da, pandemia hasi zenetik ezin izan baitute euren taldearen elastikoa jarri. Badakit gogorra egin zaiela entrenatu eta ezin lehiatzea, askok benetan maite baitute saskibaloia. Niretzat, ez bairik gabe, hori da aurtengo albisterik onena, gaurko harrobiko jokalariai izango direlako hemendik urte batzuetara Ointxe!-ren lehen taldeetan egongo diren jokalariai.

Kirol klubek jokalariai gazteen izen-emateak ireki dituzte

Eskubaloia, atletismoa, errugbia edo futbola probatu nahi duten gaztetxoentzako deialdiak antolatu dituzte

Hasier Larrea ARRASATE

Motorrak berotzen hasi dira dagoeneko herriko zenbait kirol talde, hainbat kategoriatan.

Arrasate Rugby Taldea, esaterako, Mojategiko lan-saiotara itzuli da, eta klubetik aipatu dute "bat egin nahi egin nahi duen oro gonbidatuta" dagoela "Mojategira joan" edota eurekin "harremanetan jartzera".

Mondrakoak ere badabilta Mojategiko futbol zelaian entrenatzen, eta hasi dira denboraldi-aurreko partidua jokatzeko. Herenegun eta atzo, infantil mailako -2008 eta 2009 artean jaiotakoak- jokalariai berriak eskuratzeko saioak egin zituzten.

Arrasate Atletiko Taldea da kirol instalazio horietan aritzen den beste klub bat. Aurten ere atletismo eskola antolatuko dutela iragarri dute, 2000 eta 2014 urte artean jaiotakoei zuzendu-

ta. Denboraldia irailaren 13an hasi eta ekainaren 22an amaituko dute. Benjamin, alebin eta infantil kategorietako kirolariak asteazkenetan eta ostiraletan 18:00etatik 19:00etara izango dituzte saioak; kadeteak eta gazteak, berriz, astelehenetan eta asteazkenetan 18:00etatik 19:30era, ostiraletan 17:30etik 19:00etara eta zapatuetan 10:30etik 12:00etara entrenatuko dira, eta astean hiru saio egiteko aukera izango dute.

Eskubaloia eskola, bidean

Arrasate Eskubaloia Taldekoak ere lanean jarri dira, bai kan txan eta baita bulegoan ere. Hala, udako campusari jarraipena emango diote aurten, eskubaloia eskola irekita. Bestalde, infantil mailako jokalariai erakartzeko deialdia ireki dute sareetan, eta LEKEN laguntza ere izango dute.

Ikasi euskara,
bidelagun
onenarekin

Debagoienerako AEK

KLASE PRESENTZIALAK ETA ONLINE

Niveles A1, A2, B1, B2, C1, C2 mailak
Mintzapraktika taldeak
Autoikaskuntza
programa + tutoretzak + praktika

Matrikula: 2021/09/01 - 2021/09/30
Ordutegia: 10:00 - 14:00 / 17:00 - 20:00

Iturriatz 21, behea, Arrasate - 943 77 03 69
arrasate@oek.eus
twitter.com/debagoienerakoek
www.facebook.com/debagoienerakoek

DIRULAGUNTZAK

Bekak Arrasateko Udaleraren eta Eusko Jaurlaritzaren laguntzaz!



Maite Larburu konpositorea izango da domeka honetako gonbidatua. ARRASATEKO UDALA

Doinu akustikoak jasoko ditu Kulturateko aretoak

Irailero bezala, Arrasateko Udaleko Kultura Sailak Kulturate Akustikoak izeneko egitaraua antolatu du; gaur hasi eta hilaren 12ra arte, sei emanaldi egongo dira ikus-entzuleen gozamenerako; tokiko artistak izango dira protagonistak, batez ere

Hasier Larrea ARRASATE

Kurtso hasiera goxatzeko proposamen kultural interesgarriak dakartza Kulturate Akustikoak programak. Asteburu honetan eta hurrengoan izango dira hizorduak, arratsaldeko zortzietan hasita, eta sarrerak ezingo dira aurrez eskuratu, emanaldia hasi aurretik baizik, Kulturateko areto nagusian bertan.

Formula horren aldeko hautua egin zuten duela zenbait edizio, eta momentuz ondo funtzionatzen duela aipatu du Karmelo Alberdi Kultura teknikariak: "Orain arte ez dugu edukiera arazorik izan". Gainera, aretoak %60 betetzea adostu du Labik, eta, ondorioz, iaz baino jende gehiago sartu ahal izango da aurten.

Irekiera kontzertua Copernicus Dream taldeak emango du, gaur bertan. Castro Urdialestik dator boskotea, eta americana generoa lantzen dute, batik bat, soul, hard-rock eta psychobilly ukituak ere erantsiaz abestiei. Chus Gonzalez taldeko konpositorea-

ren esanetan, iaz argitaratutako *Goals & Illusions* diskoan "detalle txiki ugari aurkituko ditu entzuleak, poliki-poliki deskubritzeko modukoak". Zuzenekoetan diskoan ageri diren instrumentu batzuk, biolina, adibidez, teklatuarekin ordezkatzun dutela aipatu du, "baina grabazio esentzia galdu gabe".

Bihar, berriz, Idoia Hernandez *Hatxe* piano-jole oreretarraren txanda izango da. Peru Galbete -ahotsa-, Jurdana Otxoa -biolina- eta Ilargi Agirre -bateria- izango ditu alboan, *Panpin hautsien dantza* lana plazaratzeko helburuarekin. Proposatzen dituzten kantuak "testuekin, audioekin eta inprobisazioekin lotutakoak" direla dio, baita

NEURRI BERRIEN ARABERA, AURTEN IAZ BAINO LAGUN GEHIAGO SARTU AHALKO DIRA

"geldiunerik gabeko emanaldiak" eskaintzen dituztela ere. Artista bezala, berriz, honako kritika hauek entzun dizkio publikoari: "Estilo aldetik post-klasiko etiketa jarri ohi didate, baina, era berean, teatro-musikatik asko edaten dut". Femitatearen inguruko hausnarketak dira bere konposizioen abiapuntua.

Domekan, osteran, Maite Larburu hernaniarra etorriko da Kulturatera. Ahotsa, biolina eta gitarra uztartzen iaioa, *Krak* diskoa aurkeztuko du bertaratzen diren herritarren aurrean. Bere bakarkako bigarren lan hori Karlos Arancegiren bateriak eta Carlos Taroncherren klarinete baxuak borobiltzen dute.

Beste hiru kontzertu

Datorren egubakoitzean Eneritz Furiyak etorriko da, zapatuan SonLosGrillos bikotea eta domekan Buffalo eta Nacho Soto. Eskarmentua duten musikariak, beraz, aurtengo edizioa modu txukunean amaitzeko.

Musikaren historia ikasteko aukera Arrasate Musikalekin

Akademiak beste ikastaro bat eskainiko du aurten, Kultura Musikala izeneko, iraila eta ekaina artean

H.L. ARRASATE

Musika tresnak baino gehiago, musikaren bilakaera jasoko duten saio didaktikoak eskainiko ditu aurtengo ikasturtean Arrasate Musikalek. Hala, musikak berak gizateriaren sorreran izandako presentzia eta erabilera zein ordutik jasandako bilakaera izango dute hizpide.

Ikastaroaren helburua musikaren oinarriko ezagutza batzuk lortzea dela aipatu dute musika eskolako arduradunek: "Batetik, historiaren hainbat arotan zein bilakaera izan duen ezagutzuz, eta, bestetik, gizateriak historian zehar zein musika tresna eta zein modutan erabili dituen aztertuz, hastapenetatik gaur egunera arte".

18 urtetik gorakoentzat

Astero ordubete iraungo dute eskolek, eta gaiarekiko interesa

duen edozein helduk parte hartu ahal du. Orduetgia izena ematen duten partaideen artean adostuko dute.

"Solfeoaz eta instrumentuen praktikaz harago, metodologia desberdina eta ez hain tekniko erabiliz" landuko dituzte edukiak. Konkretuki, ikus-entzunezko metodoez eta unitate didaktikoaren gidoi baten bidez garatuko dira eskolak.

Matrikulazio epea, irekita

Bestalde, musika eskolatik gogoratu dute instrumentuak jotzen ikasteko aukera batzuk gelditzen direla oraindik. Eskoletan izena eman nahi duen orok musika eskolara, hots, Monterron jauregira, jo beharko du astelehenerik ostegunera bitartean, goizeko hamarretatik hamabietara edota arratsaldeko lauretatik zazpitarara.

Datorren astean ekingo diote helduen antzerki eskolari

Gaur zen abiatzekoa, baina "izen-emate murrizta" dagoela-eta, astebete atzeratzea erabaki du Dokek

Hasier Larrea ARRASATE

Datorren egubakoitzean, hilak 10, emango dio hasiera Doke antzerki taldeak aurtengo berrikuntzari, "aspaldian" ez baita helduentzako antzerki eskolarik egon Arrasaten: "Antzerkigintzan murgildu nahi duten pertsonen zain gaude; batzuk apuntatu dira, baina jende gehiago etortzea gustatuko litzaiguke", aipatu du Maider Alzelaik, antzerki eskolaren antolatzaileak.

Ikastaroak ostiral arratsaldeetan izango dira irailean, eta zapatu goizetan urrian. Klase bakoitzak lau ordu iraungo du, printzipioz, nahiz eta interesa dutenen beharren arabera moldatzeko prest agertu diren.

Gazteenak, hilaren 13an

Iaz inauguratutako neska-mutilen antzerki eskolak aurten ere izango du jarraipena, gaine-



Borja Ruiz izango da irakaslea. B.R.

ra. Astelehenerik ostegunera emango ditu klaseak Maider Alzelaik: "Taldea antolatzen gabiltza oraingoz; ideia da 8tik 11 urtera artekoak eta 12tik 15 urtera artekoak bereiztea". Diziplinaren gaineko "aurreiritzia aldatzea" da Dokeren erronka.

Berriro ere zabalik ditu ateak erretiratuen lokalak

Abuztuaren 13az geroztik zabalik dago Nardeaga kaleko lokala, Udalak eta Alaiak elkarteak adostutako protokoloarekin. Gaur egun 170 bazkide ditu elkarteak: pentsioduna izatea da elkarteko bazkide egiteko betebeharrak.

Arantzazu Ezkibel Galdos ARAMAIO 17 hilabete egin ditu itxita Alaiak erretiratuen elkarteko lokalak; hain justu, 2020ko martxoaren 13tik aurtengo abuztuaren 13ra arte. Hala, Alaiak erretiratuen elkarteak eta Udalak lokala ireki ahal izateko protokoloa zehaztu dute. Dagoeneko ateak zabalik ditu, nahi duenak erabil dezan.

Protokoloaren arabera, kontuan hartu beharreko arauen artean dago maskararen derrigorrezko erabilera. "Jendeak esaten du maskarekin ezin dela jokoan egin, ezin dela keinurik egin...", dio elkarteko presidente Miguel Loitik. Gainerako arauak higie-nearekin dute harremana: eskuak garbitzea, erabilitako guztia desinfektatzea... Horrez gain,

lokalearen edukiera %50era murriztuta dago: "Baina egun duen erabilerarekin hori ez da arazoa izango".

Harreman sozialak

Elkarteko zuzendaritza sei lagunek osatzen dute. Euren nahia da lehengo harreman sozialak izatera bueltatzea jendea; izan ere, konturatu dira lokala za-

baldu arren jende gutxi erabiltzen duela. "Kalean jendea galdetuta ikusten dugu jendea hotz, ez dute erantzunik ematen... Ez dakit, beldurra, erreparoa... Ez dakit zer den", dio Loitik.

"Elkarteak eskaintzen du lokal eder bat, taberna eta sukalde duena", nabarmendu du Loitik. Horrez gain, hainbat eskaintza ere badituzte.

Elkartearen eskaintza

Azken ikasturte honetan bi tailer izan dituzte erretiratuek: kantu tailerra eta *Gure euskara hobetzen* tailerra. Horiekin jarraitu nahi dute. "Kantu tailerra Larraitz Arriolabengoarekin egiten dugu, 22 lagunek; eta euskara tailerra AEK-ko irakasle batek ematen digu. Euskara batua eta euskalkia uztartu, *whatsapp*-ak nola idatzi... ikasten dugu", dio Loitik.



A.E.G.

"Jende pila bat etxeratu egin da"

MIGUEL LOITI
PRESIDENTEA

Abuztuan zabaldu ditu ateak Alaiak erretiratuen elkarteak. Oraindik jende gutxi dabilela dio Loitik. **Nolako harrera izan du irekierak?**

Justu, 17 hilabetez izan dugu elkarte itxita. Tarte horretan zer egin da? Jende pila bat etxeratu. Orain, irekita dago, baina ez dugu ikusten jendea etetik nola atera. Lehengo harreman sozialak izatera bueltatzea da helburua.

Nola eragin dizue lokala itxita izateak?

Izan ditugu harremanak, eta baita elkarte zabaltzeko asmoa ere... baina protokoloa zehazten geundela gauzak okertu egin ziren. Egoera izan da batzar orokorra ere ezin izan dugula egin: ezin izan da jendetzarik pilatu. Udalarekin eta Arabako erretiratuen elkartearekin harremanetan egon gara.



Zuzendaritza taldeko Xabier Agirre, Miguel Loiti, Simon Muñoz eta Antonio Arias; Begoña Etxabe eta Olga Goikoetxea falta dira.

Dantza ikastaroa

Alaiak elkarteak beste eskaintza bat du aurtengo ikasturterako: dantza ikastaroa. Euskal dantzak ikasi, eta fisikoki eta sozialki ondo egoteko modua izatea nahi dute. Taldea osatu egin behar dela azaldu dute zuzendaritzako kideek; horren arabera erabakiko dute dantza ikastaroaren egutegia eta ordutegia. Oihane Vicente irakasleak eskainiko luke.

Izena emateko telefonoak: 605 77 58 10 edo 652 76 48 59.

Sagarzaleen Elkarteak batzar orokorra egingo du

Gaur, barikua, Aramaioko Sagarzaleen Elkarteak batzar orokorra egingo du kultura etxean. 18:30ean izango da, kultura etxe-zinema aretoan. Elkarteak 25 batzorde ditu egun, Aramaiokoez gain, baita beste herri batzuetako sagarzialeak ere. Pandemia garaian elkarteko bazkideek bakarrik izan dute zukua egiteko aukera.



NIRE USTEZ

LEIRE ELEJALDE

Txapela

Nire ohe gaineko apalean eskegita dago txapel bat. Askoren ezaguna, betikoa, beltza. Dantzetan erabiltzen dena -batzuek erabili izan ohi dutena- eta askotan sari bezala jasotzen dena. Nire ohe gaineko apalean eskegita egon da bizpahiru urtez eta behin bakarrik atera izan dut soinean jantzita. Hara, zertarako dut txapel bat

orduan, inauteri egunean soilik ateratzeko bada?

Esan beharra dut egun horretan ez nuela segundo batez ere kendu, buruan izan nuen kanpoan eta barruan, barran eta dantzan.

Mozorroa aukeratu nuen txapela eskuan izanda, jantziak zapatatetik hasita hautatzen dituenak bezala.

Esan nuen baietz, nire eguna zela hori, ez ninduela inork epaituko, eta horrek konfiantza handiz atera ninduen kalera.

Pena da pentsatzea konfiantza eman zidala frantsesez jantzita egoteak, euskalduna naiz ostia. Epaituko banaute, epai nazatela kaletik txapela daraman euskal neska gazte bat izanda.



Dabid Agirre ekoizlea Larrinogarai baserriko ortuan. XABI URZELAI

"Tomate gustagarria da batzen dituen ezaugarriengatik"

DABID AGIRRE TOMATE EKOIZLEA

Larrino auzoan ekoiztutako Aretxabaletako tomatearen aleak aurkeztu ditu Kantabriako bi azoka garrantzitsutan, eta bietan jaso dute sari nagusia horiek

Mirari Altube ARETXABALETA

Aretxabaletan bertan –Larrino auzoko Larrinogarai baserrian– ekoiztutako Aretxabaletako tomateak bi sari garrantzitsu jaso ditu azken egunotan Kantabrian: bata Santa Cruz de Bezanan eta bestea Torrelavegan. Adituek osatu dute epaimahaia; besteak beste, Pepa Muñoz sukaldariak –Michelin izarra duena–, Pepe Barrena gastronomia kritikariak eta David Remartinez –El Comidista– eta Pedro Vallin –La Vanguardia– kazeta-

riek. Tomateen artean maisu dela barietate hori adierazi diote haiek Agirreri.

Zeri eman diote balioa epaimahaiko kideek saria emateko?

Azal finekoa izatea, batetik, eta hazi gutxi izatea, bestetik; on-

"AZAL FINA DAUKA ETA HAZI GUTXI; ONDORIOZ, GOZOAGOA DA. GAINERA, OKELA ASKOKOA ERE BADA"

dorioz, garraztasun gutxiago du eta goxoagoa da. Gainera, ez dauka beste batzuek beste beta, eta, horregatik, okela askokoa da. Ezaugarri horiek guztiek bat egiterakoan emaitza da oso tomate atsegina eta gustagarria; halaxe adierazi ziguten epaimahaiko kideek.

Eta epaimahaiko kide horiek ez ziren nolanhikoak, gainera...

Santa Cruz de Bezanan, esaterako, Pepa Muñoz egon zen; goi mailako sukaldaria da eta hainbat aldizkaritako gastronomia

arduraduna. Tomatearen gainean aditua da, gainera, eta produktuak ere ekoizten ditu. Hark esan zigun, hain zuzen, tomateen artean maisua dela berarentzat gure barietatea.

Halakoak entzunda, balio handia duen tomatea dela esan daiteke...

Aretxabaletako tomateak estimu handia du, eta ez bakarrik hemen; Espainiako hainbat tokitan duen arrakastarekin harrituta geratuko ginatke.

Etxean bertan baino kanpoan balio handiagoa ematen diotela esan daiteke?

Bertan ere baloratzen dugu, **gustuko dugu**. Tomatearen ekoizpena leku askotan da garrantzitsua, baina bereziki hemen asko saiatzen gara tomate ona lortzen. Baina egia da altxorra dela gurea.

Eta hain tomate onak ekoizteko sekretua zein da?

Ni neu ekoizle hutsa naiz, baina Aretxabaleta tomate barietatea izan dezagun hainbat lagunek egin dute lan aurretik. Horien artean daude Aramaioko Zalgo auzokoak, *Joxe Atxurdirin* eta hazia atera zuten hainbat. Marta Barbak, ostera, tesia egin zuen hori aztertuz eta Marc Badal kataluniarrak barietate horren gaineko liburua idatzi zuen orain dela urte batzuk –*Aretxabaletako tomatea. Bio-niztasuna, lurraldea eta jakintza partekatua*–. Horiez gain, ezin ahaztu Koldo Zubizarreta aretxabaletarrak eta Tomas Larrañaga antzuolarrak barietate hori azaleratzeko egindako lan guztia; haiengatik izan ez balitz gaur egun lortutako saririk ez genuke izango.

Sari horren atzean, orduan, ez zaude zu bakarrik...

Saria tomate barietate horrek jaso du, eta ez nik; ondorioz, horren izena agertu da komunikabide ezberdinetan, eta ez nirea. Horregatik, argi utzi behar da irabazlea tomatea bera dela, eta baita herriaren izena ere, hainbat tokitan agertu delako. **Zeuk ekoiztutako tomateak dira, baina ez diharduzu horretan.**

Ez, afizioa dut. Guk ekologikoki ekoizten dugu, horren aldekoak garelako etxean, eta, horretarako, bete beharreko neurri guztiak fin-fin betetzen saiatzen gara. Bereztasun moduan aipatuko nuke orokorrean oso ohikoa dela ur asko botatzea landareei eta guk apenas botatzen diegu; gainera, uraren temperatura

zaindu egiten dugu ureztatzera koan. Horrez gain, ongarrri berdea erabiltzen dugu; horrek esan gura du belarra izatea lurra ez dadin gehiegi lehortu eta lurra ez dezan indarra galdu.

Eta nolatan eroan dituzue tomateak Kantabriako bi azoka horietara?

Joan den asteburuan izan ziren biak eta egun-pasa joan ginen harantz, etxeko tomateek arrakastarik izango ote zuten probatzeko. Poztekoa da hainbeste gustatu izana.

Hortaz, erakustea beste asmorik ez zenuten?

Sekula ez gara egon halako lehia- ketetan, eta asmoa zen azokak ikustea eta haien funtzionamendua ezagutzera.

Aretxabaletan ere izango da azoka irailaren 12an Tomatearen Azoka barruan; zuen tomateak ere egongo dira probatzeko?

Ez, guk ez dugu eroango, baina egongo da probatzeko eta erosteko aukera, baita haziak erosteko ere.

Tomatearen Astea hilaren 6tik 12ra

Aretxabaletako tomateari eskainitako astea bueltan da, Debagoieneko Mankomunitateak antolatuta Udalarekin elkarlanean. Irailaren 6tik 12ra izango da eta 'Haziak mugitzen' erakusketarekin abiaraziko dute; Arkupen egongo da aste osoan.

Barietate horren gainean adituak diren Marc Badalek eta Marta Barbak hitzaldia eskainiko dute eguenean, hilaren 9an, Arkupen (18:30). 'Aretxabaletako tomatea eta bere historia. Landutako bioaniztasuna zaintzeko ikaspenak' izenarekin, haren gaineko kontuak izango dituzte hizpide. Eta zapatuan, irailaren 12an, azoka berezia egingo dute. Ortu lehiaketako eta tomate erakusketako sariak banatuko dituzte eta tomatearekin egindako pintxoak dastatzeko aukera egongo da.

Ibaia berreskuratzeko plana gura du EH Bilduk

"Ibaia blindatzea" eta herritarrek harekin duten "harreman positiboa sustatzea" helburu izango lituzke, eta hamar neurri zehaztu dituzte horretarako, abiapuntua izanik industrialdeko estolderiaren egoeraren azterketa sakona

Mirari Altube ARETXABAETA

Iazko urritik hona hainbat isurketa izan dira Deba ibaian, Aretxabaletan; azkenak uztaile bukaeran eta abuztuan. EH Bilduko kideak behin baino gehiagotan agertu dira kezkatuta isurketa horiek direla eta: "Etengabe eskatu diogu Udal Gobernuari ahal duen guztia egin dezala. Baina egoera honetara iritsi behar izan dugu gaiak behar zuen arreta edukitzeko", adierazi dute Ion Albizuk eta Jasone Garziaetxabek. Horregatik, "ibaia osorik berreskuratzeko plana" egitea proposatu dute oraingoan.

Hamar neurri


"Urte hasieran protokolo bat ezarri zen isurketarik egonez gero zelan jokatu zehazteko. Baina azken gertakarien aurrean proposamen osoagoa egin gura izan dugu, askotan ez delako egon erakundeen



Ion Albizu eta Jasone Garziaetxabe, Deba ibaiari begira. HASIER LARREA

artean koordinazio onik", adierazi du Albizuk. Horregatik, "plan bat" zehaztu gura dute, bi helbururekin: batetik, erreka "blindatzea", eta, bestetik, herritarrek ibaiarekin duten "harreman positiboa" berreskuratzeko.

Hamar neurri proposatu dituzte horretarako. "Industrialdeko estolderia sistemaren egoera aztertu behar da, batetik, egon daitezkeen akatsak identifikatzeko eta konpontzeko. Eta hango hodiaren irteerak blindatzeko eskatzen dugu saneamendua hobetuz eta isurketak atzemateko zundak instalatzeko aukera aztertuta", dio. Horiekin batera honako hauek ere zehaztu dituzte: ibaia birpopulatzea isurketen aurretik bizi ziren espezieekin; erakundeen arteko harremana hobetzea "deskoordinazioa saihesteko"; sentsibilizazio-kanpainak egitea "isurketa txikiak saihesteko" -atariak eta autoak garbitu osteko urak...-; komentuen eta elizaren artean dagoen ubidearen desagerpena bideratzea; barandaren plastikoak ez erortzeko sareak jartzea ibaiko hainbat puntutan; ibairako sarbideak sortzea "harremana indartzeko"; ibai ertzeko landaretza "baldintza egokietan" mantentzea; eta Ingurumen teknikariari bat izatea: "Azken lau urteotan ez dago halako teknikaririk Udalean, eta horren lana ordezkatzeko lukeena eskatzen dugu".



Arrain bat hilda Deba ibaian. ION ALBIZU

Arrainak hilda abuztuan

Uztailaren 30ean, eguerdi partean, zurituta agertu ziren Deba ibaiko urak. Abuztuaren 5ean, oster, kolorerik ez, baina hildako arrain mordoxka bat zenbatu zituzten herritarrek uretan eta horrek kezka eragin zuen; lekuko batek gutxienez 70 ikusi zituen.

Iralabarriko uren kalitateari jarraipena, piezometroak jarrita

Ondoan enpresari eman dio lanon ardura Udalak eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza jaso du horretarako

M.A. ARETXABAETA

Iralabarri plazako lurpeko uren kalitatea aztertzea du helburu Udalak, eta horretarako, piezometroak jarriko ditu, uraren kalitatea eta presioa neurtzeko erabiltzen diren gailuak. Lan horien ardura Ondoan enpresari eman dio eta Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen Saitetik dirulaguntza jaso du horretarako: 10.075,35 euro, hain zuzen ere.

Lau piezometro, bost metrora

Laminados Aretxabaleta lantegia egondako orubean eraiki zituzten Iralabarri plazako etxebizitzak -orain dela hamasei urte inguru-, eta orduan, kutsatutako lurrik egon zitekeen aztertzeke, hainbat piezometro jarri ziren. Udalak piezometro horien berrikusketa egin du orain, eta dagoeneko ez daudela jarritako lekuan frogatu; ho-

rregatik, horiek ordezkatzeko erabaki du.

Lau jarriko dituzte, aurretik egondakoen kokaleku berean edo ahal den gertuen, eta bost metro inguru lurperatuko dituzte.

Gailu horiek urteko bi unetan jasoko dituzte laginak: bata, ur gutxi dagoen garaian, uztaile eta urri artean; eta bestea, ur asko dagoen garaian, urtarril eta apiril artean. Guztira, zortzi lagin izango dira, eta aztertuko dituzten elementuen artean daude antimonioa, ftalatoak, PCBa eta beste konposatu organikoko batzuk.

Horiez gain, pH-a, eroankortasuna eta tenperatura ere jasoko dituzte beste neurgailu baten bitartez. Laginen emaitzak Eusko Jaurlaritzara bideratuko ditu Ondoanek.

Udaletik jakinarazi dute lanek ez dutela eraginik izango plazako bizilagunen egunerokoan.



Iralabarri plaza. MIRARI ALTUBE

Irailaren 13an hasiko dira elkarretaratzeak egiten erretiratuak

Pentsioen aldeko elkarretaratzeekin jarraitzeko asmoa agertu dute Basotxo erretiratuen elkarteak zuzendaritza batzordeko kideek, opor sasoiko geldialditxoak bukatuta. Irailaren 13an berrekingo diete, eta, ohi legez, Herriko Plazan elkartuko dira, 12:00etan. Euren aldarrikapenekin bat egitera gonbidatu dituzte herritarrak.

Ohiko ordutegia berreskuratu du Ibarra kiroldegiak

Kiroldegia ohiko martxan hasi da: astegunetan, 07:00-21:30; zapatuetan, 08:30-14:00 eta 16:00-20; eta domeketan, 09:00-14:00. Txan-dei dagokienez, hiru orduko iraupena izango dute, azkenengoak izan ezik -19:00etatik 21:15era da hori-. Domeketan, oster, txanda bakarra egongo dela azpimarratu dute. Ikastaroak irailaren 20an hasiko dituzte.

Jarrera ikusita, "betiko jaietara" gerturatzen

Andramaixen balorazio positiboa egin du Aretxabaletako Udal Gobernuak. Bereziki, abuztuaren 14an eta 15ean izandako kontzertuetako giroa, magia ikuskizuna eta herri kirolak nabarmendu eta Herrigunekoen antolaketa eta jarrera txalotu dute

Imanol Beloki ARETXABALETA

Aretxabaletako Udal Gobernuak andramaixen balorazio positiboa egin du. Neurriak ezarri arren giro aparta izan dela adierazi dute, eta herritarren erantzuna paregabea izan dela nabarmendu, besteak beste. Honela adierazi du Ainhoa Cabero Aretxabaletako Kultura zinegotziak: "Orokorrean, egun lasaiak izan dira, eta herrian jende gutxi egon arren ekintzetara animatu dira aretxabaletarrak. Bi emanaldi nabarmendu ditugu: batetik, Noa & The Hell Drinkers taldearen kontzertua, eta, bestetik, Golden Apple Quartet taldeak jarri zuten giroa. Hauekin batera, haurrentzako hitzordua ere oso ondo egon dira, Eriz magoa, herri kirolak... Arazorik ez da egon, nahiz eta botila festa jendetsuak izan diren... Horrekin batera, txosnaguneko funtzionamendu eta portaera txalotzekoa izan da, oso ondo antolatuta egon dira, ordutegiak eta neurriak errespetatu dituzte, eta behar bezala egin dituzte gauzak. Denok gauden benetako jaiak antolatzeke gogoz eta horrela jarraituz lortuko dugu".

Herrigunekoen balorazioa

Atxabaltako Gazte Mugimendua ere balorazio positiboa egin du: "Herrigunekoen bidez gure helburu nagusiak bete genituen: jaietan espazio seguru bat zabaltzea eta herriko sortzaile eta kolektiboek urte osoko lana plazaratzeko aukera ematea. Orokorrean, oso pozik egon gaitzke jendeak izan duen erantzunarekin. Parte hartu dutenek jarrera ona izan dute eta kolaboratzeko prest egon dira. Antolakuntzak lan dezente eskatzen zuen aurten, baina jendearen erantzuna ikusita merezi izan duela besterik ezin dugu esan! Eskerrik asko gerturatu zineten guztiei!".




Noa & The Hell Drinkers taldearen kontzertuan. MAIALEN SANTOS



Rap, hip-hop eta breakdance ekitaldian. MAIALEN SANTOS



Herrigunekoen batutakoak. MAIALEN SANTOS



Kurtzebarri eskolako pintaketak. ION ALBIZU

LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako pintaketak gaitzetsi dituzte

Kurtzebarri eskolako eraikinaren kanpoaldean egin zituzten abuztuaren 28an; dagoeneko ezabatu dituzte

Mirari Altube ARETXABALETA

Kurtzebarri eskolako eraikinaren kanpoaldean LGTBIQ+ kolektiboaren aurkako gorroto mezuak jarri zituztela salatu zuen EH Bilduko zinegotzi Ion Albizuk abuztuaren 28an, sare sozialen bitartez. Albizuk adierazi zuen gorroto diskurtsoek ez dutela lekuri Aretxabaletan, "ezta horiek dakartzaten erasoek ere". Elkarrekin Podemoseko legebiltzarkide Isa Gonzalezek, ildo beretik, zera adierazi zuen: "Ez horretan, ez gizartean. Halako mezuek ez daukate lekuri gure herrian!".

Horren berri izan orduko, Kurtzebarri eskolako zuzendaritzak ere gaitzetsi egin zituen pintaketak. "Argi utzi nahi dugu herri eskolan agertu diren modu honetako mezuak ez ditugula onartzen. Kurtzebarri eskolan denontzako lekua dago, baina mota honetako edo edozein gorroto adierazten duten mezuek ez daukate lekuri. Horrelako hitzetan sinesten edo adierazten ez dituzten pertsonak hezten jarraituko dugu", zioen Mikel Uribarren Kurtzebarri eskolako zuzendariak. Dagoeneko ezabatu dituzte pintaketak.

'Iufala Pro!' formakuntza saioa izango da Zariaian

Iufala Pro! formakuntza saioa antolatu dute Apropox sormen iturriak eta DAP Debagoieneko antzerki plataformak elkarlanean. Antzerkigile eta hezitzaile profesionalentzako saioak izango dira, irailaren 6an, 7an, 8an, eta 9an gauzatuko direnak, Aretxabaletako Zariaia aretoan.

Aipatutako egunetan, 16:00etatik 20:00etara bitartean eskainiko dituzte saioak, Iurgi Etxebariaren gidaritzapean, eta prezioa 150 eurokoa izango da. *Iufala Pro!*-ren helburua ikasleekin irudimena lantzeko sormen-talde bat egitea da, eta interesdunek izena eman dezakete Dantzerkiplat@gmail.com helbide elektronikora idatzita.

Ireki dute UDAREN futbol eskolan izena emateko epea

UDAREN futbol eskolaren denboraldia abiatzeaz da, eta izena eman daiteke dagoeneko. Ibarra futbol zelaian futboleko hasi gura duten neska-mutikoei, hau da, 2010, 2011, 2012 eta 2013 bitartean jaiotakoek dute aukera horretarako, eta, zuzendaritzatik adierazi dutenez, jolasa eta diziplina uztartzea du helburu futbol eskolak, guztiek tokia izanda klubean. Izena emateko, labur.eus/Futbol_Eskola_2021eta2022denboraldia orrialdeko datuak bete beharko dira, eta edozein zalantza duenak udakefutboleskola@gmail.com helbidera idatzi dezakeela edo 656 73 54 59 telefono zenbakira deitu dezakeela jakinarazi dute.

H@zi proiektua martxan, zerbitzu hobea emateko

Herritarren Arreta Zerbitzu Integrala ezartzeko lanak egiten ari dira udaletxean abuztu bukaeratik. Obrek iraun bitartean Ibarraundi museoa ari dira zerbitzuak herritarrei eskaintzen, eta aurreikuspenen arabera bi hilabete inguru barru amaituko dituzte lanak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Herritarren beharrei arreta eraginkorragoa eskaintzeko asmoan du jatorria H@zi proiektuak. Herritarrek gero eta eskakizun handiagoak dituztela ikusita, Udalaren edozein informazio eskuratzea errazteko helburua du egitasmoak, besteak beste. Plataforma digitala izateaz gain, zerbitzua herritarrek gehien erabiltzen dituzten udaletxeko espazioen birmoldaketa fisikoan islatuko da. Hori horrela, udaletxeko lanak ekainean esleitu ziren, eta, uztailean eta abuztuan zehar garatzekoak ziren arren, abuztu bukaeran hasi dituzte udaletxeko harreraguneko lanak.

Eskoriatzako Obra eta Zerbitzuetako Departamentutik adierazi dutenez, hilabete eta erdi edo bi hilabete inguru barru amaituko dituzte lanak. Birmoldaketaren helburu nagusia eraikinaren sarreran eta zenbait lan-eremutan aldaketak egitea da, udal langileekin batera garatutako metodologia berriaren arabera.

Udal zerbitzuak, Ibarraundin

Lanak egin bitartean, udal langileak kultura etxera eta Ibarraundi museora lekualdatu dira, eta arreta zerbitzua museoa ari dira eskaintzen, ohiko ordutegian. Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako zerbitzuak kultura etxean daude, egungo kultura eta euskara zerbitzuez gain. Bestalde, udaltzaingoa, harrera eta gizarte zerbitzuak Ibarraundi museoa daude. Horrekin batera, jendaurreko ordutegia errespetatu behar dela adierazi du Eskoriatzako Udalak, alde

**UDALETXEKO LANEK
HILABETE ETA ERDI
EDO BI HILABETE
IRAUNGO DUTELA
AURREIKUSTEN DA**



Udaletxeko ate nagusian herritarrentzako jakinarazpen mezua. IMANOL BELOKI

aurretik hitzordua eskatu behar dela eta COVID-19aren aurkako protokoloa bete behar dela.

Onurak Udalari eta herritarrei

Zerbitzu eraginkorragoa eta modernizatuagoa ezartzea da H@zi proiektuaren xedea, eta halako onurak ekarriko lizkio-

ke herritarrei: tratu pertsonala eta individualizatua ematea, eskaerei arinago eta azkarrago erantzutea, informazio zuzena ematea... Udalari, berriz, baliabideak arrazionalizatzea, antolakuntza horizontalarekin baliabideak aurreztuz, herritarren aurrean duen irudia hobetzea...

Kartela, emaitza irudikatzen



Eskoriatzako udaletxearen gaur egungo egitura eta lanen ondoren izango lukeen itxura adierazten duen kartela jarri dute kultura etxeko fatxadetan. Bertan, beheko solairuaren eta lehenengo solairuaren berregitura berria ikus daiteke planoen bidez.

Trenbidean 846 metroko ur hoditeria berrituko dute

Herrigunetik Torrebaso industrialderainoko ur hornidura sarea berrituko du Gipuzkoako Urak-ek

I.B. ESKORIATZA

Ur hornidura sarearen kontserbazio, mantentze eta hobekuntza lanen barnean, Gipuzkoako Ur Kontsorzioak herrigunetik Torrebaso industria eremura arteko ur hornidura sarea berrituko du. Hain zuzen ere, gaur egungo zuntz zementuzko hoditeria burdinurto nodularrezko hodi berri batekin ordezkatu da, eta proiektatutako hobekuntzek 846 metro luzerako hodian instalakuntza aurreikusten dute. Lanek 208.623,78 euroko kostua izango dute, eta obren exekuziorako hemezortzi asteko epea ezarri dute.

Preskripzio teknikoak

Ordezkatu beharreko hodia Vasco-Navarro zenaren garai bateko trenbidearen azpian kokatzen da, Eduardo Gorosarri plazaren, Hidalga kalearen eta Gaztañadui

kalearen arteko bidegurutzearen eta Torrebaso industria eremuren artean. Tartearen hasierako lotunean emari neurgailu sektorial bat kokatuko da, eta aurretik bost diametroko tartean eta ondoren hiru diametroko tartean interferentzia gabeko tarte bat izango du, arautegi teknikoan zehazten den bezala.

Sare orokorrentzako, gutxi gorabehera 1,20 metroko batez besteko sakonera duen zanga bat induskatuko dute, non hodi berriak 15 zentimetroko hareazko geruza baten gainean eta azpian kokatuko diren. Gaur egungo zuntz-zementuzko eroanbideak kentzeko beharra dela eta, ez da posible izan eroanbide berriak instalatu bitartean aipaturiko sareak zerbitzuan mantentzea; hori dela eta, behin-behineko desbideratzeak egingo dituzte.

OHARRAK

Herriko nagusiena hil da

Pablo Gamboa abuztuaren 25ean hil zen, 103 urte zituela. Haren aldeko meza domekan izango da, 11:30ean, San Pedro parrokian.

Errekan Gora jaialdia

Musika jaialdia irailaren 17an, 18an eta 19an gauzatuko da. Atxorrotx Kultura Elkarteko kideek asteon atera dute egitaraua.

Antzerkia urrirako

Urriko lehenengo asteburuan kale antzerki jaialdia ospatuko da. Horrekin batera, Debagoieneko Antzerki Plataformak formakuntza saioa eskaini nahi du ikasturte honetarako.

Bi bidaiak kontakizun aurtengo 'Ostegun bidaiariak'-en

Beste urte batez, zenbait herritar Zaldibar antzokiko oholta gainera igoko dira beraien bidaiak bateko esperientzia kontatzen. Nahi duten moduan egin ahal izango dute beraien bidaiako kontakizuna jendaurrean, eta azalpenak emateaz batera, interesdunek galderak egin ahal izango dizkiete hizlariari. Arrakasta duen egitasmoa

izan ohi da, nahiz eta udako oporraldiaren bueltan izan bidaiak kontakizunak. Hala ere, ideiak hartzeko baliagarria izan daiteke.

Lehenengo kontakizuna irailaren 16an izango da, 19:00etan, Zaldibar antzokian, eta Napolin eta Sizilian bizi izandakoak izango ditu berba Beñat Herce hizlari eskoriatzarrak. Irailaren 23an, berriz, Ainhua Arizabaletak eta Karmelo Oñatek penintsulako arroiak izango dituzte berba.

"Denboraldi berrirako talde gaztea eratu dugu"

MIKEL ALKAIDE ESKORIATZAKO ARETO FUTBOL TALDEKO ENTRENATZAILEA
Maila Nazionaleko Eskoriatza taldeko zenbait jokalarri beteranok taldea utzi dute, eta, aurpegi berriekin, talde gaztea osatu du entrenatzaile berriak

Imanol Beloki ESKORIATZA

Taldean garbiketa eginda, beste talde batzuetako jokalariekin, taldea utzi dutenekin eta probintzial mailako Eskoriatzako bigarren mailako taldetik igotako jokalariekin talde gaztea eratu du Eskoriatzak Maila Nazionalean lehitzeko. Taldeko gidari berria dute lan horretarako: Mikel Alkaide eskoriatzarra. Entrenatzaile gisa ibilbide luzea du etxeko zenbait kategoriatan, eta iaz, Eskoriatza Kirol Elkarteko Narciso Pavorekin batera areto futboleko bigarren mailako Laskorain taldean sendo ikasi du. Hori horrela, hasi dira denboraldia prestatzen, eta ikasitakoak praktikan jartzeko irrikan dago.

Erroka berria hastera zoaz. Gertu zaude Eskoriatzako lehen taldea zuzentzeko?

Ilusioz nago eta taldekideak ere halaxe ikusten dut. Denboraldia ez da hasi, baina abuztuaren 23an hasi ginen denboraldi-aurrearekin, eta liga hasiera ona izan nahi badugu, gogor entrenatu behar dugu, eta horretan ari gara. Hori horrela, astean lau entrenamendu egiten ari gara egunotan. Horrekin batera, joan den zapatuan, Aurrera Vitoria taldearen aurka jokatu genuen lagunartekoa, etxean, eta 7-4 irabazi genuen. Zapatu honetan, berriz, Elorrietako taldearen aurka jokatu dugu beste lagunarteko bat, 18:00etan izango dena Manuel Muñoz kiroldegian, eta denboraldia irailaren 18an hasiko dugu, etxetik kanpo, Gora Bilbo taldearen aurka.

Talde gaztea osatu duzu, eta aurpegi berri asko ikusi daitezke, gainera?

Taldean urte luzez aritu diren zenbaitek utzi egin dute taldea, eta beteranoena 34 urteko Aratz Kortazar kapitaina da. Beraren ondoren, 24 urteko Jon Ugarte gaztea dugu, eta beste guztiak



Mikel Alkaide Eskoriatza areto futbol taldeko entrenatzailea. ESKORIATZA K.E.

"HILAREN 18AN HASIKO DUGU DENBORALDIA, ETXETIK KANPO, GORA BILBOREN AURKA"

gazteagoak dira. Aritz eta Markel Urzelai eta Ekain Eriz jokalarriak UDA areto futbol taldera joan ziren gazte mailan, eta orain, Eskoriatzara bueltatu dira. Gure klubeko probintzial mailako bigarren taldetik ere zenbait jokalarri igo ditugu: Ian Mcheil, Oier Gaztañaga, Kimetz Zabala eta Jokin Murillo. Hauekin batera, Jokin Salido atezaina jokatu gabe egon da lesio baten ondorioz, eta entrenatzen hasiko da indarra hartzeko, eta Jon Lucero ere entrenatzen ari da gurekin, nahiz eta fitxa gabe dagoen.

Ezazki duzue helburu finkorik denboraldi berrirako?

Iaz, denboraldi aparta egin zuen taldeak, eta bide beretik jarraitu nahiko genuke. Hirugarren Mailari eustea da, hasiera batean, planteatu duguna, baina urtea aurrera joan ahala joango gara

erroka berriak ezartzen. Jakinaren ganean gaude talde berria eta gaztea dela, eta, jokalarri beteranoen falta igarriko den arren, gertu gaude. Beraz, apurka-apurka joan beharko dugu pausoak ematen.

Narciso Pavorekin batera bigarren mailan aritu zara entrenatzaile urtebetez, Tolosan. Biok Eskoriatza Kirol Elkartera bueltatu zarete. Bertan ikasitakoak praktikan jartzeko gogoz?

Pila bat ikasi nuen iazko denboraldian. Esperientzia izugarria izan zen eta bertako irakaspenak fruituak ematea ondo legoke. Narciso Pavok adierazi zuen utzi egingo zuela taldea eta Eskoriatzara bueltatuko zela. Bioi eskaini ziguten bertan jarraitzeko, baina Eskoriatzara bueltatzeko eskatu zidaten, orain arte aritu den Iker Molina entrenatzaileak taldea utzi behar zuelako, eta kirol elkarteak, gainera, ez ditu entrenatzaileak soberan... Beraz, erabakia hartuta, taldeko entrenatzailea ni izango naiz, eta Narciso, atezainen entrenatzaile izateaz batera, maila beheagoko Eskoriatzako taldeko entrenatzaileak formatuko ditu.



2019an San Pedro eta Intxaurtueta jaietako bazkarian batutakoak. GOIENA

'San Pedro txikiak' antolatu barik, asteburu kulturala

Hiru egunerako programazioa prestatu dute bizilagunek irailaren bigarren astebururako

I.B. ESKORIATZA

Aurten, COVID-19a dela-eta, ez dira *San Pedro txiki* jaiak ospatuko iraileko bigarren asteburuan. Hau da, Intxaurtueta eta San Pedro auzoetako jaiak. Hemezortzi urtez egin gabe izandako jaiak 2019an berreskuratu zituzten, eta bi auzoetako bizilagunen artean egitarau sendoa prestatu zuten. Oraingoan, baina, Eskoriatzako Udalaren, jai batzordearen, babesleen eta bizilagunen laguntzarekin, asteburu kulturala prestatu dute, iraileko bigarren astebururako.

Programa itxi barik dago

"Programa irekia prestatu dugu, adin guztietako herritarrei zuzendutako ekintzekin. Nabarmetzeko zenbait hitzordu daude, esaterako: artisautza eta elikagaien azokan 22 postu inguru egongo dira, Irulitxa fanfarria ekartzea ere lortu dugu, eskatzen zuen prezioa baino askoz gutxiago ordainduta... Hala ere, programan aldaketaren bat edo beste egon liteke, eta jakinaraziko dugu datorren astean", adierazi du Antonio Regañok, Eskoriatzako Udaleko jai batzordeko buruak.

Asteburu kulturalako egitaraua

Irailaren 10a, egubakoitza

- 19:00 Txupinazoa.
- 19:05 Buruhandiak.
- 19:30 Irulitxa fanfarrea.
- 22:30 Duo Imperial.

Irailaren 11, zapatua

- 10:00 Txistularien kalejira.
- 11:30 Ipuru gimnasia erritmiko taldearen erakustaldia.
- 13:00 Eskoriatzako musika bandaren kontzertua.
- 16:00 Nagusiendako jokoak / Puzgarriak eta zezen mekanikoa.
- 20:30 Muxutruk erromeria taldea.

Irailaren 12a, domeka

- 10:00 Txistularien kalejira eta artisau eta elikagai merkatua.
- 12:00 Txistor eta sagardo dastaketa.
- Natura ikasgela
- 13:00 Eskoriatza Kirol Elkarteen 21/22 denboraldiko taldeen aurkezpena.



Rebel Noise taldearen kontzertua Arrasateko San Juan jaietan, txosnagunean. GOIENA

Herri kirolak, musika eta puzgarriak izango dira asteburu kulturalean

Leintz Gatzagako andramaixak ez dituzte ospatuko bere horretan. Hala ere, herritar guztiei zuzendutako egitarau kulturala antolatu dute aste bukaera honetarako. Herri kirolak, haurrentako puzgarriak eta musika kontzertuak izango dira, gaurtik hasita

Imanol Beloki LEINTZ GATZAGA

Leintz Gatzagako Andramari jaiak irailaren 8an ospatzen dira, Dorletako Andre Mariaren egunean, txirringularien zaindarien egunean. Egun horretan izaten dute gatzagarrek Otxandiokoen bisita, besteak beste. Aurten, baina, ez da halakorik izango; bederatziruenerik ere ez da izan, eta meza ere ez dela egongo aurreratu dute udal ordezkariak. Jairik egongo ez den arren, asteburu honetara begira ekitaldi kulturalak antolatu dituzte, abuztuko oporraldiaren ostean herria girotzeko asmoz.

San Migel plazan egingo dira astebururako prestatu dituzten ekintza guztiak. "Gatzagako Andramari jaiak ez ditugu bere horretan antolatu nahi izan. Hau da, Gatzagan ez da jairik egongo. Hala ere, ekitaldi kultural batzuk antolatu ditugu

astebururako, eta herritar orori zuzendutakoak egin nahi ginituenez, pixka bat denetik izango dugu: herri kirolak, haurrentako puzgarriak eta kontzertu ezberdinak", adierazi du Beñat Agirreurretak, Leintz Gatzagako Udaleko Kultura zinegotziak.

Gaur, 'Iluntze akustikoa'

Gaur, egubakoitza, izango dute lehenengo hitzordua. 19:00etan, *Iluntze akustikoa* izango da, Garazi, Sala eta Ibi izenpean. Antolatzaileek adierazi dutenez, azken unean programan sartu

REBEL NOISE ETA TALKA TALDEEN KONTZERTUAK IZANGO DIRA ZAPATUAN, 19:00ETAN

nahi izan duten hitzordua izan da. Gainera, bailaran aski ezagunak diren musikariak izango dira oholtza gainean, eta maila handikoak, gainera. "Asier Sala eta Ibai Lakuntza The Potes Arrasateko taldeko musikariek eta Garazi Barrena musikari arrasatearrak konfirmatu dute bertan egongo direla. Horrekin batera, Salarekin zenbaitetan oholtza partekatu duen Sabin Gauresti ere etortzekoa zela adierazi zuten, baina azken unerarte arte itxaron beharko dugu etorriko den edo ez jakiteko", adierazi du Garazi Orobengoak, Gatzagako Udaleko Ogasuneko zinegotziak.

Klasikoa: herri kirolak

Zapatuan, 11:30ean, Leintz Gatzagako jaietan klasiko izaten den hitzordua izango dute. Hain zuzen ere, herri kirolak izango



2019an, Otxandiotik Gatzagara oinez egin zuten hainbat lagun. GOIENA

Otxandiokoen bisita gabe

Otxandiarrek Gatzagara bidea egin izan dute oinez. Heldutakoan, salda beroa eta pintxoak eskainiz egiten diete ongietorria, baina aurten ez da halakorik izango. Horrekin batera, urteotan egin izan den bolo txapelketa ere ez da jokatu.

dira, eta arratsaldean, 19:00etan, berriz, Rebel Noise eta Talka taldeen kontzertuak. Arrasateko, Oñatiko eta Aramaioko musikariek osatzen dute Rebel Noise taldea. Musikari gazteek punk-rock estiloa uzartzen dute, eta euren kantuak eskainiko dituzte Gatzagako plazan izango den oholtza gainean. Talka taldea, berriz, bertsio talde akustikoa da. Orotariko euskal abestiak bertsionatzen dituzte, taldearen ukitu pertsonala emanaz era akustikoan. Hiru lagun dira taldean eta ahotsarekin batera, abestiak osatzeko, gitarra, harmonika, perkusioa eta biolina erabiliko dituzte.

Domekan, aldiz, dibertitzeko aukera aparta izango dute herriko txikienek. Izan ere, 11:00etatik aurrera, haurrentzako puzgarriak izango dira. 19:00etan, berriz, Mariachi Los Cazahuates Iruñeko taldeak kanta mexikarrak eskainiko dizkie plazara gerturatzen direnei. Zortzi lagunek osatutako taldeak, hiru ahotsekin, gitarroi batekin, akordeoi batekin, bihuela edo gitarra batekin eta bi tronpetarekin, *El Rey*, *Juan Charrasqueado*, *Las Mañanitas*, *La Hija de Nadie*, *El Golpe Traidor*, *Ni*

DOMEKAN PUZGARRIAK IZANGO DIRA, 11:00ETATIK AURRERA, GAZTETXOENTZAT

por *Mil Puñados de Oro* eta halako abestiak eskainiko ditu.

Neurriak hartuta

Kontzertuetarako zein bestelako hitzorduetarako sarrerak doakoak izango dira. Aulkiak izango dira eta eserita gozatu beharko dute emanaldiez bertaratzen direnek, maskara jantzita eta indarrean dauden neurriak errespetatuz. Eguraldi ona bada, plazan egingo dira ekintza guztiak, eta eguraldi txarra eginez gero, berriz, pilotalekura lekualdatuko dituzte hitzorduek.

Asteburuko egitaraua

Irailak 3, egubakoitza

- 19:00 'Iluntze akustikoa' (Arrasateko Garazi Barrena, Asier Sala eta Ibai Lakuntza arituko dira oholtza gainean, formatu akustikoan).

Irailak 4, zapatua

- 11:30 Herri kirolak.
- 19:30 Kontzertuak: Rebel Noise eta Talka.

Irailak 5, domeka

- 11:00 Puzgarriak.
- 19:00 Mariatxiak. Osasun arau guztiak beteko direla adierazi du Gatzagako Udalak.



Helduen danborradan parte hartu izan duten zuzendari batzuen eta udal ordezkarien arteko bilera, eguazten arratsaldean. B.U.

Kalejirarik gabe, danborradarik ez

San Martin jairik ezean kultura indartu nahi du Udalak, eta horretarako, besteak beste, Xaxaurekin dihardu lanean; bestalde, eguaztenean erabaki zen danborradarik ez egitea, modu estatikoan eta edukiera oso mugatuarekin egitea merezi ez duela iritzita

Jokin Bereziartua BERGARA

Bigarren urtez jarraian ez da San Martin jairik egongo. Eta jaion ekitaldi esanguratsuenak ziren helduen eta umeen danborradarik ere ez da egingo, uztailean iritzi nagusia pandemiara egokitutako ekitaldi bat egitea bazen ere. Eguaztenean, hilak 1, danborradan parte hartu ohi duten taldeetako zuzendari batzuek eta udal ordezkariak egindako bileran ia aho batez onartu zen baldintza horietan egiteak ez zuela zentzurik. Irailaren 15eko helduen danborrada eta irailaren 16ko umeena ez dira egingo, beraz.

Egitarau ofizialik ez oraindik

Kultura zinegotzi Kristina Markinak eguazteneko bileraren ostean eman zion GOIENARI danborradako kideek hartutako erabakiaren berri. Sanmartinik ez dela egongo behin eta

berriaz azpimarratzeaz gain, kultura indartzeko apustua egingo dutela aurreratu zuen: "Egoera aldakorra denez, oraindik ez dago egitaraua zehaztuta, baina datozen egunotan jakinaraziko zaie herritarrei".

Feria, dantza askatua eta banda

Egitarau ofiziala ezagutzera emateke, ez-sanmartinen barruan egingo diren ekitaldien artean daude, besteak beste, Moises Azpiazuren omenezko dantza solte txapelketaren 36. edizioa –irailaren 10ean, Seminarioxoan (19:30)–; bertako eta sasoiko produktuz osatutako azoka –irailaren 11n,

UDALAK "DATOZEN EGUNOTAN" EMANGO DIE HERRITARREI "KULTURA ESKAINTZA INDARTUAREN" BERRI

Ibargarain eta Seminarioko patioan (09:30-14:30)–; eta musika bandaren kontzertua –irailaren 16an, udal pilotalekuan (12:30)–. Pandemiak zapuztu ezin izan dituen sanmartinetako klasikoak dira hiru ekitaldiak. Azokari dagokionez, iaz Fraiskoziuri plaza ondoko errepide tartean egin zen eta aurten Ibargarain jartzea erabaki dute; gainera, aurten odolosteez gozatzeko aukera egongo da Seminarioko patioan jarriko den txosnan.

Moises Azpiazuren omenezko dantza txapelketa bigarren urtez egingo da Seminarioxoan. "Irailaren 1a ezkerko %60ko edukiera du Seminarioxoak eta, beraz, uste dugu etorri nahi duten gehienendako lekua egongo dela", dio musika eta dantza eskolako idazkari Nekane Gabilondok. Izena emateko epea gaur amaitzen bada ere, Bergarako Saioa Galarra-

Danbor hotsik ez, baina kultura bai



KRISTINA MARKINA
KULTURA ZINEGOTZIA

"Oso aldakorra da egoera eta ez dago ezer guztiz lotuta. Danborrada ez egitea ia aho batez erabaki dute zuzendariak, plazan modu estatikoan eta partaideen zein ikusleen partetik edukiera nabarmen murriztuta egitea merezi ez zuela iritzita. Bestalde, Xaxaurekin ere ari gara lanean eta badago asmoa kultura eskaintza indartzeko".



AITOR ERAÑA
ZULOA TALDEKO ZUZENDARIA

"Uztailean gehiengoaren iritzia zen ohiko danborradarik gabe ere beste aukera bat aztertzea. Hala ere, eguazteneko bileran erabaki genuen ez egitea; plazan geldi eta edukiera oso mugatuarekin egiteko, ez du merezi. Muntai handia da, eta gero jende gutxi gozatuko zuen bertatik bertara. Ea 2022an egitea posible den...".



IOSU AGIRRE
XAXAU JAI KONPARTSAKO KIDEA

"Arrasateko ez-jaietan egin zena gustatu zitzaion Udalari eta eredu hori Bergarara ekarri nahian ari gara. Kontzertuak eta bestelako kultura ekitaldiak antolatuko genituzke egunez; proposamenak aurrera egingo balu, Xaxauk kudeatuko lukeen eremuan segurtasun neurri guztiak bermatuko genituzke. Hori bai, konfirmatzeke dago".



NEKANE GABILONDO
MOISES AZPIAZU TXAPELKETA

"Moises Azpiazu ospe handiko dantzaria istripu baten hila ostean haren izena hartu zuen txapelketa. Seminarioxoan egingo dugu aurten ere, neurri guztiak bermatuta. 16 urteko gorako goi mailako dantzariak ikuskizun ederra eskainiko dute; primerakoa litzateke bikote bergararrak irabaztea hirugarren urtez jarraian...".

ga eta Julen Murgiondo bikoteak hartuko du parte: "Gaur egun Bergarako bikote honek hartzen du parte halako lehaketetan eta beti aritzen dira goiko postuetan. Ikusiko dugu ea zer gertatzen den".

IAZ FRAISKOZURIN EGIN ZEN AZOKA IBARGARAIN EGINGO DA, ETA ODOLOSTEEN POSTUA EGONGO DA

Danborradan ezingo da bandaren musikaz gozatu, baina kontzertua bai emango dute San Martin egunean. Atzo hasi zituzten entseguak, musikari guztiak, eta Enrike Txurruka zuzendariak ez du egitaraua erabat zehaztu: "Musikari batzuk orain hasi dira hainbat hilabeteren ostean eta entsegu gutxi izango dira kontzertuaren aurretik; gainera, aste barruan denez baja batzuk ere izango ditugu, ikasketengatik edo lanagatik".

Uberako elkargune nagusia berritu egin dute

Uztail amaieran eraikinaren birgaitzerako eta irisgarritasunerako obrak bukatu ostean, irailean inauguratuko dute Uberako eskola-etxe berritua; proiektu osoa 256.872 eurotan likidatu da, Eusko Jaurlaritzaren Erein programako 93.574 euroko dirulaguntza barne

Jokin Bereziartua BERGARA

Askotariko birgaitze-lanekin eta traba arkitektonikoak kentzeko obrekin, eraberritu dute Uberako eskola etxea. "Auzotarrak oso pozik gaude obrarekin. Uztail amaieran udal ordezkariekin, Biark estudiokoekin eta obra exekutatu duen enpresa arduradunekin egon ginen eta ikusi genuen oso ondo geratu zela. Ikusten da erabilitako materialetan eta akaberetan maitasun osoz egindako obra dela. Komunikazio estua izan dugu, ezer hobetu behar bazen hori hobetzeko prestutasun osoarekin", adierazi du Uberako alkate Gorka Buruagak.

Lanen artean bereziki bi nabarmendu ditu Buruagak: "Eraikinerako irisgarritasuna bermatzea oso inportantea izan da, badaude-eta auzotarrak mugikortasun arazoak dituztenak. Bestalde, eraikineko leiho guztiak ere aldatu dituzte eta hori neguan izugarri igarriko da". Irailean zehar inauguratzea da asmoa, eta, Buruagaren arabera, "irrikaz" daude eskola-etxe eraberritua auzotarrei eta inguruko-erakusteko.

Erein programaren laguntza

Biark estudiokoek idatzi zuten proiektu teknikoa, eta 2019ko



Artola, Gonzalez, Buruaga eta Iñurrategi, eskola-etxe eraberrituaren atarian. B.U.

AUZOTARRAK "OSO GOGOTSU" DAUDE ERAIKINA ERAKUTSI ETA ERABILTZEN HASTEKO

urrian onartu zuen Udalak. Construcciones Frixi SL enpresak egin ditu lanak. Lanok 256.872 eurotan likidatu dira –BEZA barne–; Eusko Jaurlaritzak auzo eta landa gunek sustatzeko duen Erein programaren barruan

onartu ziren, eta horri esker Udalak lanotarako 93.574 euroko dirulaguntza jaso zuen.

"Oso gogotsu" erabiltzeko

Inbertsioa eginda, "oso gogotsu" daude auzotarrak eskola etxea erabiltzeko: "Auzo batzarrekin hasiko gara laster. Yoga ikastaro bat ere ari gara antolatzen, zinema emanaldiak antolatu nahi ditugu, helduen zaintzarako ikastaro bat, ontziratzeko tailer bat... Jaolatza elkartearen ere hilean behin pintxo-potea egiteko asmoa dugu, auzotarrak elkartzeko".



JOSEBA BARRUTIA 'ARNO'

Jaien orde, kaleko emanaldiak

Pandemiaren erruz, bigarren urtez jarraian Kofraixak ospatu gabe geratu dira Osintxun. Jairik ez, baina Udalak antolatu ditu emanaldi batzuk. Abuztuaren 26an Trakamatraka taldea eta abuztuaren 29an Tio Teronen Semeak taldearen 'Festamentua' ikuskizuna izan ziren plazan. Hilaren 29an salda eta okela egosia ere banatu zuten hurbildu zirenentzat.

Etxeko laguntza zerbitzua: iaz baino ia 130.000 euro gehiago

Menpekotasun egoeran daudenei begirako zerbitzurako 802.834 euro eta 30.200 ordu bideratzea aurreikusten da

Jokin Bereziartua BERGARA

Irailaren 1ean sartu zen indarrean Udalaren eta Eulen Servicios Sociosanitarios SL enpresaren arteko kontratua, etxez etxeko laguntza zerbitzuari dagokiona. Zerbitzu honek mendekotasun egoeran dagoen erabiltzaileari bere bizilekuan jarraitzen lagundu, bizilekuan bertan moldatu eta ingurune komunitarioan integratzeko aukera ematen dio, etxeko langile baten laguntzarekin.

Zerbitzuaren helburu nagusiak honako hauek dira: erabiltzaileak autonomia pertsonalari eustea edo hura hobetzea; bere bizilekuan bizi-kalitate onargarri batekin ahalik eta denbora gehien jarraitzea, eta egoitza batean sartzeko aukera atzeratzea edo saihestea; erabiltzaileen segurtasun sentimentua indartzea; familiakoen arreta-zereginak

partzialki bada ere liberatzen laguntzea edota zaintzaile nagusia aldizka ordezkatzeta; eta bestelako premiak detektatzea.

2021ean iaz baino ordu gehiago

Udalaren datuen arabera, 2020an 27.859 ordu eskaini ziren zerbitzu honetan. Orduon %58 etxeko lanetarako bideratu ziren, %38 laguntza pertsonalerako eta %5,06 beste ekintza batzuetan laguntzeko. Iaz 95 etxebizitzatan eskaini zen zerbitzua, 121 pertsonari. Erabiltzaileen %69 emakumezkoa izan zen iaz eta %31, gizonezkoa; era berean, batez besteko adina 82,67 urtekoa izan zen. Bestalde, kostua iaz 673.077 eurokoa izan zen; Udalak %47 ordaindu zuen, Diputazioak %27 eta jasotzaileek, %26. 2021erako aurreikuspena da 30.200 orduz eskaintzea zerbitzua, 802.834 euroko aurrekontuarekin.

Irisgarritasuna, leihoak eta terraza

Eskola-etxe osoan irisgarritasuna bermatzea izan da helburu nagusietako bat. Traba arkitektonikoak kentzeaz gain, eraikin osoko leiho guztiak aldatu dituzte eta auzotarrak atarian elkartzeko terraza bat ere egokitu dute. Hori bai, goiko solairuko bi gelak ez daude oraindik erabilgarri, auzotarrek zertarako beharko duten zehaztu ostean atonduko dute eta.



Traba arkitektonikoak kentzea izan da helburu garrantzitsuenetakoa bat. B.U.



Sukaldea, lurra eta berogailuak aldatu dituzte eta segurtasuna bermatzeko itxitura magnetikoa duen ateak jarri dira. B.U.

Egoera larrienei aurre egiteko etxea, egokituta

Larrialdi egoeran dauden edota etxean indarkeria matxista jasan duten emakumeen beharrei erantzuteko harrera etxean hainbat lan egin ditu Udalak; sukaldea, lurra, berogailuak eta leiho batzuk aldatu dituzte, eta ate seguruagoak jarri

Jokin Bereziartua BERGARA

Gizarte arloko premiei erantzuteko eta etxean indarkeria matxista jasan duten emakumeendako erabilgarri duen harrera-etxea egokitu du Udalak. Besteak beste, sukaldea, lurra, leiho batzuk eta berogailuak aldatu dituzte, eta segurtasuna bermatzeko itxitura magnetikoak dituzten ateak jarri dira. Lanok gauzatzeko 49.500 euro inbertitu ditu Udalak.

Aldi baterako egonaldiak

Zerbitzu horrek ostatu ematen die gizarte-larrialdi edo gizarte-premia egoera baten ondorioz ostatua behar duten edo etxeko indarkeriaren egoeratik biziberritu eta egoera hori gainditu ahal izateko iraupen laburreko egonaldia behar dutenei eta bizikidetzaren unitateei; betiere, pertsona horiek babes-neurririk behar ez badute. Aldi baterako egonaldiak izaten dira, eta laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da. Hau da, harrera-etxean

etengabe egon behar duen langilerik eta harrera-etxeari esleitutako langilerik ez du eskaintzen.

Erabiltzaileak etxeko indarkeriaren biktimak diren emakumeak badira, biktimok artatzeko zerbitzu eta programa guztiekin koordinatuta jarduten du Udalak; hori bai, betiere, emakume horiek ostatu hartzeko aldi baterako alternatiba bat behar badute eta babes-neurririk behar ez badute. Horregatik ez da zehazten harrera etxe hori non dagoen kokatuta.

Laguntza espezializaturik ez

18 urtetik gorakoei ematen zaie laguntza, eta, hala badagokio, eskatzailearen ardurapean edo

ERABILTZAILAEN ANONIMOTASUNA MANTENTZEKO, EZ DA PUBLIKOA HARRERA ETXEAREN KOKAPENA

zaintzapean bizi direnei ere ematen zaie ostatu, adin nagusikoak edo adingabeak izan.

Honako hauek dira erabiltzaileek bete beharreko baldintzak: langileen etengabeko presentziarik gabe ostatu-zerbitzu batean eman daitekeen intentsitate txikiko laguntza behar izatea; gizarte-zerbitzuen sarearen berezko horniduren aukeretatik kanpoko osasun-laguntza espezializatu edota iraunkorrik behar ez izatea; gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat edota gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea; bizikidetzaren normala modu larrian eragotzi dezakeen edota pertsonarentzat berarentzat, beste erabiltzaile batzuentzat edo esku har dezaketen profesionalentzat arriskutsua izan daitekeen portaerarik ez agertzea; eta gaixotasun infekzioso eta kutsakor bat zein gaixotasun mentalen bat izanez gero, dagokion tratamendua ez baztertzea.

GORA ETA BEHERA



0.E.

Eskertuta, koska zena arrapala egitearren



Ibargarai kaleko irudiko espaloi zatian irisgarritasuna hobetu izana txalotu du herritar batek; bereziki, mugikortasun arazoak dituzten bizilagunek eskertuko dutela sinetsita.

EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Zortzi desfibriladore jarri ditu Udalak herritarren eskura

Desfibriladoreak jarri ditu Udalak herriko zortzi puntutan. Eraikin publikoen barruan zeuden batzuk kalera atera dira, eta berriak ere jarri dituzte; automatikoak dira, "erabiltzeko errazak". Aparatuen ondoan azalpen orriak daude eta ahots bidezko oharra ere ematen dituzte makinek, nola erabili erakusteko. Honako leku haue-

tan jarri dituzte: udaletxean – Udaltzaingoan–, Agorrosin eta Labegaraieta kiroldegien atarrietan, udal pilotalekuko aterpean, Seminarixoaren sarrera ondoko zutabeen, Irizar jauregiko barruko atarian, Osintxuko Txuringo tabernan eta Angiozarko mediku kontsultan. Bestalde, Udaltzaingoak eramangarri bat ere badu, ibilgailuan eroan ohi duena, eta herriko eragileek beste eramangarri bat ere eskatu dezakete, ekitaldiren bat antolatu behar badute.

OHARRAK

Erretiratuen eta pentsiodunen elkarretaratzea

Irailaren 6an San Martin plazan elkartuko dira, 12:00etan. Pentsioen bueltako azken akordioen berri emateaz gain, argindarraren prezioaren igoera eta banketxeen "zerbitzu murrizketa" salatzeke ere baliatuko dute agerraldia.

Bergarako Odol Emaleak elkarrearen deia

Irailaren 8rako eta 22rako deitu dituzte hurrengo ateraldiak, Oxirondon, 16:30etik 20:30era. Txanda alde aurretik hartzeko honako telefono zenbaki honetara deitu behar da: 747 42 99 20.

Ortu komunitarioak: ekarpenak egiteko aukera

Udalak aurreikusten du ortuok martxan izatea 2022ko udaberrirako. Ekarpentak egiteko: www.bergara.eus.

Zaborraren, estolderiaren eta uraren tasa

Bigarren hiruhilekoko errezihoak ordaintzeko epea irailaren 10ean bukatuko da. Argibide gehiagorako: www.bergara.eus.

Bergara Oinez ekimenaren zazpigarren irteera

Irailaren 9an elkartuko dira, Agorrosin kiroldegian (10:00). Izena emateko: 943 76 21 40 (San Joxepe) edo 943 77 70 95 (Agorrosin).

"Ezinezkoa zen estropada hobea egitea"

NEREA AGIRREZABAL ONDARROA CIKAUTXO TALDEKO ARRAUNLARIA

Kontxako Bandera jokatu dute asteburuan, eta ondarrutarrak bi segundogatik (2.86) geratu dira kanpoan; bergararrak urte gogorra izan dela nabarmendu du

Xabier Urzelai ARRASATE

Biharamun apur batekin, bezperako estropadako tentsio guztiak atzean utzita, eta Kontxako Banderarako sailkatu ez baziren ere -bi segundoren aldegatik ez zuten lortu- maila oso ona eman izanak utzitako zapore gozoarekin erantzun ditu Nere Agirrezabalek (Bergara, 1994) GOIENAKO galderak.

Zer diren bi segundo...

Oso denbora gutxi, eta, hala ere, Kontxako Banderatik kanpo geratzeko nahikoa. Pena hartu genuen, sekulako estropada egin genuelako. Egia esaten badizut, ezinezkoa zen estropada hobea egitea, sekulako saioa egin ge-



Nerea Agirrezabal kontzentrazio keinuarekin, traineruan. IÑAKI BEITIA

nuen, dena egin genuen bikain, baina ez zen nahikoa izan. Hala ere, oso pozik gaude egindako lanarekin.

Lehiakideen artean, indarrak oso parean egon ziren.

Bai; aurten emakumezkoetan maila izugarri igo da, eta indarrak pare-parean egon dira. Lehen, lau talde on egoten ziren, eta gero, koska handia egoten zen gainontzekoekiko. Hori amaitu da, indarrak asko parekatu dira. Atzo ikusi zen hori, lau segundoren bueltan hamar talde geunden. Hala-koetan, patrioiak erabakitzen du arraunlarioi erreferentziak ematen joan ala ez, eta guk ezezkoa erabaki genuen, antsietatea sorrarazi dezakeelako. Estropada amaitu zenean, segituan jakin genuen kanpoan geundela.

Non izan zineten motelago?

Kurioso da, denborei begirata erdiko balizatik ziabogara motelagoak izan ginen, baina traineru barruan gindoazenondako tarte hori bikaina izan zen. Gure sentsazioa da itzultzen izan ginela motelagoak, ziabogatik erdiko ba-

lizara ez ginela horren azkarrak izan, baina denborek bestelakoa diote.

Kontxako Bandera jarraitzeko asmorik? Ala min ematen du telebistaz jarraitu behar izateak?

Ez, lasai ikusiko dut. Arrauna gustuko duenak berdin ikusten du, eta, gainera, badakigu ze lehia dauden, pikeak... Horrek interesa gehitzen dio estropadari [Barre].

Zuendako amaitu da denboraldia; ze balorazio egiten duzu?

Egia esan behar badizut, oso gogorra izan da; bereziki, psikologikoki. Batetik, taldean baja asko izan ditugu eta horrek asko zaildu du dena. Neguan 26 lagun geunden taldean, eta urtea 15ekin amaitu dugu. Jakinekua da denboraldi berri baten aurrean jendeak baiezkua ematen duenean konpromiso maila ez dela denendako berdina izango, baina... Eta, bestalde, pandemiaren egoerak asko zaildu du dena. Taldean positiborik ez izateko, estropada batetik kanpo ez geratzeko... Kontu handiarekin ibili behar izan dugu; bizitza soziala asko mugatu dut, eta gogorra egin zait.

ariznoa elkarte

2021 - 2022 IKASTURTE HASIERA

Lehiaketa kategoriak (5. mailatik gorakoak):

Irailaren 8an, 17:00etan, Labegaraiaeta kiroldegian.

Benjaminurrekoak 1 (2016an jaiotakoak):

Irailaren 23an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan.

Benjaminurrekoak 2 (1. eta 2. mailetakoak):

Irailaren 23an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan.

Benjaminak (3 eta 4. mailetakoak):

Irailaren 23an, 17:30ean, Ipintza batxilergoko gimnasioan.

Antzuolako taldea:

Irailaren 22an, 14:45ean, Antzuolako udal pilotalekuan.

ERITZKOA



www.ariznoaelkartea.com

ANIMATU ZAITEZ GU EZAGUTZERA!

Etor zaitez bi saio probetzeraz inolako konpromiso barik.

Harremanetarako:

ariznoa_ge@hotmail.com

ariznoagimnasiaeritnikoa@gmail.com

ariznoa elkarte



COVID-19A DELA ETA, EZINBESTEKOA DA PROTOKOLOAK IRAKURTZEA ETA ZIURTAGIRIA BETETA EKARTZEA.

Irailean ere egongo da zertaz gozatu herrian

Bergarako Udalak eta Kultura Mahaia prest dute iraileko eskaintza. Aire zabaleko ekitaldiak eta etxeko artisten presentzia bermatzea izan da nahia. Orain arte egindako elkarlana nabarmendu, eta horrela jarraitzeko asmoa erakutsi dute

Arantzazu Ezkibel Galdos BERGARA Kultura beharrezkoa dela argi dute Bergaran, eta, orain arteko hariari jarraituz, kultur proposamen oparoa antolatu dute irailerako ere. Bergarako Udalak antolatutako ekintzak dira, Kultura Mahaiko kideen laguntzarekin.

"Kultura beharrezkoa dela uste dugu, eta ekintzak antolatzen jarraituko dugu, ona delako bai ekoizleendako, bai artistendako eta baita herritarrendako ere", azaldu du Kultura zinegotzi Kristina Markinak.

Etxekoendako lekua

Bertako artistei eta emakumei tokia egitea da Udalaren ardatzetako bat. Hala osatu dute iraileko egitaraua ere. Jazz musikari euskaldunen doinuekin hasiko da programazioa. Irailean 10ean, aldiz, Bergaran hain errotuta dagoen dantza txapelketa egingo dute. Bikote nagusiei zuzendutako txapelketa Semi-



Neomak taldea Eskoriatzako Zaldibar antzokian. IMANOL SORIANO

narixoa jokatu da, 19:30ean hasita. Moises Azpiatzuren omezezko txapelketa Musika Eskolak antolatzen du; aurten, hain zuzen, 36. aldiz.

Aretoetatik kanpoko ekintzen dako lekua ere egongo da. Irail-

aren 11n, zapatua, Neomak taldeak Usondo parkean joko du. Zazpi emakumez osatutako taldeak trikitia du eskaintzaren oinarri, eta horri gehitzen zaizkio perkusio doinuak eta ahots ederrak.

Irailean San Martin jaiak izaten dira. Pandemia egoeran ekitaldi jendetsurik ez egitearen aldeko apustuak jarraitzen duen arren, Bergarako Musika Bandaren emanaldiak ez du hutsik egingo: eguenean izango da, 12:30ean, udal pilotalekuan.

Elkarlanaren fruitua

Markinak dio udarako antolatu dituzten ekintzekin gustura dardela –nahiz eta oraindik datu ofizialik izan ez–. "Parte-hartze ona izan dute ekintzek. Egia da ez garela gelditu eta gauzak antolatu ditugula, eta eskaintza indartu egin dugu uda garaian, aire zabaleko eskaintza aprobeztatuz", azaldu du Markinak. "Kultura eskaintza auzoetara zabaltzeko nahia ere izan dugu, agertoki berriak bilatzeko, kulturaren ere zero kilometroaren alde egitea...", gaineratu du zinegotziak. Hala ere, kultura eskaintza elkarlanaren fruitua dela nabarmendu du Markinak: Kultura Mahaiaekin elkarlanean egindako lana. Aurrerantzean ere elkarlanean lan egiten jarraitzeko nahia azaldu du.

Kultura Mahaiko kide Maitane Arizabaleta ere iritzi berekoa da: "Elkarlanean jarraitzeko asmoa dugu, eta nabarmendu nahi dut Kultura Mahaia atek zabalik dituela". Udako eskaintza aberasgarria izan dela dio: neurriak ondo bete direla, eta adin eta genero guztiak izan direla kontuan.

Iraileko kultura egitaraua

Domeka, 5

- 19:00 Organic Matters taldea San Martin plazan.

Egubakoitza, 10

- 19:30 Bikote nagusien dantza txapelketa Seminarixoa.

Zapatua, 11

- 20:00 Neomak taldea Usondo parkean.

Eguena, 16

- 12:30 Musika Bandaren kontzertua pilotalekuan.

Zapatua, 18

- 19:00 Kontzertu klasikoa: Oiasso kamerata Santa Marinaran.

Egubakoitza, 24

- 20:00 Alos Quartet eta Musika eskolako dantzariak Santa Marinaran.

Domeka, 26

- 20:00 Koruko Andra Mari musika kapera Santa Marinaran.



BERGARAKO ERRALDOI TALDEA

Palentzian izan dira erraldoiak

Bergarako erraldoi taldeko kideak Palentzian izan ziren abuztuaren 27an, 28an eta 29an. Pandemia hasi zenetik egin duten lehen irteera izan da Palentziakoa. 25 bat lagun elkartu ziren, udal ordezkariak tarteko. Palentziako alkatearen agurra jaso zuten; gainera,

Bergarako ordezkariak herriko produktuak eraman zituzten opari moduan. Erraldoiak erakustez gain, dantza egiteko aukera ere izan zuten erraldoiekin; hain justu, orain arte ez dute izan aukera hori. "Primeran" ibili zirela azaldu dute hara joandakoek.

Bordan Bizio eta Rebel Noise, gaur, Gorrako kantuan

Elosuan, Gorrako kantuan, hainbat emanaldi eskainiko dituzte hurrengo egunetan. Gaur, esaterako, Bordan Bizio eta Rebel Noise musika taldeen txanda izango da. Lehenengoek 18:30ean hasiko dute emanaldia eta bigarrenak, 20:30ean.

Bihar, zapatua, K-PO etat HRT etxeko musikariek girotuko dute iluntzea, 19:00etan hasita. Ondoren, DJ Anomaliaren ardura izango da musikarekin gaua girotzea –22:00etan–.

Datorren asteari begira, irailaren 10ean, egubakoitza, On The Go musika taldeak emanaldia eskainiko du, 19:30ean. Uztaileko eta abuztuko eskaintzaren jarraipena izango da.

Jazz doinuez gozatzeko aukera egongo da domekan

Jazz ibiltaria zikloaren barruan, emanaldia eskainiko du Organic Matters taldeak San Martin plazan, domekan. 19:00etan izango da emanaldia –euria bada, Seminarioko karpan–.

Organic Matters laukotea euskal jazz agertokiko musikari entzutetsuek osatzen dute. Hammond organoaren soinu *vintagea* da taldearen ezaugarri nabarmenena.

Jazza gustuko dutenendako ekitaldi paregabea izango da domekakoa. *Jazz ibiltaria* zikloak lau emanaldi izango ditu: Bergaran, Beasainen, Galdakaon eta Elorrioren. Bi taldek joko dute: Organic Matters eta Girls in Band taldeek.

DEBAGOIENENKO



OSASUN ZERBITZUAK



DENTISTAK

ADUR HORTZ KLINIKA

Arrasate / Arrasate pasealekua 15, behea / 943 79 95 60

AGIRRE HORTZ KLINIKA

Bergara / Ibargarai 32, behea / 943 76 00 23

ANE LASAGABASTER

Arrasate / Otalora lizentziaduna 18 solairu artea ezk.
943 79 13 68

ARRASATE HORTZ KLINIKA

Arrasate / Erdiko kale 50 / 943 79 72 23

ARREGI HORTZ KLINIKA

Arrasate / San Bixente Ferrer 1, behea / 943 79 71 90

BERGARA HORTZ KLINIKA

Bergara / Bidekurutzeta 36, behea / 943 76 05 77

CAVIGLIA SILVANA

Bergara / Simon Arrieta 3-28 / 943 76 38 54

DURANA HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Durana kalea 22 / 943 79 93 55

GARAI HORTZ KLINIKA

Aretxabaleta / Iralabarri 15 / 943 53 42 63

GOROSABEL J. ALBERTO

Bergara / Fraiskozuri 5A, 1D / 943 76 56 88

IRIARTE ANE MAITE / ITZIAR ARANDO

Arrasate / Iturriotz 7 - 1 / 943 79 69 45

MAZMELA BOLINAGA ENRIKE

Eskoriatza / Gorosarri J. plaza 3, 1. esk / 943 71 47 36

SAINZ MALKORRA ANA

Antzuola / Herriko Plaza 4 / 943 78 71 69

DERMATOLOGIA

TAMAYO CONCEPCION

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4, behea
943 79 20 18 / 620 12 48 43

DIETETIKA

BEATRIZ ZULUETA DIETISTA - NUTRIZIONISTA ZUATZU KLINIKA

Arrasate / Nafarroa etorbidea 4 / 943 79 20 18

ENTZUMEN ZENTROAK

INSTITUTO OPTICO AUDITIVO

Arrasate / Erdiko kale 22 / 943 79 71 68
Bergara / Bidekurutzeta 10 - 943 76 97 03

KIROPRAKTIKA ZENTROA

BIZI KIROPRAKTIKA

Arrasate / Aprendices 2 / 943 79 92 83

MASAJISTAK

AZPEITIA IRUNE

Bergara / Ibargarai 44, behea / 943 76 73 43

NEUROLOGIA

AGUSTIN SAGASTA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14 / 943 79 44 11

OPTIKAK

BEGIONDO OPTIKA

Aretxabaleta / Loramendi 10 / 943 79 98 21

ORTOPEDIA

MARIA VICTORIA ANITUA

Aretxabaleta / Belorrieta auzoa 1 / 943 08 11 43

OSASUN- DIAGNOSTIKOAK

UDALAITZ ZENTRO MEDIKOA

Arrasate / Euskal Herria plaza 3
943 79 44 22

PODOLOGOAK

ERDIKO KLINIKA PODOLOGIKOA

Arrasate / Erdiko kalea 54, behea esk.
943 79 97 46

IKERLEKU PODOLOGIA ZENTROA

Bergara / Ikerleku zeharbidea z/g
943 76 07 84

PSIKOLOGOAK

NUÑEZ TXOMIN

Arrasate / Olarte 10 / 943 79 88 16

VICENTE HUESO PSIKOLOGO KLINIKOA (AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

PSIKIATRIA

IÑAKI MADARIAGA

(AITA MENNI OSPITALEA)

Arrasate / Uribe auzoa 13-14/ 943 79 44 11

Egoiliarren egunerokoa gertutik ezagutzen

Pandemiak euren egunerokoa nola eragin duen eta faltan zer sumatzen duten kontatu diote GOIENARI Eguneko Zentroko lau erabiltzailek. Gehiagorendako lekua duen arren, hamabi erabiltzaile ditu Torresoroa eraikinean dagoen zentroak

Maidar Arregi ANTZUOLA

Hemeretzi erabiltzaileendako lekua dagoen arren, hamabi lagun elkartzen dira gaur egun Eguneko Zentroan –goialdean etxebizitza tutelatuak ere baditu Torresoroako eraikinean-. Lorea Errekalde zentroko langileak azaldu duenez, bakoitzak bere errutina barneratuta dauka, eta egoitzara iritsi ahalaz bat badauki zein jarduerarekin abiatu eguna. "Bi txandatan etortzen dira. Lehen txanda 09:15ean etortzen da eta bigarrena hamarretarako iristen da. Ekintza ugari egiten dituzte eta egoiliar bakoitzak bere errutina dauka. Ni astean hiru bider etortzen naiz, eta, burua aktibo mantentzeko helburuarekin, esku-hartze kognitiboa egiten dugu".

Saio horiek taldeka egiten dituzte, eta ondoren bakoitzak gustuko duen jarduera egiten duela gaineratu du Errekaldek: "Paseoa eman, margotu, terrazara irten, euren artean berba egin, egunkaria irakurri... Norberak nahi duena egiteko aukera dauka".

Irteerak berreskuratzeko gogoz

Konfinamenduan erabiltzaileendako zentrorra joan ezin izana gogorra izan dela aitortu du Lorea Errekaldek: "Guztiondako



Eguneko Zentroko erabiltzaileak terrazan. JONE OLABARRIA

zaila izan bazen errutina apurtzea, egoiliarrendako are zailago. Desiratzen zeuden itzultzeko. Egia da, baita ere, etxeetan egon zirene epe hartan langileok etxez etxe bisita egiten genielako, nola zeuden jakiteko. Posta elektronikoz materialak bidaltzen genizkien, jarduerak egin zituzten, eta, hala, euren gerturatzen ginenean, elkarrekin lantxoak egiten genituen eta konfinamendua horren gogorra ez izatea lortzen genuen elkarrekin".

Irailean konfinamendu aurretik egiten zituzten irteerak be-

rreskuratzeko asmoa dutela aurreratu du Eguneko Zentroko langileak: "Urtero egin ohi ditugu bi irteera, baina COVID-19aren ondorioz ezin izan dute halakorik egin; berreskuratzeko gogoz daude, eta, dena ondo bidean, irailean berriro egingo ditugu irteerak. Masaje eta erlaxazio tailerrak ere berreskuratu gura ditugu, faltan igartzen dituzte eta! Zentrorra etortzea oso garrantzitsua da erabiltzaileendako; izan ere, euren etxea bezala da, eta oso ondo sentitzen dira".

Kaxiano gogoan duen horma-irudia Eguzki auzoan

Artea kalera atera eta herriko eta herritarren izaera islatuko duten zortzi mural egingo dituzte

Maidar Arregi ANTZUOLA

Eguzki auzoaren osteko zubiaren pareko horman Kaxianoren murala margotu dute Oier Peñagarrikanok eta Ione Larrañaga artistek. Kaxiano Antzuolako baserri batean jaio zen, eta modu

horretan herritarren artean presente izatea nahi izan dutela azaldu du Ione Larrañaga antzuolarrak.

Guztira, eta auzolana oinarri, zortzi mural margotuko dituzte. Beñardo Kortabarría alkateak

adierazi du horietan erakutsiko dituzten gaiek izango dutela Antzuolarekin zerikusia. "Lotura bat egin nahi dugu gure izaerarekin artea kalera ateraz. Gaiek uste dut lotzen dituztela hainbat balio Antzuolan bultzatu nahi direnekin: senidetasuna, Euskal Herriko nozio hori denok bat garela, Kaxianori nolabaiteko errekonozimendua, pilota, feminismoa... *Euskaraz blai* leloa sartu dugu haurrak ibiltzen diren ur parkean... Ez da pintatzea pintatzeagatik".



Kaxianoren horma-irudia. ANTZUOLAKO UDALA

Eguneko Zentroaren egunerokoa




BEGOÑA BARRENETXEA
URRETXU

"80 urte bete ditut, eta urtebete pasatxo da zentrorra etortzen hasi nintzela. Oso ondo konpontzen gara eta gustura etortzen naiz. Goizetan nahi duguna egiten uzten digute: margotu edo puntua egiteko aukera dugu, besteak beste. Niri margotzea, ordea, asko gustatzen zait".




CARMEN MOURE
PONTEVEDRA

"92 urte beteko ditut aurten, eta Antzuolan 49 urte daramatzat. Galiziako A Estrada herrikoa naiz. Eguneko Zentroan 10 urte bete ditut jada. Paseatu, gimnasia eta eskulanak... egiten ditugu. Musika eta kantatzea asko gustatzen zait. Oso martxosoa izan naiz".



IRENE CASTELO
AVILA

"88 urte ditut eta 62 urte daramatzat Antzuolan. Zentroan, berriz, ia bi urte egingo ditut. Gauza asko egiten ditugu: idatzi, puntua... Agintzen digutena. Niri marraztea asko gustatzen zait, baina denetarik egiten dut. Gainera, jaten ere oso ondo ematen digute".



TERESA GURIDI
OÑATI

"89 urte ditut eta bi hilabete daramatzat zentroan. Oso gustuko dut terrazan eguzkia hartzea eta paseatzea. Zentroko terraza asko aprobetxatzen dugu. Puzzleak ere egiten ditut. Giro ona daukagu eta elkarrekin ondo moldatzen gara. Seiak aldera itzultzen gara etxera".



Ekain Larrea Kanarietako proban. EKAIN LARREA

Larrea: "Mundialera joatea lorpen handia da"

Azken orduko aldaketak medio, 2022ko otsailean jokatu da mundu mailako 20 urtez azpiko mendi lasterketa proba, Thailandian. Ekain Larrea bertan izango da, eta anaia Ibaik mundialera joateko txartela lehiatuko du Jakan hilaren 12an

Maidar Arregi ANTZUOLA

Abuztuaren 8an jokatu zen, Kanarietan, Espainiako *Trail Running* txapelketa, eta, 24.01 minutuko denbora eginda, Munduko Txapelketara pasatzeko txartela lortu zuen Ekain Larrea antzuolarrak. "Estatu mailako txapelketa bat lehen aldiz irabazi dut. Oso lorpen handia izan da hau eta oso pozik nago egindakoarekin", kontatu du.

Hiru dira Espainian jokatzen diren lasterketak, Munduko Txapelketara nortzuk igaroko diren erabakitze; horietako bi lehiatu ditu antzuolarrak. Lehena Kantabrian jokatu zen, eta bigarren izan zen. Ondorioz, Kanarietako lehiaketan parte hartu behar izan zuen. Zehazki, Kanarietako El Pasoko herrian jokatutako lasterketan lortu zuen Mundukorako pasea. Mendian jarritako zirkuituari bi buelta eman behar izan zizkion partaideek, eta, Larreak adierazi duenaren arabera, "ez zen oso gogorra izan".

Munduko Txapelketa

Datorren azaroan Thailandian zen jokatzeko mundu mailako *Trail Running* txapelketa, baina azken orduko egutegi aldaketa izan du probak. Hala, azkenik, 2022ko otsailean jokatu da, eta bertan izango da Ekain Larrea. "Orain egun eman jakinaz digite data aldaketaren berri; niretzako hobeto. Izan ere, abuztuaren entrenamendu erritmoa jaitsi egin dut, eta, modu horretan, denbora irabaziko dut datorren urteko otsailerako berritako sasoi onenean egoteko", azaldu du.

Gogotsu dago lasterkari antzuolarra, eta Thailandiako klima hezeari ez dio beldurrik. Prestaketa lanekin ere berehala

THAILANDIAKO KLIMA HEZEARI EZ DIO BELDURRIK, ETA GOGOTSU DAGO ANTZUOLARRA

hasiko dela aitortu du: "Oraindik ez naiz prestaketa bereziekin hasi, baina laster hasiko naiz; han hezetasun handia dago, eta nire gorputza hotzera egina dago".

Anaien arteko lehia

Ibaik Larrea, Ekain Larrearen anaia, ere izan zen Kanarietan jokatutako mendi-lasterketan eta hirugarren postua lortu zuen. "Batera entrenatzen gara, baina, ondoren, lehiaketan, bakoitzak berea egiten du. Anaien arteko lehia pixka bat badago", adierazi du Ekainek, barre artean. Bien helburua da Munduko Txapelketara elkarrekin joatea.

Hala, irailaren 12an, Ibaik Canfranc herrian Munduko Txapelketarako txartela ekuratzeko saiakera egingo du. "Irabaziz gero, Munduko Txapelketarako zuzeneko pasea lortuko luke; bigarren aukera bat ere izango luke, ordea: antolatzaileen irizpideen arabera aukeratua izatea. Politza izango litzateke biak elkarrekin lehiatzea".

Dena gertu dute AKEko jokalariek denboraldia hasteko

Erregional Preferenteak hilaren 11n hasiko du denboraldia, Eztalan, Beasainen aurka

Maidar Arregi ANTZUOLA

Pixkanaka ohikotasunera itzuli dira AKEko futbol taldeko jokalariek. Abuztuaren bigarren hamabostalditik martxan dira. Lehen entrenamenduak egin dituzte, eta lagunartekoak ere jokatu dituzte –infantilek izan ezik–. "Lagunarteko bi jokatu dituzte. Kadeteek zapatuan UDAREN aurka berdindu egin zuten. Erregional Preferenteko taldeak, ordea, galdu egin zuen lagunartekoa. Liga hastear da, eta lehen jardunaldia Eztalan jokatu du lehen taldeak, Beasainen aurka, hilaren 11n. Partidu gogorra dugu. Kadeteek eta gazteek hirugarren asteburuan abiatuko dute denboraldia", azaldu du Ibon Gezalaga presidentek.

Bergara eta Antzuolako nesken kadete eta infantil taldeek, berriz, irail amaieran hasiko dute liga. "Bergararekin elkarlanean aur-



Antzuolako kadeteak. KARLOS BALEZTENA

ten ere talde bana martxan dago, eta herriko zarpina neskak jardungo dute bai kadeteetan eta baitan infantiletan ere". Liga hastear den honetan, Eztalako aldagelak erabilgarri dituzte jokalariek, eta ohikotasun kutsuaz hasiko dute denboraldia.

Autokontsumoa eta komunitate energetikoa aztergai

Ekainean Goieneko Kooperatibak eskainitako autokontsumo eta komunitate energetikoaren gaineko hitzaldiek interesa piztu zuten. Horregatik, Udaleko Baliabide Naturalen lantaldeak, herritarren jakin-mina ikusita, irailean bilera bat egitea erabaki du, eta bertan parte hartzeko dei egin die antzuolarrei. Helburua da zalantzak eta interesak

ezagutaraztea eta aukerak aztertzea. Interesa duen edonork bidaldi dezake posta elektronikoa udala@antzuela.eus helbidera, eta irailean zehar bilera eguna eta ordua zehaztuko dituzte. "Azkenengo lege aldaketak interesa sortu du. Horregatik, asmoa da komunitate energetikoaren aukera aztertzea, dituen abantailak azalerratzuz: ekonomikoak, zein energia sorkuntza duen, lokala edota komunitatearen esperientzia eta indarra zein den azalduta".

KZgunea berriro ere martxan dago, herritarren zerbitzura

Datorren astearen berreskuratu du KZgunea bere ohiko martxa Torresoroako eraikinean. Hala, irailaren 8an, eguaztena, goizeko bederatzietatik eguerdiko ordu batak bitartean KZguneko dinamizatzailea bertan izango da herritarren zalantzak argitzeko: teknologia zalantzak, BAKQ-metaposta, ikastaroak, administrazio izapideak...

Baso-lanek beste bi aste iraungo dute, gutxienez

Eguraldia lagun duten heinean, uztailean abiatutako Galardi eta Kaxeta arteko baso-lanek jarraipena izango dute. Abuztuaren lanok etenaldia izan dute, eta orain, gutxienez, beste hamabost eguneko lana izango dute. "Teorian, bide berdera ez dute egurrik botako, baina kamioiak joan-etorrian ibiliko dira. Arretaz ibili", ohartarazi du Udalak.

Elgetako landetxeak ia beteta egon dira udan

Maialden, Eguzkitzan eta Barrenenguan ez dute bisitari faltarik izan uztailean eta abuztuan. Iazkoaren aldean, okupazio mailak gora egin du nabarmen, eta ia beteta egon dira hirurak. Bisitari gehienak kataluniarrak izan dira. Atzerritarrek ere ibili dira

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA

Abuztuan bete dituzte hamar urte Maialde landetxean Jesus Kalboetxeagak eta Izarra Arriaranek. Nola ez, sumatu dute pandemiaren eragina eta oraindik ere badute kezka etor daitekeenarekin, baina uda ondo joan dela azaldu du Kalboetxeagak. "Iazkoa oso urte arraroa izan zen; jendea ez zen mugitu. Aurten, abuztuko okupazio maila %95-98 izan da eta uztailea abuztua baino hobea izan da". Kataluniarrak eta madrildarrak izan dira nagusi. "Alacantetik eta Valentziatik gero eta jende gehiago etortzen da, eta aurten andaluziarrak ere izan ditugu. Atzerritarrek ere etorri dira. Asko ez, baina egon dira batzuk; frantziarrak, herbeheretarrak eta alemaniarrak bizpahiru egunerako". Muturreko bero bolada aldian dei asko jaso dituztela ere azpimarratu du. "Deigarria izan da, baina beteta geunden. Ez genuen inor hartzerik". Irailan ere badabil jendea. "Asko jaitsi da, baina erreserbak hartzen jarraitzen dugu. Asteburu honetan beteta gaude, eta hurrengo ere bai ia-ia".

Eguzkitzan ostalari berria

Uztailaren 1etik Maider Dacosta Clarok kudeatzen du Eguzki-



Schijndel talde herbeheretarreko txirrindulariak, Eguzkitzan. MAIDER DACOSTA CLARO

HIRUZPALAU EGUNEKO EDO ASTEBETE INGURUKO EGONALDIAK EGIN DITUZTE BISITARIEK

tza landetxea. Hogei urte egin ditu bulego batean lanean eta ofizio berria du, baina lehen udaldia ona izan dela azaldu du. "Abuztua beteta eduki dut eta uztailean %60ko okupazioa. Bisitarien %85 kataluniarrak izan

dira. Frantziarrak eta madrildarrak ere egon dira". Schijndel talde herbeheretarra ere Eguzkitzan izan da. Gazte mailako Nations' Cup lehiaren barruan Abadiñon eta Iurretan jokatu-tako bi etapetan izan dira. Bigarren etapa eta sailkapen nagusia eramanez taldeko Mijntje Geurts txirrindulariak.

Barrenenguan ere hartu dute jendea udan. "Iaz ez, baina aurten bai, eta oso ondo joan da", azaldu du Maite Sadak. "Kataluniarrak eta valentziarrak izan dira gurean".



ANDONI GOTTI BILBAO

Lanak Beizu-Azularako bidean

Harri-lubeta egiteko harriak jarrita daude. Egonkortzerakoan hormigoia botatzea gelditzen da. Egunotan egingo dute. 7.700 euroko aurrekontua duten lanak dira. Ez da lehen aldia bide horretan mendia behera etortzen dela. 2019an ere gertatu zen. Euriteen ondorio bada ere baso ustiaketa lanek ere eragina dutela azaldu du Sebastian Arantzabal zinegotziak.

Julen Beretxinaga, obretako brigadako arduradun berria

Pandemia dela-eta uste baino luzeago jo du Fernando Zenitagoiaren ordezkoa izendatzeko prozesuak. Udalak iazko urtarilean egin zuen deialdia, eta, askotariko probak izan dituen oposizio-lehiaketa baten ondoren, astelehenean hasiko da lanpostu berrian Julen Beretxinaga elgetarra.

49 lagun aurkeztu ziren oposizio-lehiaketara, eta lau azterketa edo proba puntuagarri egin ostean zein meritua baloratu ostean hirugarren baloraziorik onena jaso du Beretxinagak. Oposizio-lehiaketan aurretik sailkatutako bi lagunek lanpostuari uko egin ostean hartuko du izendapena elgetarrak.

Uztailean hamalau koronabirus kasu eta abuztuan bost

Hamazortzi hilabete izango dira laster pandemia egoera ezarri zenetik, eta hamalau kasu positiborekin uztailea izan da Elgetan positibo gehien atzeman diren bigarren hilabetea. 2020ko azaroak bakarrik gainditzen du intzidentzia hori, hamabost positiborekin. Bosgarren olatua deiturikoa, beraz, nabaritu egin da. Uztail erdialdean nabaritu ere; izan ere, uztailaren 13tik 25era hamahiru positibo erregistratu ziren.

Egoerak hobera egin du abuztuan. Amaitu berri den hilabetean bost positibo zenbatu dira herrian, eta gaur argitaratzekoak diren datuen zain herriko intzidentzia-tasa metatua 265,25 da.

Bisita gidatuetan 40 lagunetik gora

Udan hainbat bisita gidatu ere egin dira Intxortako ibilbide tematikoan. Bisitarien artean izan dira Debako gazte asanbladako kideak zein Kataluniatik eta Andaluziatik etorritako hamasei laguneko taldea; tartean, Elgetan borrokatutako Saseta batailoiko komandante Ander Plazaolaren alaba bere senideekin. Domekan ere bisita gidatua egongo da.



Arantza Plazaola Rezola senideekin, Elgetan. JUAN RAMON GARAI

OHARRAK

A2 mailako euskara ikastaroa urritik aurrera

Uztailean egindako aurre-matrikulan hamar bat lagunek agertu zuten interesa. Taldea, beraz, irtengo da. Matrikula zabalik da hilaren 20ra arte udaletxean, udal webgunean zein liburutegian.

Udaletako mozioen gidaren aurkezpena

Baso Biziak plataformak deituta bihar, zapatuan, gida berriaren aurkezpena udal liburutegian, 12:00etan.

'Azalerako ipuinak' tailerra irailean

2 urte arteko haurrentako eta haien familiendako eskaintza, liburutegian, Saroa Bikandik gidatuta. Edukiera eta antolaketa neurriengatik, izena ematea beharrezkoa da.



Eskolara sartzeko ilara egiten, iazko ikasturtean. L.Z.L.

Eskola hasiera, iazko neurriekin

Herri Eskolako neska-mutiko gehienek eguaztenean emango diote hasiera 2021-2022 ikasturtari. 125 ikasle izango dira, eta horien artean dira 2 urteko gelan hastekoak diren hamabi neska-mutikoak. COVID neurri gehienak mantentzen dira

Larraitz Zeberio Lekuona ELGETA
Ikasleen udako oporrak amaitzeaz dira, eta badator ikasgeletara itzultzeko unea. Hilaren 8an emango diote hasiera ikasturtari Elgetako Herri Eskolako ikasle gehienek. Lehenengo hiru egunetan jardunaldi trinkoa izango dute. Ondoren, goizeko eta arratsaldeko ordutegiarekin hasiko dira.

Apur bat geroago hasiko dira 2 urteko gelan **hastekoak diren** neska-mutikoak. Hamabi dira aurten, eta, eskolaratze berriak izanik, egokitzapena egingo dute irailan.

Joan den astea ezker dira lanean zuzendaritzako kideak. Hala, Hezkuntza Sailetik jasotako azken jakinarazpenak kontuan hartu, protokoloak errepasatu eta hartu beharreko neurriak berrikusten aritu dira, besteak beste.

Pandemia egoerak baldintzatutako ikasturte hasiera izango da honako hau ere. Zuzendaritzak jakinarazi du indarrean izango den protokoloa iazkoaren oso antzekoa izango dela. "Iazko sarrera-irteera orduak mantenduko dira eta ikasleak bizikidetzaren egonkorreko taldeetan edo burbuiletan antolatuko dira. Familiak egunotan jasoko dute informazio orokorra, posta elektronikoz", esan dute.

Irakasle kopuruari dagokionez, ikasturte berrian hamazazpi irakasle inguru izango ditu He-

COVID PROTOKOLOAK JARRAITU BEHARKO DIRA; NEURRIAK IAZKO ANTZEKOAK IZANGO DIRA


rri Eskolak. Lanaldi murriztuak finkatu gabe daude oraindik.

Haur eskola ere zabalik

Haur eskolan ere eman diote hasiera ikasturtari. Eguaztenean itzuli ziren hezitzaileak lanera, eta atzo egin zuten batzarra familiarekin. Astelehenean hasiko dira haurrak eta familiak egokitzapenean; lau, hain zuzen ere. Bosgarrena urrian hasiko da. "COVID-19 protokoloari dagokionez, arlo pedagogikoan zein prebentzio arloan ez da aldaketa nabarmenik izan. Aurrez beharrezkoak ziren neurri batzuk orain gomendio bihurtu dira, baina funtzionatzeko erak berdintsu jarraituko du", azaldu du Laura Martinek.

Ludoteka zerbitzua

Ludoteka zerbitzuak, berriz, irailaren 13an zabalduko ditu



Behargina jolastokiko teilatua lanean. ANDONI GOITI BILBAO

Lanak jolas eremuak egokitzeko

Haur Hezkuntzako neska-mutikoendako eskolako jolastokia egokitzeko lanak amaitzen dihardute egunotan. Eremuak bi gune ditu: bata, estalia; eta bestea, aire zabalekoa. Estalpea hobetzeko lanetan dihardute, gehienbat. "Aspaldiko hormigoizko egitura bat da, bazeukana pintura iragazgaitz bat, baina denborarekin usteldu egin da, eta ura filtratu egiten zen. Neguan erabiltzeko zailtasunak egoten ziren, eta orain egiten ari gara da estalpe hori hobetu, urak bideratu eta bermatu, neurri batean, urik ez dela sartuko estalpeko gune horretara", azaldu du alkateak.

Bi eremuak bereizten dituen hesiari metakrilatozko xafla bat jarri diote, egun haizetsuetan eta euritsuetan babes lanak egin dituzten. Helburu berarekin, eskolako jolastokia inguratzen duen beirtean ere aluminiozko xafla eta pintura iragazgaitza jarri dituzte. Lanok 30.000 euroko inbertsioa ekarriko dute eta Eusko Jaurlaritzaren laguntza izango dute.

Maala parkeko jolastokian ere lanak egin dituzte. Karpa handi batek estaltzen du ziburuen gunea. Erabilera libreko gunea da, baina pandemia hasi zenetik jolastoki moduan ere erabiltzen du eskolak. "Azken erremateak falta dira", esan du alkateak. "Lurra jarrita dago eta guztiz finkatzea falta da. Bi argi puntu ere jarri nahi ditugu karpa barruan". Proiektu honek 26.000 euroko aurrekontua du. Eusko Jaurlaritzak 23.400 euro emango ditu.

ateak. Udalak jakinarazi du COVID-19aren kontrako neurriekin ekingo diotela ikasturte berriari udal zerbitzuan ere. "Eskolako eta haur eskolako arduradunekin izan gara, eta, aurreko ikasturtean bezala, eskolako protokoloa hartuko dugu oinarri ludotekan ere. Gutxienez, lehenengo hiru hilabeteetan. Hala, taldeak ahalik eta egonkorrenak izate aldera, oraingo, ikasturte osorako edo lehenengo hiru hilabeterako bonuak soilik egin ahal izango dira. Izen-emate kopuruaren arabera erabakiko da

HAUR ESKOLAN LAU UME HASIKO DIRA ASTELEHENEAN, ETA LUDOTEKA HILAREN 13AN HASIKO DA

hezitzaile kopurua", azaldu du Iraitz Lazkano alkateak.

Ordutegia betikoa izango da: asteleheneatik barikura, 16:00etatik 19:00etara. Zerbitzuaren prezioa 280 euro da ikasturte osorako eta 120 euro hiru hilabeterako bonuaren kasuan. Familiaren errentaren arabera %70erainoko hobariak aurreikusten direla gogorazi du Udalak. Izen-ematea egin daiteke udaletxean zein udal webgunean eskuragarri dagoen orria beteta.

Musika eskolak

Lorea Larrañaga musika irakaslea ere ikasturte berria prestatzen hasita dago. Urrian hasiko dira eskolak, kultura etxe-ko musika gelan, eta laster jakinaraziko du ordutegiak zehazteko zein egunetan egongo den kultura etxean.



Langileak Munazategi pareko biribilgunea egiteko lanetan, eguazten goizean. O.E.

Martxora arte iraungo dute Munazategiko lanek

Egiten hasi diren biribilguneak Munazategiko industrialdeko enpresetarako sartu-irteera hobetzea du helburu, eta baita Garibai auzora sartzeko modua erraztea ere. Abuztuan hasi dituzte lanak eta sei bat hilabete iraungo dute

Oihana Elortza OÑATI

Abuztuan hasi dituzte Munazategiko biribilgunea eraikitze lanak eta otsaila edo martxoa izango da lanak bukatuta ikusi orduko. Biribilgunearekin batera, auzoko sarbidea zabaldu egingo dute.

Bi faseko lanak

2010etik datorren proiektua da hau eta Gipuzkoako Aldundiaren, Udalaren eta Ulma kooperatibaren artean egingo duten lana da. Hitzarmenak bi fase jasotzen ditu: biribilgunea bera eta Garibai auzorako sarrera zabaltzea. Aurkeztutako proposamenaren arabera, Munazategi inguruko biribilgunea Duruaren errearen gainean egokituko da, 42 metroko kanpo diametroa eta sei metro zabaleko erre bakarria izango du alde bakoitzetik metro beteko bazterbidearekin. Ulmak ordainduko du biribilgunea hori eta auzorako sarbidea, Udalak. Orain egiten ari diren lanak biribilgunea egitekoak dira, eta

lehen fase hau eskuineko aldean egingo dute, Oñatitik Elorregirako zirkulazioaren noranzkoan. Aste honetan bukatu da epea auzoko sarbidea eraikitzeko prozedurara, eta enpresa bakarra aurkeztu da, Amenabar, lanak hasi dituen enpresa bera. Udalak 91.000 euro jaso ditu aurrekontuetan proiektu horretarako.

Auzotarren eskaera

Auzotarrek urte luzez egindako eskaerari erantzungo dio lan honek eta auzotarrak pozik daude lanak hasita ikusita: "Ibilgailuak abiadura handian ibitzen dira hemen eta auzoko zein lantegiko sartu-irtenak arriskuak dira", dio Miguel Angel

**LEHEN FASEAN
BIRIBILGUNEAK BERA
EGINGO DUTE, ETA
GERO, AUZOKO BIDEA
ZABALDU**

Guridi auzotarrak. Auzoak autobus geltokia eta bidegorria falta dituela ere gaineratu du Guridik eta gogoratu du errepide horretan ibilgailuek abiadura muga errespetatu behar dutela: 60 km/h muga, hain zuzen ere. "Bi eskaera horiek ere landu ditugu, baita auzotarrek batera ere. Autobus geltokia ez zen aurrera atera, azkenean, eta bidegorria erabiltzeko erraztasunak adosteko prest dago Udala", adierazi du Izaro Elorza alkateak.

Biribilgunea ez zegoen Hirigintza Arau Orokorretan aurreikusita, ezta berau gauzatzeko beharrezko lurrak, eta Udalak eta Ulmak egindako hitzarmenean bakoitzaren zereginak ere jaso zituzten; biribilgunea egiteko desjabetzeak, esaterako, Aldundiak lotu ditu eta auzoko sarrera egitekoak, Udalak. Apirilean egindako osoko bilkuran, sektore horren xehetasun azterketa behin betiko onartu zuen udalbatzak aho batez.

Harrobiaren handitzeari lotutako parte hartze prozesua egingo da

Aldaketa puntuala egin gura du Udalak, enpresak baimena duen eremuan bakarrik ustiatzeko

O.E. OÑATI

Gomiztegiko harrobiaren handitzea galarazi guran, aldaketa puntuala egingo du Oñatiko Udalak Hiri Antolaketarako Arauetan, eta parte hartze prozesu bat jarriko du martxan horren berri herritarrei emateko eta, bide batez, herritarren iritzia jasotzeko. Irailean zehar egingo da prozesua eta asmoa da hileko osoko bilkuran onartzea egin gura den aldaketa.

Baimena mugatu

Arantzazura bidean dagoen Gomiztegiko harrobia ustiatzen duen Aridos Aloña enpresak harrobia handitzeko proiektua du, eta hori galarazteko neurriak hartu zituen Oñatiko Udalak. 2018an, EAEko Lurralde Antolamendurako Batzordeak ontzat eman zuen harrobia ez handitzeko Oñatiko Udalak hiri antolaketa arauetan egindako al-

daketa. Ingurumen txosten bat aurkeztu zuen orduan, eta, hori onartuta, handitzeko mamua uxatu egin zen, eta bide administratiboa bukatu. Bide judizialek jarritako errekursoari erantzuteko, prozesu bera egingo du orain Udalak, lehen aurkeztutako ingurumen txostena osatuz. "Orain, errekurso bat onartu du auzitegiak, eta, herritarren mandatuari helduta jarraituz, erantzun bat ematea dagokigu", azaldu du Izaro Elorza Arregi Oñatiko alkateak.

Parte hartze prozesua irailean egingo da. Informazio saio orokorra egingo da irailaren 14an, eta 21ean Aholku Kontseiluaren bilera egingo dute. Bitartean, irailaren 1etik 20rako tartean, Udalak proposaturiko aldaketaren bueltako ekarpenak aurkezteko aukera izango dute herritarrek; webgunean dago ikusgai dokumentazioa.



Arantzazura bidean dagoen Gomiztegiko harrobia. O.E.

Deskontu bereziekin aterako dituzte produktuak kalera

Udaberriko eta udako produktuen Azken Txanpa azoka egingo du Txandak gaur, egubakoitza, eta bihar. Elkarteak hogeiki komertzio hartuko dute parte eta denda atarrietan eta Kale Barria eta Kale Zaharreko txokoetan jarriko dituzte euren produktuak. Deskontu bereziekin eskainiko dituzte.

Yogako hastapen ikastaroa egingo dute irailean

Oñatiko yoga eskolak, Sanatana Dharmak, antolatuta, hasiberriendako yoga ikastaroa egingo dute hilabete honetan. Zortzi eguneko izango da, irailaren 13tik 20ra bitartean, astelehene egunera. Ikastaroa 19:30etik 21:00etara egingo dute. Dagoeneko izena eman daiteke bide hauetako bat erabiliz: 610 95 37 94 edo yogaonati@gmail.com.



'Lagun', Migel Arregi, 'Argi', Jose Mari Bengoa eta 'Zeu', Arantzazun eguazten goizean. O.E.

Gipuzkoakoan lehiatuko dira Arregi eta Bengoa

Legazpin izango da Gipuzkoako Artzain Txakur txapelketa domeka arratsaldean eta bina txakurrekin joango dira oñatiarrak: 'Lagun' eta 'Argi' Migel Arregik eta 'Eder' eta 'Zeu' Jose M^a Bengoak. Artaldean Azpilletako eta Aldaiko ardiek osatutakoa izango da

Oihana Elortza OÑATI

Gustatzen zaie artzain txakurrekin lanean ibiltzea Migel Arregi *Azpilleta*-ri eta Jose Mari Bengoa *Urzabal*-i, baina domekan Legazpin egingo duten Gipuzkoako Artzain Txakur Txapelketara ohitura gal ez dadin ere joango dira. "Domekan ere lau artzain bakarrik izango gara. Badirudi

gurekin amaituko dela hau, ez da jende askorik ikusten atzetik", dio Arregik. Bengoa, aldiz, bakkorragoa da: "Gipuzkoan gaude makalen, beste lurralde batzuetan jende gehiago ikusten da honetan, eta gazteak ere bai, tarteka. Baina parte hartzea da bat eta antolatzen ibiltzea da beste bat, eta hori ez du inork gura".

Artzain txakur txapelketetan ibilitakoa da mutikotan Arregi, Katalunian ere egondakoa da eta Oñatikoan ere lehiatutakoa. "Bengoak animatu ninduen berriz honetan hastera, eta hemen nabil. Bi txakurrekin joango naiz Legazpira, *Lagun* eta *Argi*, eta ea zer moduzko txapelketa egiten dugun. Uharte Arakilen

izan nintzen Nafarroakoa ikusten, eta gustura egon nintzen. Agian, norik daki, Oñatikoan izango naiz berriz".

Bengoak ere beste bi txakur eramango ditu: "Eder-ek eskarmentua du, baina adina ere bai. Eta *Zeu*, berriz, apenas ibili da horrelakoetan. Lasai joango gara, behintzat, eta lana ahalik eta ondoen egitera. Askotan, agindu bat oker ematea nahikoa izaten da lan guztia aldrebesteko, edo txakurrak egun onena ez izatea edo baita zorrea ere. Ikusiko dugu, ba...".

Hurrengoa, Euskal Herrikoa

Gipuzkoakoa izango da lurraldeetako azken txapelketa eta lau artzainek eta sei txakurrekin parte hartuko dute. Mutrikuko Jabier Zubiaurrek *Mendi* txakurrekin eta Ataungo Aitor Tatok *Nabar*-ekin hartuko dute parte, oñatiarrez gain. Aurten, ez dute omenaldirik egingo.

Hemendik eta domekara bitartean aparteko prestaketarik ez dute egingo ez Arregik ezta Bengoak ere. Eguneroko lana izango da entrenamendua. Domekan, 25 bat buruko artaldeekin ariketak burutu egin dituzte txakurrekin. Oñatiko ardiak izango dira, gainera, Azpilletako eta Aldaiko ardiek osatuko dute artaldean. Lurraldeetakoak eginda, Euskal Herrikoa egingo dute Garain (Bizkaia) irailaren 18an. Eta hileko azken domekan, nazioartekoa Oñatin.

Oñatikoa irailaren 26an egingo da

Joan den urteko etenaldiaren ostean, aurten Oñatin egingo da berriz Nazioarteko Artzain Txakur Txapelketa. 61.a izango da, eta dagoeneko ari dira lotu beharrekoak lotzen. Ohiko tokian izango da, Santa Lutzian, eta domeka goizez. Aldaiko artaldean izango da artaldean. Aurten ere, Euskal Herriko irabazleak ez ezik, Kataluniatik eta Mallorcatik etorritakoak ere izango dira lehian. Egin beharreko probak ere betikoak izango dira. Antolakuntzan nabaritu dituzte aurtengo aldaketak. Esate baterako, ez da tabernarik egongo eta sarrera jartzea ere aztertzen ari dira. Aurten ere izango dute soziedadetako bazkideen laguntza egunean bertan egin beharreko lanetan.

GORA ETA BEHERA



O.E.

Auzoa hor bukatzen den zalantza

Argazkiko kartel hori leku egokian jarri ote duten galdetu du irakurle batek, zalantza beteta: "Auzoa hor bukatzen dela ulertzen dut, eta ez nago ziur horrela den".



EZER TXALOTU EDO SALATU NAHI? berriak@goiena.eus edo 688 69 00 07.

Jairik ez egoteak sortzen dituenak, kartelean jasota

Aurten, bigarren urtez, ez dira herriko jai nagusiak ospatuko Oñatin, eta egoera honek sortarazten dituen sentimenduak karteletan jaso gura ditu Udalak. Hala, horixe izango da antolatu duten kartel lehiaketako gaia: *Nola bizi duzu egoera?* Formatu digitalean aurkeztu beharko dira, irailaren 16a aurretik, testua erabiltzekotan euskaraz idatzitakoa izan beharko du eta bakoitzak gehienez bi lan aurkeztu ahal izango ditu. Irabazlea bozketan bidez erabakiko da, Internetez, eta boto gehien lortzen dituenak 500 euroko saria eskuratuko du. Lanak helbide honetara bidali behar dira: kultura.idazkaritza@onati.eus.



NIRE USTEZ

JONMIKEL INTSAUSTI

Erreusak

Uztailean astebetez Gure Bazterrak taldearekin Oñatiko zenbait baserriko ondare etnografikoa katalogatzeko abagunea izan nuen. Tresna ugari pasatu zen nire eskuetatik –sorkixa, edarraga, idazkixa...–, eta lan harekin jabetu nintzen zein urrun bizi garen gure aitona-amonon garaietatik. Erreusak ziren katalogatutakoak; hots, egun nolabait hondatutako edo baliorik gabeko tresnatzat ditugunak: traste zaharrak, alegia. Garaiak aldatu dira gero, eta gaur egun, aurrerapenaren izenean, zahar den ororen balioa gutxiesten dugu, berriagoa hobea delakoan. Erosi, bota eta erosiz, gehiegizko erreusaren sortzaileak gara Lurraren kalterako.

Eta, zoritzarrez ere, garaiotan balio gutxiesten ez dugu soilik gauzetara mugatu, eta aspaldian helduei, gure adinekoei, ematen genien begirunea desagerrarazi dugu. Adibide gisa, 50 urtetik gorako langabeak adinkeriaz zokoratzen ditugu eta adinekoak bazterrean abandonatu gero, kalez kale pentsio duina eskatzen ari diren bitartean.

Zaharra berrituz. Aurrerapena benetan?

"San Migel proban ondo aritzeko esperantza dut"

AIMAR MADINA TXIRRINDULARIA

Euskadiko txapeldun izatea lortu du udan Aimar Madinak gazte mailan, irailean jokatu den San Migel saria du orain buruan eta ziklo-krosean lehiatuko da gero

Oihana Elortza OÑATI

Ziklo-krosean eta errepidean, bietan aritzen da gustura Aimar Madina txirrindularia. Bigarren horretan garaipen handiak lortu ditu aurten, Euskadiko txapelaren artean.

Uztailaren 24an, Euskadiko txapeldun. Zer datorkizu burura?

Sinetsi ezinda nago oraindik, egia esan. Denboraldia normal hasi nuen, tropelean. Poliki-poliki gora joan naiz gero eta gorago. Zortzigarren egin nuen Zarauzko lasterketan eta hor ikusi nuen agian zerbait egin nezakeela denboraldi amaierara begira. Emaitza onak izan ditut ordutik, podiuma bai eta Euskadiko txapelketan lehenengo.

Zure asmoen artean zegoen proba hori irabaztea?

Ez, ez. Taldeko gazteena naiz eta denboraldiaren hasieran ikastea eta ahal nuena egitea ziren nire asmoak.

Hamabost egun lehenago, bigarren egin zenuen Arantzazuko igoeran. Euskadikoak arindu zuen pena hori?

Etxekoa etxekoa da, baina, egia esatearren, ez nuen espero bigarren helmugaratzea. Nire emaitzarik onena zortzigarren egitea zen, eta horrekin gustura nengoen.

Abantaila zenuten lasterketa horretan etxekoak?

Bai, ezagutzeak abantaila dakar beti, baina, azken finean, indarra behar da hor.

Euskadiko proba, Arantzazuko igoera eta Zarauzko lasterketa izan dira denboraldiko onenak zuretzat?

Lizarran ere bigarren egin nuen. Arantzazukoaren hurrengo astean izan zen hori.

Eta zer moduz orain arteko emaitza hauekin?

Lehenengo urtea da, eta oso gustura nago.

Zer eskatzen diozu hurrengo denboraldiari?

Ba, zaila gehiago eskatzea, egia esan. Hau gaitzeta nahiko zaila izango da, bai.



Aloña Mendi-Ulma taldeko txirrindulari Aimar Madina, Torreazon. M.B.

"ZARAUTZEN ZORTZIGARRIN EGIN NUENEAN IKUSI NUEN ZERBAIT EGIN AHAL IZANGO NUELA"

Datorren denboraldian bigarren urtea egingo duzu gazte mailan. Gehiago eskatuko diozu zeure buruari?

Ez. Antzera hasiko naiz, eta aterako da atera behar dena.

Ze ezaugarri ditu Aimar Madinak?

Igotzen nahiko ondo defenditzen naiz. Lauan, agian, badaude ni baino indartsuago dabiltzanak, baina, orokorrean, esango nuke nahiko ondo moldatzen naizela batean eta bestean. Erregularra naizela esango nuke.

Aurreko denboraldiarekin konparatuz, igarri duzue aurtengoan lasterketa gehiago izan direla eta gauzak normaltzen ari direla?

Bai. Lehen, protokolo gehiago zeuden, gehiago zaindu behar ginen. Orain, askatasun handiagoa dugu alde horretatik.

Irailean gaude, eta badator San Migel proba lasterketa. Nolako da? Eta zein helburu dituzu?

Azken aste hauetan nahiko normal ibili naiz, lasai, bai Frantzia inguruan, bai Erriberan eta bai etxe inguruan. Denboraldia amaitutzat nuen, baina asteburuan laugarren postua lortu dut Beasainen eta piztu egin nau horrek. Ibilbideari dagokionez, Euskal Herrian nahiko antzerakoak izaten dira lasterketak, luzeak eta aldapa askokoak. Hau ere horrelakoa da, luzea, eta, nahiz eta oso portu luzerik ez izan, nahiko gogorra.

Baduzu, orduan, etxean aurrean helmugaratzeko esperantzarik.

Bai. **Ihesaldi batekin bukatzen dira halakoak ala badago aukerarik tropelean heldu eta esprintean irabazteko?**

Denerako aukerak daude, baina esprinterako gutxiago daude, heldu baino lehenago Arregi igotzen dugu eta.

Errepidekoa amaitutakoan, ziklo-krosa etorriko da.

Iaz kanpora joan ginen lehiatzen, baina aurten hemen ere egongo dira lasterketak. Errepidearekin alderatuz, ziklo-krosean teknika ere behar da eta faktore askok alda dezakete lasterketa.



Zubikoa kiroldegiaren sarrera berria. GOIENA

Ikasturte berrirako ekintzak lotzen ari dira kiroldegian

Fitness ikastaroak ezagutzeko ate irekiak egongo dira eta igeriketa ikastaroak ere prest dituzte

O.E. OÑATI

Irailaren 15ean hasiko dira fitness ikastaro berriak Zubikoa kiroldegi berrituan. Aurretik, baina, ate irekiak egingo dituzte. Hilaren 8an, 13an eta 14an izango dira eta egun horietan aukera egongo da eskainiko dituzten gimnasia motak probatzeko: pilatesa, fit-bikea edo crossfita, esaterako. Zein ikastaro zein egunetan eta ordutan izango den ere lotuta dute eta kiroldegira joanda eska daiteke informazioa.

Bestalde, umeendako igeriketa ikastaroak ere egingo dira ikasturte honetan. Dagoeneko prest dute egutegia eta datorren astean zabalduko dute informazioa, hilabete honetan bertan egin beharko da-eta hasierako izen ematea.

Uztaila ezker zabalik

Uztailaren 26an inauguratu zuten ofizialki kiroldegi eraberri-

tua udal ordezkariak. Zortzi milioi eta 750 mila euro inguruko kostua izan dute lan guztiak zein ekipamendua hornitzeko materialak, altzariak eta beste-lakoak barne. Aurreikusitako gehiago kostatu arren, gustura geratu dira emaitzarekin udal ordezkariak, eta herritarrek ere hala geratzea aurreikusten dute. Erabiltzaileen beharrak kontuan hartu dituztela eta parte-hartzea garrantzitsua izan dela obrak gauzatzeko adierazi zuten orduan Izaro Elorza alkateak. Gaineratu zuen egungo beharretara egokitutako lanak izan direla. "Obra bat da, baina kontuan izan ditugu herritarren beharrak, parte-hartzea... Gaur egungo beharretara egokitutako instalazioak egin ditugu; irisgarritasuna kontuan hartu da, generoa, inklusioa... eta horrek sail ezberdinen lankidetzara eskatu digu", zioen Elorzak.

Astelehenetik aurrera eman ahalko da izena eskola kirolean

Datorren astean hasita egongo da aukera eskola kirolean izena emateko: irailaren 6tik 17ra, hain zuzen ere. Online egin daiteke, Zubikoa kiroldegiko webgunean. LH-1lekoen eta LH-2lekoen prezioa 80 eurokoa izango da, eta 95ekoa LH-3tik LH-6ra bitartekoendako. Kuota bakarrean edo bitan ordaindu ahal izango da ikasturte berriko matrikula.

Datorren asteburura arte luzatuko da udako denboraldia

Irailaren 12ra arte egongo da soroslea Usakon eta 11ra arte Herribusak bi joan-etorri egingo ditu egunero Zuazolako zubiraino: Ugarkaldetik 16:00etan abiatzen den B lineako autobusa eta Ugarkaldetik 19:30etan irteten den A lineako zerbitzua. Zubikoa kiroldegiko solariuma, terrazak eta belardia ere zabalik egongo dira.

Ereserkia berri dute 50. urteurrena borobiltzeko

Urte askoan "gordeta" izan den ereserkia berri dute Oñatz dantza taldeko kideek; sare sozialetan dago bertsio berria entzungai eta ikusgai, eta irailaren 25ean herritarren aurrean estreinatuko dute, Zubikoa kiroldegian egingo duten ekitaldian

Aitziber Aranburuzabala OÑATI

2020an bete zituen 50 urte Oñatz dantza taldeak. Hileroko ekitaldi bat zuten prestatuta, baina martxoan eten egin behar zuten; hala ere, "jakin dute osasun krisira moldatzen eta ekitaldi eta bestelako ekimen gehiago aurrera eramaten".

Irailaren 25ean borobilduko dute urteurrenako egitaraua Zubikoa kiroldegiko kantxan, 19:30ean egingo duten dantza emanaldia-ekin, eta han izango dira estreinatu berri dituzten erraldoiak eta urteetan gordeta izan den ereserkiaren bertsio berria. Irailaren 13an hasita, Txokolateixan eta *Oñati.eus*-en izango dira, 10 eurotan, sarrerak eskuragarri.



Ereserkiaren grabazioko une bat. OÑATZ DANTZA TALDEA

Demetrio Iriarterena

Oñatz martxa izeneko obra konposatu zuen bere herriko dantza taldearentzat orain dela urte asko Iriarterek. Honela kontatzen du Oñatz-eko kide Julen Agirrek: "Urteurrenako prestaketekin

hasi ginenean jakin nuen ereserkia bat zegoela. Iriarterek konposatutakoari hitzak jarri zizkioten Xabier Bikuña *Latas*-ek eta Egoitz Aizpuruk, taldeak 25 urte bete zituenean. Eta orain, beste bi paragrafo gehitu diz-

kiogu eta hainbat musika tresnarekin jotzeko moldatu dugu".

Talde-lanean egin dute dena. "Kantuaren bertsio berri bat egitea proposatu ziguten eta gure artean egiteko modukoa zela ikusi genuen, taldean mu-

sikari asko gaude-eta, eta aurrera egin genuen. Demetrioren konposizioa txisturako egindakoa da, eta txistua du oinarri bertsio berriak ere, baina ondo zetozen hainbat tresna aukeratu eta ereserkiaren moldaketa bat egin dugu".

Eltzian grabatu dute, Iñaki Zubiarekin eta Imanol Astudilloekin. "Txistua grabatzetik hasi ginen eta, apurka, instrumentu guztiak, segidan, eta ondoren, ahotsak, helduenetatik hasita gazteenak arte. Putz batzuk bota ditugu, baina sentsazio onekin bukatu dugu".

Belaunaldi bakoitzak berea

Ereserkiak hiru zati dauzkala kontatu du Agirrek: "Hiru estrofako kantua izatea zen helburua: Oñatz zena, Oñatz dena eta izango dena, hau da, dantzari ohiak protagonista lehenengoan; bigarren estrofan, gaur egungo dantzari helduak; eta hirugarrenean, haur dantzariak. Bertsolariak ere baditugu taldean, eta horiek arduratu dira ereserkiaren hitzak idazteaz".

Urteetan gordeta egon den kantuari indarra eman gura diotela dio taldeko kapitain Mikel Biainek: "Ahalik eta gehien zabaltzen saiatuko gara. Haurrak ere inplikatu nahi ditugu; helburu horrekin atera genituen erraldoi-panpinak ere, eta hurrera oso ona izan dute, eta ereserkiak ere lagunduko du".

Bideklipa ere bai

Behin kantua grabatzen hasita, "zergatik ez irudietan ere jaso" pentsatu zuten, eta hala egin zuten, dantza taldeko kide ohi Jone Markuletari proposatuta. "Bi laguntzaile izan nituen. Musikariak hasieran lotsati samar zuden arren, ohitu egin ziren gero kameretara. Edizio lana neketsua da, baina pozik gaude txukun geratu delako".

Sare sozialetan ikusgai dago, Youtubeko *Oñatz 50. urteurrena* izeneko kanalean.

Irailaren 25ean estreinaldia

Ereserkia zuzenean entzun eta kantatu ahal izango da urteurrenaren agur-ekitaldian. Hala dio Biainek: "Hasieratik garbi genuen bukaerako ekitaldia dantza talde nagusiaren emanaldia izan behar zela, eta ahalik eta jende gehienak parte hartzea nahi dugu: hori horrela, herriko kultur taldeekin elkarlanean egingo dugu, eta gurekin izango dira Aita Madina Txistulari taldea, Oñatiko Udal Banda, Ganbara Abesbatza, Arrasateko Dultzaineroak, Txinparta Bertso Eskola eta Lizargarate Trikitizale Elkarteak".

DEMETRIO IRIARTEK KONPOSATUTAKO ERESERKIA BERRITU DUTE OÑATZ DANTZA TALDEKO KIDEEK

"Oso maila ona eman du Euskal Herriko Gazte Abesbatzak udan"

AITOR BIAIN ABESBATZEN ZUZENDARIA

Arezzoko jaialdiaren ostean, Tolosakoa dute helburu

A. Aranburuzabala OÑATI

Uda lampetua izan du Biainek, Basilio Astulezekin batera zuzentzen duen Euskal Herriko Gazte Abesbatzarekin; astebeteko topaketa egin zuten, eta ondoren, Italiako Arezzo probintzian bira, abuztu amaieran. **Atsedenerako asti gutxi, ezta?**

Egia esan, hamabost egun bakarrik izan ditut hondartzan egoteko, baina ikaragarriak izan dira EHGArekin bizitakoak, Bilbon eta Donostiako Musika Hamabostaldian eskaini ditugu kontzertuak eta Europa mailan

prestigio handia duen Arezzoko jaialdian ere izan gara.

Zelako taldea da EHGA?

Bertan parte hartzeko proba batzuk pasatu behar dituzte; gaur egun, Euskal Herri osoko 45 abeslari daude; horien artean, Debagoieneko Uxue eta Alba Bellido, Maria Izaga, Idoia Asurmendi eta Aitor Garitano. Bost urteko ibilbidea du abesbatzak; **proiektu gaztea** baina indarrez betea da. Esteban Urzelai oñatiarrak eta Isabel Mantecone zuzendu zuten hasiera, eta azken bi urteotan, Astulezen eta bion



Aitor Biain abesbatzen zuzendaria. EHGA

ardura da. Bion artean lan txukuna egin dugula esan dezaket eta taldearen maila ikaragarria da. Italian txundituta geratu dira eta gogotsu gaude orain azaroan Tolosako nazioarteko jaialdian parte hartzeko.

Abesbatza gehiago ere zuzentzen dituzu. Oporrak hartu dituzte horiek?

Abuztuan oporrak izan dituzte, ohi moduan, baina aurreko hilabeteetan indartsu egon gara kontzertuak eskaintzen, eta hori izugarriko pribilegioa da. Ikasurte berriari begira ere proiektu asko ditugu, eta, beraz, oso pozik gaude.

Zelan eragingo dizute astelehenean kultura arlorako Labik ezarritako neurri berriek?

Entseguak berdin hasiko ditugu. Labiren arau berriek edukiaretan eragingo dute; beraz, jende gehiago sartu ahaliko da kontzertuetan, eta hori oso positiboa da. Entseatzeko orduan ez dago aldaketarik: musukoa eta gela erabilia eta segurtasun distantziak gordeta. Lokal handietan jarraitu behar dugu entseatzeko, baina ez gara kexatuko.

Bidebarrieta auzoan sei musika emanaldi

Gaur, 18:00etan hasita, eta domeka bitartean askotariko ekitaldiak izango dira Bidebarrietako Errementari plazan, eta horien artean, musika emanaldiak. Ondarroako Dena taldearen rock alternatiboa eta post-hardcorea izango dira 19:30ean gaur entzungai, eta Zestoako Rodeo stoner laukoteak eta Nafarroako Pleura taldeak hartuko dute lekukoa 22:00etan.

Beste bi kontzertu antolatuko dituzte biharko: Bily Club taldearena 19:30erako eta Arrasateko Txakurrak eta Aretxabaletako Screammers & Sinners taldeena 22:00etarako. Domekan, 19:00etan, Circo Chosco taldeak *Indartsuak* lana eskainiko du.



Manex Balerdi eta Ander Murua, komunikabideei erantzuten. A.M.

Munduko Txapelketan egotea da erronka

PILOTA Beñat Rezustak eta Ibai Bolinagak 2012an lortu zutena errepikatzea dute amets Ander Muruak eta Manex Balerdik. Orduan, Rezusta eta Bolinaga munduko txapeldun izan ziren. Oraingoan, Murua eta Balerdi jokatzearekin konformatzen dira

Xabier Urzelai ARRASATE

Beñat Rezustak eta Ibar Bolinagak 2012an lortutakoarekin amesten dute Ander Murua arrasatearrak eta Manex Balerdi antzuolarrak. Orduan, Debagoieneko pilotariak –Rezustak ondoren hasi zuen Aspeko pilotari profesional moduan kirol ibilbidea– Munduko Txapelketa irabazi zuten, Tarben (Frantzia).

Bergarakoak buruz buru jokatu zuen Saul Cabello mexikarraren kontra, eta 10-3 eta 10-1 irabazi zuen. Ordurako ezaguna zen bergararraren jo bortitza, eta kontrario mexikarrak ezer gutxi egin ahal izan zuen.

Bolinagak, berriz, Ioritz Arrietarekin batera osatu zuen bikotea, eta Kubako selekzioko ordezkariak izan zituzten aurrean,

Carlos Ismael eta Daniel Leiva; euskaldunek errepaso galanta eman zieten (10-0, 10-0).

Hala, ia hamar urte pasa dira ordutik, Debagoienean beste inor ez da halako hitzordu batean izan, baina baliteke bolada txar horrek etena izatea hilabete barru, urriaren 17tik 23ra bitartean Segovian eta Valladoliden egingo duten Munduko Txapel-

ketan egoteko aukerak dituzte eta Ander Muruak eta Manex Balerdik. Horretarako, Espainiako hautatzaile Mikel Lanaren erabakiaren zain egon behar dute; izan ere, guztira, hamabi pilotari ditu aukeran hautatzaileak, eta sei lagunendako tokia baino ez dago.

Europako txapeldun izan berri

Debagoieneko pilotariak, baina, aukeratuen artean egoteko pauso garrantzitsua –baina ez erabakigarria– eman dute egunotan jokatu duten Europako Txapelketan; izan ere, txapelarekin bueltatu dira etxera. Valladolideko Iscar herrian eta Segoviako Valleladon jokatu berri dute nazioarteko torneoa –urri amaieran leku berean jokatu dute Munduko Txapelketako atariko proba izan da– eta bertan lan aparta egin dute debagoiendarrak. Uda bete izan dute, entrenamenduz eta partiduz josia, baina Gaztela eta Leonen erakutsi dute sasoi onean daudela bi pilotariak. "Astean behin Iruñera joaten ibili gara selekzioko kideekin batera entrenatzera, eta horrekin batera hainbat torneotako partiduak izan ditugu. Bai, uda lanpetua izan dugu, baina gustura ibili gara", adierazi du Muruak.

Debagoiendarrek Salamancako Paladin taldea ordezkatu zuten Europakoan, eta jokatu-tako bi partiduak irabazi zituzten –10-4 eta 10-8 Unai Mataren eta Javier Cuairanen kontra–, eta, aurreratu moduan, txapelketa hori irabazi izanak Munduko Txapelketarako txartela ziurtatu ez badie ere, lagungarri izango da, seguru: "Europakoa irabazi izana pozgarria izan da, baina hautatzailearena da azken hitza eta irailaren 14an adiera-

ziko digu zein pilotari aukeratu diten. Aukeratuen artean egoteko esperantza dugu, baina ezin da ezer aurreratu".

Joatea da zaila

Urriaren 17tik 23ra jokatu dute Munduko Txapelketan egoteko ilusioz daude Murua eta Balerdi: "Txapelketa horretan Frantziako eta Espainiako selekziokoekin batera egongo dira Mexikokoak, Kubakoak, Argentinakoak... Dakigunez, astean amaitzen zen izena emateko epea, eta ez dakigu zenbat selekzio batuko diren, baina oso txapelketa polita da". Izan ere, txapelketan lan txukuna egitea baino zailagoa da txapelketara bertara joatea: "Selekzioan aukeratuen artean egotea ez da erraza, hemen oso maila oneko pilotariak daudelako. Ondoren, behin aukerata, nazioarteko gainontze pilotarien kontra maila polita eman dezakegula uste dut. Pena da txapelketa Mexikon edo beste-lako herrialde batean ez izatea, esperientzia are eta borobilagoa izango litzatekeelako, baina Gaztela eta Leonen jokatu ere, bikain".

Oraingo zapatuan ere Muruak eta Balerdik elkarrekin jokatu dute, Lodosan, baina, aukeratuen artean badaude, hilaren 14tik aurrera partidu kopurua txikitu egingo diete, besteak beste, lesioak saihesteko. Oraingoz, hautatzailearen erabakiaren zain geratu beharko dute.

BEÑAT REZUSTA ETA IBAI BOLINAGA MUNDUKO TXAPELDUN IZAN ZIREN 2012AN

AITOR MAIZTEGI

AZURMENDI JATETXEKO SOMMELIERRA

GOIENA TELEBISTA, 'HEMEN DEBAGOIENA'

IRAILAREN 7AN, MARTITZENEAN, 18:00/20:00/22:00

JOSU BILBAO KAZETARIAK EGINDAKO ELKARRIZKETA



DESKARGATU
GOIENA
APP BERRIA!

goiena
Zu hemen zaude.





Bergararen liga amaierak interesa piztu zuen; argazkian, zaleak Agorrosinera sartu ezinik, baina partidua jarraitzen. M. BELASTEGI

Harmailak zaleen zain daude, baina mugekin

FUTBOLA Talde gehienak denboraldi-aurrean murgilduta dauden honetan, ikusleak hasi dira, edukiera mugatuarekin, futbol zelaietara –eta kirol kantxetara– itzultzen. Bergara Hirian zaleak izan ziren harmailetan, eta asteburuan jokatuko dute Arrasate

Xabier Urzelai ARRASATE

Urte eta erdi geroago, zaleak hasi dira harmailetara itzultzen. Iazko liga txapelketek ez zuten horretarako aukerarik eman –jarraitzaile batzuek aurkitu zuten zirrikituren bat edo beste–, baina oraingo abuztuan, denboraldi-aurreko norgehiagoketan, publikoa bueltatu da harmailetara. Orain arte, %20ko edukiera bete behar izan dute; esaterako, Iturripen joan den astean MÜren Euskal Kopako partiduan 60 zalerendako tokia zuten gordeta, baina kopuru hori %30era igo dute astean. Agorrosinen, adibidez, 300 lagunendako tokia izango dute. Hain zuzen, zale bergararrek bertatik bertara

jarraitu ahal izan zuten joan den astean Bergara Hirian etxeko taldeak egindakoa –Zumaia-kok irabazi zuen torneo, 2-4–. Eta, hain zuzen, horixe izan zen albiste onena, zaleen itzulera.

Eta beste horrenbeste gertatuko da oraingo asteburuan, esaterako, Mojategin jokatu dute Arrasate Hiria torneoan eta Azkoagainen Aloña Mendik eta Antzuolak jokatu dute lagunartekoan. Egia esan, edukiera hauen zenbatekoak garrantzi txikia du, bailarako futbol zelaiek jendea hartzeko gaitasun handia dutelako eta nekez beteko direlako iragarritako muga horiek. Pena da, baina horrela da. Kontrara,

kiroldegietako kantxetan gehiago igarriko dira publikoari dagokionez jarraitu beharreko mugak.

Astebete liga hasteko

Gizonezkoen Ohorezko Erregional Maila irailaren 12an hasiko dute –emakumezkoak astebete geroago hasiko dira–, baina asteburuan zenbait partidu izango dira Debagoienan. Zapatuan eta domekan UDAk, Bergarak, Elgoibarrek eta Mondrak lauko torneo formatua izango duen Arrasate Hiria jokatu dute –partiduak 16:00etan eta 18:00etan–. Eta Oñatin, Aloña Mendik Antzuola hartuko du zapatuan –16:30–.

Ainhize Barrainkua eta Garazi Estebez, Espainiako Vueltan

Irailaren 2tik 5era egingo dute, Galizian, lau etapa izango dituen emakumezkoen Vuelta. Eta Laboral Kutxako Ainhize Barrainkua eta Garazi Estebez irteeran izango dira. Aretxabaletakoekin batera izango dira munduko ziklista onenak; tartean, Annemiek van Vleuten, Anna van der Breggen eta Elisa Longo Borghini.

Ainara Urrutia eta Ainara Urbarri, lehenak Panticosan

Asteburuan egin dute, Panticosan, Trail Valle de Tena lasterketa, eta Ainara Urrutia aretxabale-tarra eta Ainara Urbarri oñatiarra nabarmendu dira. Aretxabaletakoak 1K-n hartu zuen esku –10 kilometro–, eta ez zuen kontrariorik izan –1.11.46–. Oñatikoa 2K-n lehiatu zen –20 kilometro–, eta Paceras-era igotzen egin zuen tartea.

Antxintxikak debuta egingo du triatlói egokituan, Zumaian

Zapatuan Zumaia triatlói egingo dute, eta aurtengo nobedadeetako bat da paratriatletak lasterketan parte hartu ahal izango dutela. Antxintxikako kirol egokituko taldearen debuta izango da triatlóietan, Joseba Azkaratek orain arte duatloiak egin izan ditu eta. Ruben Viso atleta da Antxintxika ordezkatuko duena.

Goienakideen txokoa

Iraileko sariak



SPC Tableta

Parte hartzeko sariaren izena: Tableta



Sarrerak

Arrikutz kobak bisitatzeko, sarrerak. Parte hartzeko sariaren izena: Arrikutz



Otarrea

Bidezko merkataritzako produktuak. Parte hartzeko sariaren izena: Otarrea



PARTE HARTZEKO:

Posta elektronikoz: goienakide@goiena.eus Whatsapp: GOIENAKIDE "sariaren izena" [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira
"goiena app"-a / zozketa atalean. Parte-hartzaleen artean egingo da zozketa. Irabazlearen izena (DNI) 15/09/2021 egunera artean jakinaraziko da. Irabazlearen izena jakinaraziko denean, irabazlearen izena jakinaraziko dugu. Irabazlearen izena jakinaraziko denean, irabazlearen izena jakinaraziko dugu. Irabazlearen izena jakinaraziko denean, irabazlearen izena jakinaraziko dugu. Irabazlearen izena jakinaraziko denean, irabazlearen izena jakinaraziko dugu.

Irabazi bi lagunendako otordua

GOIKO BENTA JATETXEARI ESKER

Begiratu Puntua aldizkari Otoroian atala eta hartu parte! Parte hartzeko azken eguna: irailak 7

943 25 05 05 goienakide@goiena.eus "Goiena app"-a / zozketa atalean.

GOIENAKIDE .Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.



Puntua aldizkaria jasotzeko, zozketetan parte hartzeko eta txartel digitalaren abantailaz gozatzeko...



BAZKIDETZA KUOTA: 15€
Deitu: 943 25 05 05 • goienakide@goiena.eus



DESKARGA TU GOIENA APP BERRIA!

goiena
kide

Okm: batzen gaituen distantzia.



Esencia TP arrasatearrak, lagunekin batera grabatutako bideoklip batean. ASIER ELGEZUA



Ikusle ugari Bergarap lehiaketa bat ikusten, Espoioian. MARTXEL MORAL

Xabi Gorostidi DEBAGOIENA

Tradizionalki, bailarako gazte eta errebeldeen musika estilo gustukoenak punka, Oi!-a eta hardcorea izan dira, baina gauzak goitik behera aldatu dira. Gaur egun, musika urbanoa –rapa, trapa, drilla eta reggaetona– da nerabeek eta gazteek gehien entzuten duten estiloa, eta Debagoiena joera horiekin lotutako gazte sortzaile loraldia bizi izaten ari da. Une honetan 20tik gora dira kantuak eta bideoklipak sortzen ari diren bailarako gazteak, eta, horien pertzepzioen arabera, bailarako gazteen %65i gustatzen zaizkie aipatutako musika estilo berriak.

Baina ez da soilik musika estilo aldaketa huts bat izan. Musika ekoizteko, kontsumitzeko eta plazaratzeko moduak irauli ditu olatu berri honek. Lehen, kontzertuetan neurtzen zen musika talde bakoitzaren indarra eta arrakasta, baina aipatutako bolada berri honetako musikariek ez dute apenas kontzerturik egiten. Euren kasuan, Youtubeko ikustaldiak eta Instagrameko jarraitzaile kopuruak dira arrakastaren neurtzaile.

Horrez gainera, apenas ekoizten dituzte diskoak, eta abestiak banan-banan argitaratzen dituzte, ia gehienetan abestia bera bezain garrantzitsua den bideoklip zainduarekin. Sortzaile ia guztiak gizonezkoak dira, eta gehienek gaztelera hutsean abesten dute.

Rap eta trap musikarien ezkutuko loraldia ari da gertatzen Debagoienez

Bailaran hogeitik gora sortzaile ari dira rap, trap, drill eta reggaeton musika egiten. Nahiz eta kontzertu gutxi egin, nerabe eta gazteen artean gehien entzuten diren musika estiloak dira, eta sare sozialak dira euren agertoki eta erakusleho berriak

Eszenatik gabeko eszena

Sortzaileak badaude, musika hori gustuko duten entzuleak ere bai, baina baldintza horiek eduki arren ez da musika estilo horiekin lotutako kontzerturik ikusten. Pandemia aurretik, adibidez, Bergaran egiten ziren rap kantarien arteko oilar-joko inprobisatuak, Bergarap izena zutenak. "Duela lau urte hasi ginen era horretako kale-lehiaketak antolatzen, 16 urte genituen. Sare sozialetan deialdia zabaltzen genuen, eta hainbat herritatik etorritako lagunak batzen ginen Espoioian. Gutxie-

ARTISTEN USTEZ, GAZTEEN ETA NERABEEN %65EK DUTE GUSTUKO MUSIKA URBANOA

neko partaide kopurua hamasei lagunekoa izaten zen, eta hiru kide egoten ziren epaimahai lanetan. Partaide bakoitzak euro bat edo bi jartzen zituen eta batutako diru hori izaten zen irabazlearen saria. Baina udaltzainekin arazoak eduki genituen, bidea mozten genuelako, eta zigor ekonomikoak jasotzeko mehatxua ikusita ez genuen jaialdi gehiago antolatu", dio Bergarako rap abeslari Martxel Moral *Zetita*-k.

2019ko urtarrilean ArRAPsate jaialdia egin zuten Arrasaten, Esencia TP eta Suprim Records taldeen parte hartzerekin, eta argi ikusi zen musika estilo horrek gazteen artean duen indarra; hala ere, kontzertu arrakatsua izan arren, ez zuen jarraipenik izan. "Eszena egon badago. Sortzaile asko daude, baina zerbait falta da hori kon-

tzertu bidez zaleei eskaintzeko. 2019ko urtarrilean goraino bete genuen Arrasateko gaztetxea. Baina egia da azken urteetan kontzertuek behera egin dutela. Duela 10-15 urte, barikero eta zapatuero zeuden kontzertuak han eta hemen, eta horrek behera egin du nabarmen. Horri pandemiak eragindako etena eta geldotzea gehituz gero, une honetan egoera askoz urriagoa da. Eta zer gertatu da? Bada, sare sozialek xurgatu dutela mugimendu guzti hori".

"Sortzaile gehienek kantu solteak argitaratzen dituzte, eta

SORTZAILEAK DAUDE, PUBLIKOA ERE BAI, BAINA, GAURGAURKOZ, KONTZERTU KOPURUA BAXUA DA

gutxi dira disko bat egiteko material nahikoa dutenak. Lan egiteko modu horrek ere eragiten du kontzertu gutxi egotea. Maiztasun jakin batekin kantak argitaratzen joatea lehenesten da gehiago; sare sozialek markatzen dute erritmoa, eta egia da kontzertuak bigarren mailan geratzen direla. Gainera, egoera pandemikoa nola dagoen ikusita, kontzertu falta normala dela uste dut", dio Ur Bruña sortzaile eta abeslariak.

Egoera pandemikoa baretzean rap eta trap eszenak eztanda egin dezakeela uste du Iker Iriarte *HRT* abeslari bergararrak: "Eszena geroz eta gehiago egongo da. COVID-19arekin oso zaila dago kontzertuak egitearena, eta askok ez dute motibaziorik. Pandemia garaian kontzertu bat egin genuen, eta beste bat egiteko gertu izan ginen. Baina kontzertuak egiteko gogoz gaude eta ziur aurrerantzean ugaritu egingo direla".

Euren kasuan, gainera, gogotsu daude Oi! eta rap estiloak nahasten dituzten jaialdiak antolatzeko. "Oi! musika eta rapa bateragarriak direla uste dut. Biek balio dute gazte eta errebelde izateko, eta bi estilo horiek nahasten dituzten kontzertu edo jaialdiak egin daitezkeela uste dut. Laster, egoera pandemikoa baretzen denean, horrelako zerbait egin nahi dugu No Limits taldearekin Bergarako gaztetxean. Elkar besarkatu **daitezkeen** bi mundu dira".



Janire Davila 'Janda', Arrasaten grabatu zuen 'Candy Hood' abestiaren bideo-kliparen une batean. OIHANE GARCIA

Aipatutako musika estiloen "fama txarrak" kontzertuak egiteko aukera murrizten duela dio Janire Davila *Janda* arrasatearrak. "Nire kasuan, bi urte daramatzat eta hiru kontzertu egin ditut soilik, COVID madarikatuak baldintzatu baitu guztia. Egin ditudan apurrak diskoteketan izan dira, lagun artista edo ekoizleek telonero gisa sartu naute-lako, baina egia da herriko jaietan gure musikak ez duela lekurik. Trapa, adibidez, asko erlazionatzen dute reggaetona-rekin, eta estilo horrek mesfidantza eragiten du, matxista eta sexista delakoan. Espainia hegoaldean, Malagan, adibidez, aurreiritzi horiek gainditu egin dituzte eta kontzertu asko egiten dira era horretako plazetan. Hemen, ordea..."

Sare sozialen indarra

Mugimendu berri honetan sare sozialak estrategikoak dira: promozionatzeko, kontsumitzeko, erlazionatzeko eta publikoaren babesa sentitzeko eta zenbatzeko. Aretxabaletako Ekso eta Pxli abeslarien kasua deigarria da oso. Orain arte, kanta bakarria argitaratu dute *Guerreros* du izena— eta 37.000 ikustaldi baino gehiago batu dituzte Youtuben. "Ez genuen espero kantua 5.000 ikustaldira heltzea, eta 30.000 ikustaldiak gainditu ditu. Ez da bakarrik gure meritua. Produktore oso on bat izan dugu alboan, baita bideoak egiten oso ona den Bilboko beste lagun bat, eta ho-

rri guztiorri esker jendeak gustuko izatea lortu dugu". Baina jendeak euren kanta gustuko izan arren, ez dute presarik kontzertuak egiteko. Alde horretatik, bi aukera hauetako bat hautatzeko galdetuta, nahiago dute euren hurrengo kantak 40.000 ikustaldi izatea euren lehen kontzertuan 150 lagun batzea baino.

Hodei Vicario *Denso* arrasatearra izan zen kantu hori ekoiztu zuena. Aretxabaletako gazteen kasuari buruz galdetuta, erlatibizatu egin du arrakasta ikustaldi kopuruarekin lotzearena: "Sare sozialetako ikus-entzunezkoen kontsumoa duela hamar urte baino 100 aldiz handiagoa da. Lehen, 100.000 ikustaldi sekulako lorpena zen, eta orain, zure katuaren bideo barregarri batek 2.000.000 ikustaldi lor ditzake ordu gutxitan. Ikustaldi kopurua erreferentzia bat da, badu garrantzia, baina neurria hartu behar zaio". Bada nor hori esateko; izan ere, berak abeslari argentinar bati egindako abesti batek 3.500.000 ikustaldi ditu.

Ekoizleak eta bideo-egileak

Rock taldeen formazioan badaude ezinbesteko partaideak: ba-

LEHEN KANTAREKIN 37.000 IKUSTALDI LORTU DITUZTE ARETXABALETAKO BI ABESLARI GAZTEK

teria, gitarra, baxua eta abeslaria. Eta mugimendu berri honetan, abeslariak gain, ekoizlea, bideo-egilea eta halako partaideak funtsezkoak dira. Hodei Vicario ekoizlea figura oso garrantzitsua da mugimendu honetako sortzaileen loraldia ulertzeko. Abestien oinarriak sortzen ditu, eta kantuak ekoiztu ere bai: "Abeslari bati oinarri bat emanez gero, gutxi ateratzen diote zuku guztia. Nik pistak eta aholkuak ematen dizkiet abesteko erari eta erritmoari dagokionez, kantuari etekin ahalik eta handiena ateratzeko". Abeslari hasiberri batek ordaindu egin behar du oinarri bat eskuratzeko, ordaindu egin behar du ahotsa grabatzeko, masterizatzeko... Horren harira, Vicariok Arrasaten zuen estudioa oso lagungarria izan da hasteko gogoz zeuden sortzaile askok lehen urratsak egiteko: Tatta, Ur Bruña, Alaiur, Mutiko...

Ekoizlea ezinbesteko bada, gauza bera gertatzen da bideo-ekoizleekin. Izan ere, sortzaileek, orokorrean, bideo-klip formatuan argitaratzen dituzte kantak, eta ikus-entzunezkoaren kalitatea ere asko lantzen dute. "Irudiak oso lagungarriak dira hitzak zuzenago heltzeko", dio HRT-k. Gure bailaran badaude puntako bideo-ekoizle batzuk; Esencia taldearen bideoak egin izan dituen Asier Elgezua arrasatearra da horietako bat, eta Bergarako Beñat Vicentek ere lan txukunak ditu.

Hip-hoparen hastapenak bailaran

Rap kulturarekiko zaletasuna ez da berria Debagoiengan. 90. hamarkadako musika talde batzuegan oso influentzia nabaria izan zen —Ekon edo Anger taldeak kasu— eta Deifus bezalako rap abeslari solteak izan ziren, nahiz eta kontzertu oso gutxi jo.

Arrasateko gaztetxean, adibidez, lau Hip-hop festa antolatu zituzten —azkena 2012an—, non zuzeneko rap musikaz gain, skate, graffiti eta break-dance erakustaldiak uztartzen zituzten. "Guretzat hip-hop kulturak hiru adar zituen: musika, graffiti eta dantza. Eta Hip-Hop festetan hori plasmazten genuen. Ez ziren jaialdi masiboak izaten, baina bazegoen kultura hori gustuko zuen publikoa". Zentzu horretan, musikaren eta dantzaren adarrak ez zuen garapen handirik eduki bailaran; aldiz, graffiti izan da jarraikotasun handiena izan duen alorra.




2012ko hip-hop festa. J.B.

Debagoieneko sortzaileen zerrenda

Arrasate


- Nerea Loron 'La Furia'
- Fran Pedrosa 'Ixsiyroi'
- Iban Martin 'Talycual'
- Janire Davila 'Janda'
- Mikel Retegi
- Unai Sierra
- Oihan Uribarren 'Fane'
- Martin Errasti 'Tatta'
- Ur Bruña
- Alaiur Alcelay 'Kate'



Martin Errasti 'Tatta'.

Bergara

- Iker Hiriarte 'HRT'
- Xady Aiastui 'K-PO'
- Martxel Moral 'Zetita'
- Jon Igartua 'Blind 09'
- Markel Salgado
- Lander Romero 'Land'



Xady Aiastui 'K-PO'.

Oñati

- Haritz Olaeta
- Mikel Aranburu
- Julen Lorenzo

Aretxabaleta

- Mikel Egia eta Markel Bengoa 'Exso & Pxli'

Eskoriatza


- 'Gafer'

Aramaio


- Jon Izaga 'Mutiko'

Ekoizle eta bideo egileak

- Hodei Vicario, ekoizlea
- Asier Elgezua, bideo-ekoizlea
- Beñat Vicente 'Señorito Aloha', bideo ekoizlea'



Haritz Olaeta.



17 UDAKO ARGAZKIEN .GOIENA LEHIAKETA *egin klik!*

Eskerrik asko parte hartzeagatik!

Bidali zure argazkiak irailaren 20ra arte posta elektronikoz (argazkiak@goiena.eus) edo Whatsapp/Telegram bidez (688 69 00 07). Lehiaketaren oinarriak irakurri eta sariak ezagutzeko, sartu Goiena.eus-en.




Argazki guztiak kanal berezi honetan:
<https://labur.eus/lehiaketa-2021>



BOLI, LA FORADADA MENDI TONTORREAN | Argazkia: Emilio Bernal




BEARIZ, OURENSE | Argazkia: Asun Poza



UDAN BLAI | Argazkia: Ainhoa Aramburu



AHUNTZA, ARATZ INGURUAN | Argazkia: Eñaut Uriarte Palacio



FORMENTOR ITSASARGIA, MALLORCA | Argazkia: Maddi Parra



SAN KRISTOBALDIK | Argazkia: Jose Luis Madina Uribarren



BEHI BATEN HEZURRAREKIN, NAFARROAKO MENDIAN | Argazkia: Iñaki Zenitagoia



URBIAN EGUN-PASA | Argazkia: Izaro Garmendia



ILUNABARRA HONDARTZAN | Argazkia: Maddi Goenaga Jauregi

ANTOLATZAILEA:
goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:
EROSKI
ARRASATE

GURE AMETSA
Restaurante • Jaletxea

BERGARA
EREIN DA JAN

GU Travel
Halcon bedak
Arrasate

IRAGARKI SAILKATUAK

1. ETXEBIZITZAK

104. ERRENTAN HARTU

Arrasate edo inguruak. Etxebizitza txiki bat edo logela bat errentan hartuko nuke Arrasate edo inguruak herrien baten. Garraio publikoa erabili beharra daukat. 52 urteko gizon arduratsua naiz, Hegoafrika-Indiakoa, ez erretzailea. 722 27 88 89

Bergara. Denbora luzerako errentan hartu nahi dugu etxea. Bi seme nerabedun bikotea gara. Arduratsua eta solbenteak. Etxebizitza errentan hartu nahi dugu Bergara erdialdean: eguzkitua eta terrazarekin, hiru logela, bi komun eta igogailua. Ahal bada, garajearekin. Ikasturte hasieran hartu nahiko genuke, irail edo urrian. 626 12 95 07, 626 35 32 54

105. ETXEA OSATU

Arrasate. Ikaslea naiz eta Arrasaten etxebizitza partekatuko nuke. Bi ikasle-erendako lekua daukat edo bestela, zure etxean niretako lekuri baduzu, deitu telefono zenbakia honetara: 697 73 82 32

2. GARAJEAK

203. ERRENTAN EMAN

Bergara. Ibargarai kalean errentan emateko bi garaje: autoerentzako bat

eta moto edo bizikletentzako beste bat. Telefona: 679 74 00 61

4. LANA

401. ESKAINTZAK

Arrasate. Zerbitzari arduratsua behar dugu tabernan lan egiteko. Juan Carllosez galdetu. 673 84 08 83

Bergara. Irailetik aurrera pertsona arduratsua bat beharko genuke goizetan, 8:00etatik 9:00etara, 8 eta 10 urteko umeak zaintzeko. 659 03 85 29

Bergara. Irailetik aurrera pertsona bat beharko genuke gure etxean, umeak zaintzeko, 5 eta 11 urtekoak, eta etxeko lanetan laguntzeko, eguerdiko orduetan. Pertsona arduratsua, alai... Telefona: 658 74 85 07

Bergara. Pertsona nagusi bat zaintzeko eta etxeko lanak egiteko pertsona baten bila gabilta. Derri-gorrezkoa legezko agiriak edukitzea. Orduetgia, astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:30era eta 19:00etatik 20:00etara. Asteburuetan 9:00etatik 10:00etara. 630 48 62 20

Haurrak ikastolatik jaso Bergaran. Urritik aurrera pertsona bat behar dugu eguerdian bi haur, 7 eta

4 urtekoak, ikastolatik jasota eta ordubete zainzteko. Orduetgia: 12:30 - 13:30. Telefona: 617 14 71 25 edo 688 61 49 88

Oñati. Irailetik aurrera bi haur zainzteko pertsona euskaldun baten bila gabilta. Arratsaldean eskolatik jaso eta bi ordu zainzteko izango da. Deitu: 686 24 61 20

Pertsona bila. Urritik aurrera pertsona bat beharko genuke Bergaran bi haur eskolara eramateko. Goizeko 8:00etatik 9:00etara. 687 06 80 01

402. ESKAERA
Debagoiena. 15 urteko esperientzia duen neska lan bila. Soziosanitario titulazioa eta jardundako azken lanlekuko erreferentziak aurkez ditzaket. Legezko agiriarekin. 643 73 62 83

Debagoiena. Arratsaldetan orduka, edo ospitalean eta etxean gaueetan, zaintza lanak egingo nituzke. Soziosanitario titulazioa daukat. 659 90 85 13

Debagoiena. Asteburuetan edo gauez pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. 647 31 48 17

Debagoiena. Emakumezko euskalduna lanerako gertu. 656 79 28 37

Debagoiena. Etxean bertan bizi izaten pertsonen zainkarako edo garbiketarako lan egitea gustatuko litzaidake. Telefona: 642 49 94 09

Debagoiena. Etxeko langile, pertsonen zainketa eta garbitzaile bezala lan egiteko prest nago. 641 44 16 30

Debagoiena. Gizona lanerako gertu: garbitzen, nagusiei enkarguak eta garraioetan laguntzen, banatzaile lanetan etab. Autoa daukat. Telefona: 645 72 92 87

Debagoiena. Goizetan nagusiak zainduko nituzke. Berehala hasteko moduan. Telefona: 602 32 06 58

Debagoiena. Hainbat lanetan jarduteko prest nago: eraikuntzan, tabernan, pertsona nagusien zaintzan... 612 28 05 29

Debagoiena. Lanean hasteko prest nago; pertsona nagusi edo umeen zaintza, garbiketa lanetan eta abar. 602 02 63 03

Debagoiena. Mutila garbiketetan, nagusiei laguntza ematen, banaketan edo bestelako lanetan jarduteko gertu. Telefona: 643 68 73 46 (Cristino)

Debagoiena. Nagusiak eta umeak zaintzen edo etxeko lanak egiten lan egingo nuke. Telefona: 631 80 27 53

Debagoiena. Neska arduratsua garbiketetan, lisan eta ume zain nagusien zaintza aritzeko gertu. Baita ospitalean ere. Deitu 611 24 26 64 telefonora.

Debagoiena. Neska arduratsua orduka lan egiteko gertu. Soziosanitario, etxeko langile eta lehen sorosten ikasketak daukat. Umeak ere zainduko nituzke. Deitu 653 36 85 80 telefono zenbakira.

Debagoiena. Pertsona arduratsua naiz eta lan egiteko prest nago: tabernetan zerbitzari bezala, pertsona nagusiak zaintzen eta abar. Deitu 603 58 06 85 telefonora.

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen gauez lan egingo nuke. Soziosanitario titulazioa eta legezko paperak egunean ditut. 647 31 48 17

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi duen bikote bat gara. 633 49 27 40

Debagoiena. Pertsona nagusiak zaintzen lan egin nahi dut. Titulazioa daukat. 688 72 88 97

Debagoiena. Pertsona nagusien zaintzaile bezala esperientzia daukat eta lan egin nahi dut. Telefona: 672 55 67 35

Debagoiena. Pertsonen zainketa lan egingo nuke, baita garbiketetan ere. Trebetasuna duen pertsona naiz. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Soziosanitario titulua daukat. 643 73 62 36

Debagoiena. Soziosanitario titulua daukat eta pertsona nagusiak zaintzen lan egiteko prest nago. 659 90 85 13

ASTEAGA GOIENA TELEBISTAN



AITOR MAIZTEGI: AZURMENDIKO SOMMELIERRA
'Hemen Debagoiena' Martitzena, 18:00/20:00/22:00



ASTEBURUKO KIROL EMAITZAK
'Harmailatik' Astelehena, 21:30/23:30

EGUBAKOITZA, 3	ZAPATUA, 4	DOMEKA, 5
09:00 D2030: Erroka konplexuen garaia	08:00 Elkarrizketa: Zuhaitz Gurrubaga	08:00 Hemen da Miru 41
09:30 Tolosaldean barrena: Amezketa	08:30 Hemen da Miru 41	08:30 Hemen da Miru 42
10:00 Hemen Debagoiena	09:00 Tolosaldean barrena: Amezketa	09:00 Hemen da Miru 39
11:00 D2030: Erroka konplexuen garaia	09:30 Hemen Debagoiena	09:30 Zirikatzan 17
